

TXOSTENA IXOSTILNA

2

**EMAKUMEEN
PARTAIDETZA
EUSKADIKO
LAN
MERKATUAN**



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNTZA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

EMAKUMEEN

PARTAIDETZA

EUSKADIKO

LAN

MERKATUAN

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Vitoria-Gasteiz 1992

IZENBURUA: "Emakumeen partaidetza Euskadiko lan merkatuan"

EGILEA: EMAKUNDE, Emakumearen Euskal Erakundea
Manuel Iradier kalea, 36. 01005 - Vitoria-Gasteiz

NOIZ: 1992.eko maiatza

ALE ZENBAKIA: 2.000

DESKRIPTOREAK: Lan merkatuko partaidetza, alokairuzko desberdintasunak, lanaldi bikoitza eritzi publikoa,
datu estatistikoak

ISBN: 84-87595-09-X

LEGE GORDAILUA: VI-351/92

INPRIMATZAILEA: Gráficas Santamaría, S. A.
Bekolarra, 4. 01010 - Vitoria-Gasteiz

DISEINU GRAFIKOA: D. G.

AURKIBIDEA

	Orr.
AURKEZPENA	11
ERABILITAKO ITURRIAK ETA METODOLOGIA	15
LEHENGO ZATIA	21
EMAKUMEAK LAN MERKATUAN	21
1. LAN MERKATUKO PARTAIDETZA	23
1.1. Sarrera	25
1.2. Lan alorreko biztanleria aktiboa	26
1.2.1. Adina	29
1.2.2. Egoera zibila	31
1.2.3. Ikasketa-maila	35
1.3. Biztanleria langabetua	37
1.3.1. Adina	41
1.3.2. Egoera zibila	43
1.3.3. Ikasketa-maila	44
1.3.4. Biztanleria langabetuaren bestelako ezaugarriak	45
1.4. Biztanle guztien banaketa	47
1.5. Ondorioztapenak	49
2. LAN IHARDUERETAN ARI DEN BIZTANLERIA	51
2.1. Sarrera	53
2.2. Astero lanean emandako orduak	56
2.3. Ekonomi sektorea	57
2.4. Iharduera adarra	60
2.5. Lanbidea	63
2.6. Lanbide-egoera	64
2.7. Alokairupeko biztanleria	65
2.8. Ondorioztapenak	68
3. EMAKUMEZKOAK NEKAZARITZAN, ETXEKO LANETAN, EZKUTUKO EKONOMIAN ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN	71
3.1. Sarrera	73
3.2. Emakumezkoak nekazaritzan	73
3.3. Emakumezkoak etxe-zerbitzuan	74
3.4. Emakumezkoak ezkutuko ekonomian	76
3.5. Emakumezkoak administrazio publikoan	78
3.6. Ondorioztapenak	79

4. ALOKAIRUZKO DESBERDINTASUNAK EMAKUME ETA GIZONEZKOEN ARTEAN	81
4.1. Sarrera	83
4.2. Alokairuzko desberdintasunak sexuaren arabera	83
4.3. Alokairuzko desberdintasunak eta lanbide-bereizketa	87
4.4. Alokairuzko desberdintasunak eta ekoizmen mailako desberdintasunak	90
4.5. Ondorioztapenak	94
5. ALOKAIRUPEKO BIZTANLERIA ETA ETXE-EGINKIZUNEKIKO DEDIKAZIOA	97
5.1. Sarrera	99
5.2. Alokairupeko biztanleriak egindako etxe-iharduerak	99
5.3. Etxe-ihardueretan emandako denbora	101
5.4. Etxe-eginkizunak burutzeko laguntza	103
5.5. Ondorioztapenak	104
6. ONDORIOZTAPEN OROKORRAK	105
BIGARREN ZATIA	109
EMAKUMEEK LAN MERKATUAN DUTEN PARTAIDETZARI BURUZKO ERITZI ETA JARRERAK	109
1. ZENBATEZKO AZTERKETA	111
1.1. Sarrera	113
1.2. Lan egiteko eragingarriak	113
1.3. Lanarekiko poztasuna. Helburuak	114
1.4. Lana eta familia	115
1.5. Alokairuetan somatutako diskriminazioa	116
1.6. Gizonezkoen lanak eta emakumezkoenak	117
1.7. Eritzi eta jarrera orokorrak	120
1.8. Berdintasuna bultzatzeko jokabideak	123
2. KUALITATEZKO AZTERKETA	125
2.1. Sarrera	127
2.2. Lan egiteko eragingarriak	127
2.3. Lanbide-helburuak	128
2.4. Laneko diskriminazioa	129
2.5. Laneko hartuemanak	132
2.6. Lana eta norbere etxea	134
2.7. Etorkizunarekiko jarrera	135
2.8. Berdintasuna bultzatzeko jokabideak	136
3. ONDORIOZTAPEN OROKORRAK	139
ERANSKINAK	143
A.1. Zenbatezko azterketaren emaitzei buruzko taulak	145
A.2. Itaunketa	177

TAULEN AURKIBIDEA

	Orr.
1. LAN MERKATUKO PARTAIDETZA	23
1.1. 16 urte edo gehiago dituen biztanleria bere lan iharduerarekiko harremanaren arabera	26
1.2. Iharduera tasak Europako Ekonomi Elkarteko herrialdeetan	27
1.3. Iharduera tasen bilakaera azkenengo lau urteetan	28
1.4. Iharduera tasak eta biztanleria aktiboaren banaketa adin-multzoka	29
1.5. Iharduera tasak adin-multzoka Euskal Herrian, Espainian eta Europan	30
1.6. Iharduera tasen azken lau urteetako bilakaera adinen arabera	31
1.7. Iharduera tasak eta biztanleria aktiboaren banaketa egoera zibilaren arabera	32
1.8. Iharduera tasak eta biztanleria aktiboaren banaketa egoera zibilaren eta adinaren arabera	33
1.9. Iharduera tasen azken lau urteetako bilakaera egoera zibilaren eta adinaren arabera	34
1.10. 16 urte edo gehiago dituen biztanleria aktiboaren banaketa bukatutako ikasketen mailaren arabera	35
1.11. Iharduera tasak eta biztanleria aktiboaren banaketa ikasketa-mailaren eta adinaren arabera	36
1.12. Iharduera tasen bilakaera ikasketa-mailaren eta adinaren arabera	37
1.13. 16 urte edo gehiago duen biztanleria aktiboa, langabetua nahiz landuna	38
1.14. Langabezi tasak Europako Ekonomi Elkarteko herrialdeetan	39
1.15. Langabezi tasaren bilakaera azkenengo lau urteetan	40
1.16. Langabezi tasak eta biztanleria langabetuaren banaketa adin-multzoka	41
1.17. Langabezi tasak adin-multzoka Euskal Herrian Espainian eta Europan	42
1.18. Langabezi tasen azken lau urteetako bilakaera adin-multzoka	42
1.19. Langabezi tasak eta biztanleria langabetuaren banaketa egoera zibilaren eta adin-multzoaren arabera	43
1.20. Langabezi tasen azken lau urteetako bilakaera egoera zibilaren arabera	44
1.21. Langabezi tasak eta biztanleria langabetuaren banaketa ikasketa-mailaren eta adin-multzoaren arabera	44
1.22. Langabezi tasen azken lau urteetako bilakaera ikasketa-mailaren arabera	45
1.23. Langabezialdiaren iraupena	46
1.24. Langabezi aseguruaren kobrantzarekiko egoera	46
1.25. Langabezi tasak ekonomi sektoreka	47
1.26. Biztanle guztien banaketa lan iharduerari eta bestelako iharduerei dagokienez	48
2. LAN IHARDUERETAN ARI DEN BIZTANLERIA	51
2.1. Ihardutze-tasak eta biztanleria landunaren banaketa	54
2.2. Biztanleria landunak astero lanean emandako orduak	56
2.3. Ihardunaldi partzialeko lana Europako Elkartean	57
2.4. Astero lanean emandako orduak egoera zibilaren arabera	57

2.5.	Biztanleria landunaren banaketa ekonomi sektoreen arabera	58
2.6.	Biztanleria landuna ekonomi sektoreka Euskal Herrian, Espainian eta Europa-ko Elkartean	59
2.7.	Biztanleria landuna ekonomi sektoreka eta adin-multzoka	59
2.8.	Biztanleria landunaren bilakaera ekonomi sektoreka	60
2.9.	Biztanleria landunaren banaketa iharduera adarren arabera	61
2.10.	Biztanleria landunaren banaketa lanbideen arabera	63
2.11.	Biztanleria landunaren banaketa lanbide-egoeraren arabera	65
2.12.	Biztanleria landunaren banaketa lanbide-egoeraren eta ekonomi sektorearen arabera	65
2.13.	Alokairupeko biztanleriaren banaketa ekonomi sektoreen eta iharduera adarren arabera	66
2.14.	Alokairupeko biztanleriaren banaketa lanbide-kategoriaren arabera	67
2.15.	Alokairupeko biztanleriaren banaketa enpresa-motaren arabera	68
3.	EMAKUMEZKOAK NEKAZARITZAN, ETXEKO LANETAN, EZKUTUKO EKONOMIAN ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN	71
3.1.	Nekazaritzan diharduen biztanleriaren ezaugarri nagusiak	74
3.2.	Etxeko lanetan diharduen biztanleriaren ezaugarri nagusiak	75
3.3.	Ezkutuko enpleguan diharduen biztanleriaren ezaugarri nagusiak	77
3.4.	Administrazio publikoan diharduen biztanleriaren ezaugarri nagusiak	79
4.	ALOKAIRUZKO DESBERDINTASUNAK EMAKUMEZKO ETA GIZONEZKOEN ARTEAN	81
4.1.	Alokairupeko biztanleriaren banaketa eta alokairuen arteko batezbesteko desberdintasunak	84
4.2.	Idem, lan-harreman bereziko pertsonak eta ezkutuko ekonomian dihardutenak salbuetsita	86
4.3.	Alokairupeko biztanleriaren banaketa lanbideen arabera eta batezbesteko alokairua lanbideka	88
5.	ALOKAIRUPEKO BIZTANLERIA ETA ETXE-EGINKIZUNEKIKO DEDIKAZIOA ...	97
5.1.	Etxe-iharduera ezberdinak egiteko maiztasuna	100
5.2.	Etxe-ihardueretan eguneko ematen diren orduak	102
5.3.	Elkarbizitza-unitatetik kanpoko laguntzak etxe-eginkizunak egiteko	104

TAULA ERANSKINEN AURKIBIDEA

	Orria
Laginaren deskripzioa	146
Lanarekiko poztasuna. Kualitate balioztatuenak	150
Lan egiteko eragingarriak. Lana eta familia	154
Lanean somatutako diskriminazioa	158
Lanbide desberdinetan aritzeko alde z aurretiko jarrera. Gizonezkoen lanbideak eta emakumezkoenak	161
Lanean arrakasta izateko kualitateak	165
Emakumezkoen lan iharduerari buruzko eritzi eta jarrerak	169
Berdintasuna bultzatzeko neurriak	173




AURKEZPENA

Azterlan honekin EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundeak aztertu nahi izan ditu emakumeek lan munduan duten partaidetza eta haren ezaugarriak, zein sektore eta ihardueradaradarretan parte hartzen dute nagusiki, sexuaren arabera soldatetan igarritako desberdintasunak, soldatapeko biztanleek etxeko lanetan emandako denbora, eta Euskadiko Autonomi Elkarrean gai honen inguruan dauden eritziak eta jokabideak. Izan ere, emakumeek bizi duten errealitatea eta arlo horretan aurre egin behar dizkieten arazoak ezagutu nahi dira, egoera ondo diagnostikatuaz bakarrik planteatu ahal izango bait dira egoera bakoitzerako politika aproposak eta neurri zuzentzaileak eta potere publikoek aurrera eraman beharreko ihardute-programak.

Emakumeak pixkanaka pixkanaka lan munduan sartzen ari dira eta hori sexu arteko desberdintasunak gainditzeko oinarritzko faktorea dugu. Dena dela, lan munduan sartzea ez da oso fenomeno zabaldua. Izan ere, oso emakume gutxi sartu da lan munduan eta sartze hori ez da era homogeneo batean gertatu. Gainera, adina, egoera zibila eta ikasketa maila moduko ezaugarriek berebiziko garrantzia dute lan munduan sartzerako orduan.

Bestalde, emakumeek lanean ihardun arren desberdintasunek hor diraute, lan merkatuak berak diskriminaziorako mekanismo berberak sortzen dituelako eta, hori dela eta, emakume gehienak orohar kategoria profesional txikien duten eta gaizkien ordainduta dauden lanbideak hartzera behartuta aurkitzen dira. Horrez gain, lan munduan sartu arren etxeko lanek haien erantzukizunpean jarraitzen dute eta, beraz, kasu gehienetan, lan bikoitza egiten dute.

Egindako azterlanetik ondorio gisa atera dugunez, lanean gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna suzatzeko haurrak, gaixoak eta zaharrak zaintzeko zerbitzu soziokomunitarioak, eskolako jantokiak, etab... bultzatu behar dira eta era beran etxeko lanak familiako kide guztien ardura izan behar dira, beti ere hezkuntzaren sistematik bertatik lanbide orientabide egokiak eman behar direla ahaztu gabe, sexu araberako banaketa profesionala gerta ez dadin, guzti hori Euskadiko Autonomi Elkarteko Emakumeentzako Ekintza Positiboko Planak ezarritako helburu eta ekintzen ildotik jarraituaz.



Iz. Txaro Arteaga Ansa

EMAKUNDE / Emakumearen
Euskal Erakundeko Zuzendaria

I

ERABILITAKO ITURRIAK ETA METODOLOGIA

Azterlan honek bi azterketa-mota barruhartzen ditu: zenbatezkoa eta kualitatezkoa. Zenbatezko azterketari dagokionez, estatistika-iturri hauek erabili izan dira:

— Alde batetik, bigarren mailakoak, hau da, Estatistikarako Euskal Institutuak (EUSTAT), Estatistikarako Nazio Institutuak (INE), Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak eta Europak Komunitateen Estatistika Bulegoak (EUROSTAT) eginiko inkesta nahiz zentsuak erabili dira.

— Eta bestetik, inkesta berezi bat, EMAKUNDEk eta ICEBERG Prospektiva delakoak moldatua eta 1.680 pertsonari (840 emakume eta 820 gizonezko) zuzendua. Landa-lana 1990.eko ekainean zehar burutu zelarik.

Kualitatezko azterketarako, berriz, hurrengook egin dira:

1. Banakako elkarrizketak jarraian adierazten direnekin:

- Goi-kargua duten bost emakume: Aurrezki Kutxan, Bankuan, Administrazioan, Azterketa-Kabinetean eta Aseguru-Etxean ari direnak.
- Bi enpresari: Eraikuntza eta Metalgintza alorretakoak.
- Epaile bat, zeregin horretan hamar urte eman duen emakumea.
- ELA eta UGT sindikatuetan diharduten bi emakume.
- Beste lau emakume, mugimendu desberdinekin zerikusia dutenak: Lambroa, Forum María de Maeztu, Acción Católica eta Opus Dei.
- Lau gizonezko: ESK-CUIseko sindikalista ohia, langileen aukeraketan hogeitaz aritutako profesionala, lanbide-elkarteetako ordezkari bat eta administrazio publikoko beste bat.

2. Datuen azterketatik ateratako ondorioz garrantzizkoenak sakonki aztertzeke eztabaida-taldeak, jarraian azaltzen diren kolektiboetako partaidez osatuak:

- Emakumezko langileak, 30 urtetatik 40etara bitartekoak, Bilbon.
- Garbiketa zerbitzuan lan egiten duten emakumezkoak, 30-45 urtetakoak, Donostian.
- Emakumezko administrariak, 25 urtez beherakoak, Donostian.
- Administrazio publikoan diharduten emakumezko teknikariak, 25-35 urtetakoak, Gasteizen.
- Klase ertaineko gizonezkoak, etxetik kanpo lan egiten dituzten emazteak dituztenak, 25-35 urtetakoak, Gasteizen.

Kualitatezko azterketaren landa-lana 1990.eko Irail, Urri eta Azaroan zehar burutu zen.

Liburua bi zatiz eta eranskinez osotuta dago. Lehenengoan, emakumezkoek lan merkatuan duten partaidetzari buruzko zenbatezko azterketa (lan tasak, langabezi tasak, alokairuak, etab.) agertzen da bost kapitulutan sailkatua, ondoren ondorioztapen orokorrak azaltzen direlarik. Azterketa hau moldatzerakoan, berriz, hurrengo iturrietara jo da:

— Biztanleria aktiboaren, hau da, biztanleria langabetuaren eta landunaren ezaugarriak aztertzeke erabili den iturri nagusia zera izan da, EUSTAT deritzan Estatistikarako Euskal Institutuak egindako Biztanleria eta Iharduerari buruzko 1990.eko lehen eta bigarren hiruhilabeteko inkesta (P.R.A.).

— Nazioarteko erkaketari dagokionez, Espainiako Administrazio Nagusiaren Estatistikarako Nazio Institutu den I.N.E. delakoak egindako Biztanleria Aktiboari buruzko 1990.eko lehen hiruhilabete-koaren Inkesta (E.P.A.) erabili da, eta baita EUROSTAT deritzan Europar Komunitateen Estatistika Bulegoak argitaratutako "Enplegua eta Langabezia. 1989" argitalpenaren informazioa ere, azken honen datuak 1987 urteari dagozkiolarik.

— Lanean ari den biztanleriaren ezaugarri desberdinen bilakaera aztertzerakoan, EUSTATEk argitaratutako P.R.A. delakoaren saldoak hartu dira oinarritzat, eta beraz, 1987-1990 aldira mugatzen da. Aurreko urteetako argibideak eskaintzen dituzten arren, E.P.A. delakotik, 1981eko Zentsutik eta 1986ko Erroldatik ateratako informazioa ez da homologagarria P.R.A. delakoak eskaintzen duenarekiko, metodologia arras desberdinak erabili direlako, eta beraz, txosten honetan ez da kontutan hartzen salbuespenezko kasuren bat izan ezik.

— Emakumezkoek nekazal sektorean, etxe-enpleguan eta ezkutuko enpleguan duten lan partaidetzaren azterketa Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak 1988-1989 urtean egindako Lan Merkatuari buruzko Zentsuan oinarritu da.

— Azkenik, alokairu-sarrerei eta etxe-eginkizunetan emandakoari buruzko informazioa azterlan honetarako moldatutako inkestaren bidez jaso da.

Bigarren zatian, hiru kapitulutan sailkatutik (azkena ondorioztapenei eskainia), emakumezkoek lan merkatuan parte hartzeaz gure gizartean dauden eritzi eta jarrerak agertzen dira.

Inkesta bereziari dagokion informazioa galdeketa (eranskinetan sartu da) baten bidez bildu da, azterlan honetarako propio moldatutako galdeketa itxi eta egituratua, lan ihardueretan ari den euskal biztanleriaren erakusgarri diren 1.680 pertsonaz, hau da, 840 emakume eta 840 gizonezko osotutako lagin bati aplikatu zitzaiona haiek banan-banan elkarrizketatuz.

Ausazko laginketa erabili zen, geruzatua eta mordokako etapa anitzekoa inkestatu beharreko sekzioei zegokienez, eta behin sekzio bat aurkeratutakoan, ausazko era sinplea erabili zen elkarrizketatu beharreko pertsonen laginketa 1986ko Erroldatik ateratzeko. Geruzapena Lurralde Historikoka moldatu zen, eta berorietako bakoitzean azpigeruzapen bat egin zen 1986ko Erroldan bildutako informazioaren arabera taiututako sekzio-tipologiari jarraituz. Lehen lagin hau, 1.860 pertsona biltzen zuena, alegia, zabaldu egin zen alokairupeko emakumezkoen kasuan, 1.900 pertsona (861 emakume eta 1.039 gizonezko) barruhartuz. Elkarrizketa egiterakoan, etxebizitza horretan alokairupeko beste pertsonarik ba ote zen galdetzen zen. Hala izanez gero, eta alokairupeko pertsona bakoitzarentzat, zozketa bidez aukeratutakoaz gainera, aurreko urtean inoren kontura lan egin zutenei dagokien galdeketa-atala ere betetzen zen.

Eritzi eta jarrerei buruzko inkestaren galdeketa eta kualitatezko ekitaldiko lan-gidoia hurrengo atalotan egituratu ziren:

- Lan ihardueretan hasteko eragingarriak. Pozgarriak eta eragozpenak.
- Lanbide-helburuak. Dedikazioa eta heziketa.
- Sexu-diskriminazioa. Gizonezkoen lanak eta emakumezkoenak.
- Lan hartuemanak: Laneko giroa, begirunea, sexu-erasoak, sindikal alorrean parte hartzea, ...
- Famili zamak: familia eta seme-alabak.

- Etorkizunarekiko jarrera.
- Jokabideak eta ekintzak.

Azkenik, eranskinetan hurrengook agertzen dira: zenbatezko azterketaren emaitza-taulak eta ikerlanean erabilitako galdeketa.

TXOSTENA

EMAKUMEAK

LAN

MERKATUAN

LEHENGO ZATIA

1

**LAN
MERKATUKO
PARTAIDETZA**

SARRERA

Lanerako Nazioarteko Erakundeak, L.N.E., 16 urte edo gehiago dituen biztanleria lan ihardunarekin duen harremanaren arabera sailkatzerakoan bi kategoria nagusi erabiltzen ditu:

- Biztanleria aktiboa, hau da, ordainketa, mozkin nahiz famili irabazi baten truke lan egiten duten pertsonak eta enpleguren bat bilatzen ari direnak.
- Eta biztanleria ezaktiboa, hots, aktiboak ez diren pertsonak. Etxe-eginkizunetan dihardutenak, ikasleak, jubilatuak, pentsiodunak, errentadunak eta ezinduak.

L.N.E. delakoaren sailkapenak ezaktibotzat jotzen ditu ordaindu gabeko iharduerak burutzen dituzten pertsonak, ordaindu gabeko lana, berriz, ondasun eta zerbitzuak ez ekoizteari lotzen zaiolarik. Hortaz, etxeko eginkizunetan baino ez diharduten emakumezkoak, hiru emakumetatik bi, alegia, ez aktibotzat jotzen ditu lan horren balio ekonomiko garrantzitsua aintzat hartu gabe.

Izan ere, etxean egindako lanaren garrantzia agerian geratu da, hein batean bederen, emakumezkoek etxeko kanpoko lanean partaidetza handia duteneko herrialdeetan, Estatuak erantzun behar izan bait die emakumezkoek etxean bete ohi zituzten gizarte-erantzunkizunei, guzti horren ondorioz iharduera ekonomiko garrantzitsua sortu delarik.

EUSTAT, Estatistikarako Euskal Institutuak nolabait zuzendu du “ahazte” hori, eta L.N.E. delakoaren sailkapenari berarena generatu dio, hots, etxean egindako lana kontutan hartuta hurrengo kategoriok barruhartzen dituenak:

- Ihardueraren bat duen biztanleria, hau da, lan ihardueretan ari diren pertsonak, enpleguaren bila ari direnak eta lan iharduerez kanpo lan egiten dutenak (etxeko lanak eta ikasketak).
- Iharduerarik gabeko biztanleria, hau da, langabetu peto-petoak direnek, jubilatuak eta beste zenbaitek osotutako multzoa.

Halaz ere, azterlan honetan behinik behin, L.N.E., Lanerako Nazioarteko Erakundearen sailkapena erabiliko dugu, batipat, hurrengo arrazoiengatik:

- Azterlanaren helburua emakumezkoek lan merkatuan duten partaidetza aztertzea delako.
- Emaizten interpretazioa errazteagatik, izan ere, hala maila teknikoan, nola arruntean erabilitako definizio guztiak L.N.E. delakoak erabilitakoei egokitzen bait zaizkie.
- Gure inguruko herrialdeekiko konparazioa ahalbidetzearen, haien estatistika ofizialetan L.N.E. delakoaren sailkapena erabili ohi bait da.

LAN IHARDUERETAN ARI DEN BIZTANLERIA

1.2

1990eko lehen seihilabetekoan lan ihardueretan ari ziren emakumezkoak 319.000 ziren (Ikus 1.1 Taula). Kopuru honek 16 urte edo gehiago zeukaten emakumeen % 36,9a eta biztanleria aktibo osoaren % 36,2a jotzen zituen. Gizonezkoen artean, berriz, gizonezko aktiboak 562.100 ziren, hots, 16 urte edo gehiago zeukaten gizonezkoen % 67,7a eta biztanleria aktibo osoaren % 63,8a.


Ikus daitekeenez, euskal emakumezkoek, oraindik, partaidetza urria dute lan merkatuan, % 36,9ko iharduera tasarekin, biztanleria aktiboaren herena baino zerbait gehiago besterik ez dagokielarik.

1.1. TAULA 16 urte edo gehiago dituen biztanleria bere lan iharduerarekiko harremanaren arabera (Pertsonak milakotan)

	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
16 urte edo gehiago duen biztanleria	865,6	829,8	1.695,4
Biztanleria aktiboa	319,0	562,1	881,0
Iharduera tasa	% 36,9	% 67,7	% 52,0
Biztanle aktibo guztiekiko %	% 36,2	% 63,8	% 100,0
Biztanleria ezaktiboa	546,7	267,7	814,4
Iharduera-ezaren tasa	% 63,2	% 32,3	% 48,0
Biztanle ezaktibo guztiekiko %	% 67,1	% 32,9	% 100,0

Iturria: 1990eko 1. seihilabeteko PRA.

1. Grafikoa. 16 urte edo gehiago dituen biztanleria bere lan iharduerarekiko harremanaren arabera




Aipatutako partaidetza Europako batezbestekotik behera dago, han emakumezkoen iharduera tasa % 41,6koa bait zen 1987. urtean (Ikus 1.2 Taula), hala ere, Espainia eta Irlandakoa baino handiagoa eta Italia, Holanda, Luxemburgo eta Greziakoaren parekoa. Dena den, oraindik urruti samar gelditzen zaizkigu beste zenbait herrialdeetako tasak, Frantzia eta Erresuma Batuko % 50a kasu, eta bereziki Danimarkako % 63a.

1.2. TAULA Iharduera tasak Europako Ekonomi Elkarteko herrialdeetan (% tan)

HERRIALDEAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
Euskal Herria	36,9	67,7	52,0
Espainia	33,1	66,9	49,4
Europako Elkartea	41,6	69,0	55,0
Alemania	41,2	69,3	54,6
Belgika	42,3	64,7	53,2
Danimarka	62,8	77,1	69,8
Frantzia	46,0	65,4	55,5
Grezia	35,0	69,3	51,9
Holanda	35,2	66,3	50,5
Irlanda	32,3	73,8	53,0
Italia	36,5	68,5	52,0
Luxemburg	36,6	68,7	52,3
Portugal	48,6	69,9	58,9
Erresuma Batua	49,5	73,9	61,4

Iturriak: 1990eko 1. seihil. PRA. 1990eko 1. hiruh. EPA. 1987ko Eurostat.

2. Grafikoa. Iharduera tasen erkaketa (16 urte edo gehiago dituen emakumezko aktiboan %)



Nahiz eta salbuespenik baden, emakumezkoen lan merkatuko partehartzerik handienak Europako gizarte aurreratuenetan aurkitzen ditugu. Salbuespena Portugaleko emakumezkoen iharduera tasa handia dugu, bertan oso garrantzizkoa bait da lehen sektore atzeratua, non emakumezkoen partehartzea oso nabarmena izan ohi den.

Beraz, Elkarteko herrialdeetako gizonezkoen iharduera tasen artean homogenotasun handia nabari bada ere, emakumezkoen tasek gorabehera dexenteak erakusten dituzte herrialde desberdinen artean. Eta datuon arabera, argi dago Euskal Herria emakumezkoek lan ihardueran partaidetza urria duteneko herrialdeen artean aurkitzen dela.

Lan biztanleriaren ezaugarri desberdinek izan duten bilakaera P.R.A. delakoaren datuen arabera aztertuko da, hots, 1987-1990 urteetara mugaturik. Txostenean erabilitako iturriak aipatzear adierazi den bezala, egon badaude aurreko urteetako datuak, E.P.A. delakotik, 1981eko Zentsutik eta 1986ko Erroldatik ateratakoak, alegia, baina ez dira P.R.A. delakoaren datuekin homologagarriak, eta sistematikoki sartuz gero, nahasmendua baino ez dute sortarazten, horregatik bada, kasu berezietan baino ez dira aipatuko.

Azken lau urteetan zehar (Ikus 1.3 Taula), gizonezkoen iharduera tasak beherantz egin du lau puntutan, 1987ko % 71,7tik 1990eko % 67,7ra; funtsean, lan bizitzaren iraupena gutxitu egin delako, eskolatze-adinak gora eta jubilazio-adinak behera egin duten bitartean.

Emakumezkoek dagokienez, ordea, lan bizitzaren iraupenaren beherakadaren ondorioa lan merkaturatze berriei esker estali da, eta iharduera tasa % 37aren inguruan mantendu da, goranzko joera ttiki batez. Horrez gainera, gizonezkoen tasaren beherakadaren zioz, batipat, emakumezkoek biztanleria aktibo osoan dagokien proportzioa % 34,5etik % 36,2ra igaro da.

Emakumezkoen iharduera tasak azken urteetan erakusten duen egonkortasunak, hasiera batean, harrigarria dirudien arren, 1985 eta 1986 urteetako berpizte ekonomikoan suertatu zen gorakada handia hartu behar dugu kontutan, E.P.A. delakoaren datuen arabera % 5a jo zuena, alegia. Prozesu hau, bestalde, ez da horren berezia izan, Espainiar Estatu osoan ere antzerako zerbait gertatu bait da.

1.3. TAULA Iharduera tasen bilakaera azken lau urteetan. (Portzentaiak)

	EMAKUMEAK				GIZONAK			
	1987	1988	1989	1990	1987	1988	1989	1990
Euskal Herria:								
Iharduera tasa	36,4	36,4	37,1	36,8	71,7	70,5	68,7	67,7
Biztanleria aktiboarekiko %	34,5	35,0	36,0	36,2	65,5	65,0	64,0	63,8
Espainia:								
Iharduera tasa	32,1	32,3	32,5	33,1	67,6	66,5	66,4	66,9
Biztanleria aktiboarekiko %	33,8	34,1	34,2	34,8	66,2	65,9	65,8	65,2

Iturriak: PRA urteroko batezbestekoak, Epa urteko 4. hiruh., 1990eko 1. hiruh.

Dena den, emakumezkoen kolektibo guztiek ez dute hein berean partehartzen lan merkatuan, izan ere, partehartze horretan eragin handia bait dute adinak, egoera zibilak eta ikasketa-mailak. Ondoren, emakumezkoen iharduera tasak aztertuko dira aldagai horiek aintzat harturik, eta hasteko adinari helduko zaio.

1.2.1


1.4 Taulan ikus daitekeenez, iharduera tasen sexukako banaketak adinaren arabera, batez ere, aldatzen dira. Gizonezkoei dagokienez, % 44,4a jotzen du 25 urtez behera; % 93a gainditzen du 25 urtetatik 54etara bitartean, % 98,2raino iristen delarik 35 urtetatik 45etara bitartean, % 54,7ra jaitsiz 55 urtetatik 64etara bitartean. Emakumezkoen artean, berriz, iharduera tasa gizonezkoena baino pixka bat handiagoa da 25 urtez behera, % 46,2koa alegia, balio gorena, berriz, % 75,4a, 25 urtetatik 34etara bitartean jotzen du, adin horretatik aurrera izugarri erortzen delarik, % 45,9a 35 urtetatik 44etara bitartean, % 28,9a 45 urtetatik 54etara eta % 13,7a 55 urtetatik 64etara bitartean.

1.4. TAULA Iharduera tasak eta biztanleria aktiboaren banaketa adin-multzoka. (% tan)

ADINA	IHARDUERA TASAK		BIZTANLERIA AKTIBOAREKIKO %	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
16-24:	46,2	44,4	22,8	13,2
25-34:	75,4	93,8	39,6	28,0
35-44:	45,9	98,2	20,9	26,1
45-54:	28,9	93,6	10,7	19,9
55-64:	13,7	54,7	5,4	12,2
65 edo gehiago:	1,2	3,5	0,6	0,6

Iturria: PRA 1990eko 1. seihilabetekoa.

3. Grafikoa. Iharduera tasak (%) adin eta sexuaren arabera



Banaketa biak aztertuz gero, emakumezkoaren egungo lan egoeran eragin zuzena duen ondorio bat antzematen da. Hots, batezbesteko adinari dagokionez, emakumezko aktiboak gizonezkoak baino askozaz ere gazteagoak dira, 35 urte baino gutxiago dituzten emakumezko aktiboak % 62,4 dira, gizonezkoak, aldiz, % 41,2, eta beraz, emakumezko gutxi ageri zaizkigu lanbide eta lan-garapen gorenari dagokien adinetan. Areago, egun arte, orohar, emakumezkoen lan bizitzak gizonezkoenak baino askozaz ere gutxiago iraun duelarik, baliteke, horren ondorioz haien lanbide eta lan karrerarekiko motibazio eta igurikapen desberdinak sortu izana.

Euskal Herriko emakumezkoen iharduera tasaren adin-multzokako banaketa beste zenbait herrialdetako banaketekin erkatuz gero (1.5 Taula), bi gauza nabarmentzen dira.

Lehenik, 35 urtetatik aurrera Europako Elkartekoak baino dexente txikiagoak direla, % 45,9 % 63,2ren aldean 35 urtetatik 44etara bitartean, % 28,9 % 53,5aren aldean 45 urtetatik 54etara bitartean eta % 13,7 % 25,1aren aldean 55 urtetatik 64etara bitartean, argi eta garbi erakutsiz 35 urtez gorako euskal emakumeek presentzia oso urria dutela lan merkatuan, bai gizonezkoen aldean eta baita bere inguruko herrialdeetako emakumezkoen aldean ere.

Bigarrenik, 25 urtetatik 34etara bitartean iharduera tasa oso handia ematen dela, Europako batezbestekoa baino handiagoa ere bai. Hortaz, belaunaldi berrietako emakumezkoek ez diotela aurreko tradizioari jarraitu dirudi, Euskal Herrian egoera arras ezberdina ageri delarik, Europako gizarte aurreratuetaoaren antzekoa. Alabaina, baiezen hau nabartu beharra dago, zeren, aurrerago ikusiko dugun bezala, adin horietan langabezia oso handia ematen bait da, Europako herrialdeetako baino handiagoa.

1.5. TAULA Iharduera tasak adin-multzoka Euskal Herrian, Espainian eta Europan. (Portzentaiak)

ADINA	EMAKUMEAK			GIZONAK		
	E. HERRIA	ESPAINIA	EUROPA	E. HERRIA	ESPAINIA	EUROPA
16-24:	46,2	49,8	52,0	44,4	55,3	53,3
25-34:	75,4	58,5	65,1	93,8	93,8	94,6
35-44:	45,9	40,3	63,2	98,2	95,9	97,1
45-54:	28,9	30,3	53,5	93,6	91,0	92,8
55-64:	13,7	19,4	25,1	54,7	62,1	55,4

Iturriak: PRA 1990eko 1. seihiil., EPA 1989ko 1. hiruhil., 1986 urteko Eurostat.

Emakumezkoen iharduera tasak azkenengo lau urteetan zehar adinen arabera izan duen bila-kaerak erakusten du belaunaldi berrien joera-aldaketa hori, horrela, 25 urtetatik 34etara bitartean 10 puntutako gorakada antzematen da eta 35 urtetatik 44etara bost puntutakoa, 45 urtetatik 54etara bitartean, aldiz, iharduera tasa ez da aldatzen. Beste alde batetik, 25 urtez behera eta 55 urtez gorakoan artean ikus daitekeen beherakada, eskolatzeko-adinaren handitzearen eta jubilazioarenaren jaistearen ondorioz lan bizitzaren iraupena murriztu egin delako gertatzen da, eta antzerako eragina du gizonezkoen iharduera tasetan.

Etorkizunari dagokionez, ez dakigu 25 urtetatik 44etara bitarteko emakumezkoen iharduera tasaren hazkundera mantenduko den, orain baino astiroago hazi arren, eta bestalde, 45 urtez gorakoena ere haziko den eta zenbateraino, horrela, emakumezkoen adin-multzokako iharduera tasaren banaketa orekatuago batetara iritsiz.

1.6. TAULA Emakumezko eta gizonezkoen iharduera tasen azken lau urteetako bilakaera adinen arabera. (% tan)

ADINA	EMAKUMEAK				GIZONAK			
	1987	1988	1989	1990	1987	1988	1989	1990
16-24	51,7	52,8	50,0	46,2	55,3	53,1	49,3	44,4
25-34	66,0	68,4	74,3	75,4	95,9	95,8	94,5	93,8
35-44	40,8	41,7	44,0	45,9	98,5	98,0	98,1	98,2
45-54	28,5	27,0	26,6	28,9	94,5	94,0	93,9	93,6
55-64	17,9	16,5	14,9	13,7	56,2	55,7	53,5	54,7
65 edo gehiago	1,9	1,3	1,4	1,2	5,3	3,6	2,7	3,5

Iturria: PRA urteroko batezbestekoak.

EGOERA ZIBILA

1.2.2

Beti uste izan da familia eta etxeko lanari erantzun beharrak eragotzi diola emakumezkoari lan ihardueraren bat izatea, gauzak horrela, ezkongabeko emakumezkoek partaidetza handiagoa izan beharko lukete. Eta hala da bai, 1.7 Taulan ikus daitekeenez, ezkongabeko emakumezkoen iharduera tasa % 57,7koa da, ezkongabeko gizonezkoen % 63,4a baino pixkat txikiagoa soilik, eta ezkonduetako emakumezkoen % 27,4a bikoiztu egiten du. Gainera, emakume aktibo guztien ia erdia ezkongabeko emakumezkoak dira, ezkongabeko gizonezkoak, aldiz, doi-doi gaintitzen dute gizonezko guztien herena.


Ezkongabeko emakumezkoen partaidetza, beraz, nabarmena da, Europako batezbestekoa baino pixkat handiagoa, baina ezkonduetakoena, Espainiakoa baino handiagoa bada ere, Europako herrialdeetakoena baino dexente txikiagoa da, % 27,4a % 37,9aren aldean.

1.7. TAULA Iharduera tasak eta biztanleria aktiboaren banaketa egoera zibilaren arabera.
(Portzentaia)

	IHARDUERA TASAK		BIZTANLERIA AKTIBOAREKIKO %	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
Euskal Herria:				
Ezkongabeak	57,7	63,4	48,7	36,0
Ezkonduek	27,4	70,5	51,3	64,0
Espainia:				
Ezkongabeak	54,9	64,0	44,8	32,1
Ezkonduek	24,4	68,4	55,2	67,9
Europako E.:				
Ezkongabeak	50,9	63,4	29,3	27,3
Ezkonduek	37,9	73,3	70,7	72,7

Iturriak: PRA 1990eko 1. seihil., 1988. urteko EPA, 1986. urteko Eurostat.

4. Grafikoa. Iharduera tasak (%) egoera zibilaren arabera




Egoera zibilaren eta adinaren arabera partaidetza aztertzerakoan, adin-tarte zabalagoak hartuko dira: 25 urtez beherakoak, 25 urtetatik 44etara bitartekoak eta 45 urtez gorakoak, hain zuzen, tarte horietara mugatzen bait da egoera zibilari buruzko informazio eskuragarria, nahiz eta horrela zenbait datu galtzen diren, batez ere, 45 urtez gorakoei dagokienean.

1.8. TAULA Iharduera tasak eta biztanleria aktiboaren banaketa egoera zibilaren eta adinaren arabera. (% tan)

	IHARDUERA TASAK		BIZT. AKTIBOAREKIKO %	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
Ezkongabeak:				
16-24 urte	45,7	43,9	44,3	35,9
25-44 urte	91,2	91,3	49,2	57,1
> 44 urte	29,0	52,3	6,5	7,0
Ezkondutak:				
16-24 urte	59,7	98,6	2,4	0,4
25-44 urte	50,9	98,9	71,4	52,5
> 44 urte	11,9	53,2	26,3	47,0

Iturria: PRA 1990eko 1. sei hilabetekoa.

5. Grafikoa. Iharduera tasak (%) egoera zibilaren eta adinaren arabera



Hala eta guztiz ere, argi dakusagu egoera zibil bakoitzeko emakumezkoen partaidetza oso al-dakorra dela adina gorabehera (Ikus 1.8 Taula). 45 urtez gorako emakumezko ezkongabeen iharduera tasa txikia da, % 29koa, baina 25 urtetatik 45etara bitartekoena, aldiz, oso handia da, % 91,2koa, hots, adin bereko gizonzko ezkongabeenaren parekoa. Ezkondutako emakumeei dagokienez, 44 urtez gorakoek iharduera tasa oso txikia erakusten dute, % 11,9koa, eta gazteagoen artean balore nahiko garrantzitsua ageri bada ere, hau da, % 50,9koa, adin bereko gizonzko ezkonduena baino askozaz ere txikiagoa da, % 98,9.

Beraz, lan merkatuko partaidetza dela eta belaunaldi berriengan somatzen den aldaketak ez du eragin berbera emakume ezkongabeen eta ezkonduen artean. Horrela, 45 urtez beherako emakume ezkongabeek gizonzkoen pareko partaidetza duten bitartean, ezkonduen kasuan, aurreko belaunaldien aldean partaidetza dexente handiagoa badute ere, oraindik gizonzkoena baino askozaz ere txikiagoa da. Argi dago, beraz, egoera zibilak funtsezko garrantzia duela emakumearen lan partaidetza baldintzapetzen duten arrazoiak azaltzerakoan.

Azken hiru urteetan ezkongabeko emakumeen iharduera tasak 3,5 puntutan egin du behera eta ezkonduenak 1,5 puntutan gora egin du. Nolanahi ere, bilakaera ez da homogenoa gertatu adin-taldeka. Bai ezkongabeko eta bai ezkondutako emakumezkoen kasuan, 25 urtez beherako eta 45 urtez gorakoen artean beherakada orokor bat nabari da, lan bizitzaren iraupenaren gutxitzeari zor zaion beherakada, alegia. Aitzitik, 25 urtetatik 44etara bitarteko emakumezkoek dagokienez, iharduera tasak bere mailari eutsi dio ezkongabeko kasuan, eta % 44,2tik % 50,9ra igo da ezkonduen kasuan.

Beraz, emakume-talde bakar batek areagotu du lan merkatuan zuen partehartzea, hau da, 25 urtetatik 44etara bitarteko emakume ezkonduen taldeak, areagotze nabarmena, bestalde. Areagotze horren arrazoi nagusia azken urteotan suertatu den enplegu-eskaintza handiagoan datza, batik bat, izan ere, enplegua erdiesteko aukera gehiago ikusirik, lehenago ere bertan zeuden baina seme-alabez arduratzeko lanari utzi zioten hainbat emakume berriro lan merkatu-turatu bait dira, eta baita inoiz lan ihardueretan aritu ez diren beste hainbat ere. Beste alde batetik, 25 urtetatik 44etara bitarteko emakume ezkongabeen kasuan, % 91,5eko tasara helduz gero, goia jo dutela ematen du.

1.9. TAULA Iharduera tasen azken lau urteetako bilakaera egoera zibilaren eta adinaren arabera. (Ehuneko bertikalak)

	EMAKUMEAK				GIZONAK			
	1987	1988	1989	1990	1987	1988	1989	1990
Ezkongabeak	59,1	61,1	60,6	57,7	68,3	68,5	66,3	63,4
16-24 urte	51,4	52,2	49,1	45,7	54,6	52,4	48,8	43,9
25-44 urte	91,6	91,2	91,5	91,2	93,3	92,7	91,5	91,3
> 44 urte	33,3	31,2	30,4	29,0	58,1	60,4	54,1	52,3
Ezkonduak	26,9	25,8	26,1	27,4	73,7	71,7	70,3	70,5
16-24 urte	58,5	63,6	61,7	59,7	98,0	97,2	97,2	98,6
25-44 urte	44,2	44,2	47,7	50,9	99,2	99,4	99,5	98,9
> 44 urte	13,7	12,6	11,8	11,9	56,3	54,0	53,1	53,2

Iturria: PRA urteroko batezbestekoak

1.10 Taulan biztanleria osoak, hau da, aktiboa eta ezaktiboak burututako ikasketen mailaren arabera banaketa agertzen da. Ikus daitekeenez, oraindik ere, batezbeste, gizonen ikasketak emakumezkoena baino handiagoa da, nahiz eta egoera hori orekatu 25 urtez beherakoen artean, izan ere, gazteen kasuan, berdindu ez ezik, emakumezkoen maila hobeagoa ere erakusten bait dute. Argi eta garbi ikusten da, baita ere, adina eta ikasketak elkarri hertsiki lotuak direla, antzeko gorabeherak somatzen direlarik emakumezkoen zein gizonen kasuan.

1.10. TAULA 16 urte edo gehiago dituen biztanleriaren banaketa bukatutako ikasketen mailaren arabera (Portzentaia bertikalak)

	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK			GIZONAK		
			16-24	25-44	> 44	16-24	25-44	> 44
* Lehen maila	57,7	46,2	1,3	44,5	90,6	0,8	32,8	80,7
Bigarren maila	30,8	40,2	76,8	38,4	6,3	82,0	48,3	12,6
Unibertsitatea	11,6	13,5	21,8	17,1	3,0	17,2	18,9	6,8

Iturria: PRA urteroko batezbestekoa.

* OHARRA.—Lehen maila: Lehen mailako ikasketak. OHO edo gutxiago.

Bigarren maila: Oinarrizko Batxilergoa, Goi-mailako Batxilergoa, BBB edo Lanbide Heziketa.

Unibertsitatea: Unibertsitateko Eskola eta Fakultateak edo Goi-mailako Eskola Teknikoak.

Lan merkatuari dagokionez, gizonen partehartzea oso gutxi aldatzen da ikasketen mailaren arabera (Ikus 1.11 Taula), emakumezkoena, alderantziz, haren menpe dago hein handi batez. Lehen mailako ikasketak baino ez dituzten emakumezkoen iharduera tasa oso txikia da, % 19koa hain zuzen, baina balore handiekin agertzen zaigu bigarren mailako ikasketak dituzten emakumeen artean, % 58,7, edota unibertsitarien kasuan, % 67,6, azken hauen tasa gizonenari inguratzen zaiolarik. Horrez gainera, bada beste datu deigarri bat, hots, emakumezko aktiboen batezbesteko ikasketak gizonenak baino handiagoa dela, biztanleria osoa kontutan harturik suertatzen ez dena, alegia, zeren emakumezko biztanleria aktiboa gizonenak baino gazteagoa bait da.

Emakumezkoen ikasketak bakoitzean dagokien partehartzea ere adinaren arabera aldatzen da. Lehen mailako ikasketak burutu dituztenen kasuan, 45 urtez beherakoen % 40,2tik zaharragoen % 10,7ra jaisten da; bigarren mailako ikasketak dituztenen artean % 73,9tik % 34,7ra eta unibertsitarien kasuan % 90,1etik % 51,3ra.

Aipatu beharra dago, garrantzizkoa bait da, unibertsital emakumezkoen adinaren arabera iharduera tasa unibertsital gizonenarengandik gertu dagoela. Portzentaia berbera erakusten du 25 urtetatik 44etara bitartean, % 90, pixkat txikiagoa da 45 urtez gorakoentzat, % 51,3 eta % 70,4, eta handiagoa da 25 urtez beherakoen artean, % 38,2 eta % 24,7. Azken datu honek laburrak diren unibertsital karreretan emakumezko gehiago izatearekin zerikusirik izan dezake.


1.11. TAULA Iharduera tasak eta biztanleria aktiboaren banaketa ikasketa-mailaren eta adinaren arabera. (% tan)

	IHARDUERA TASAK		BIZT. AKTIBOAREKIKO %	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
Lehen mailakoak	19,0	61,9	29,8	42,2
Bigarren mailakoak	58,7	74,0	49,0	44,0
Unibertsitatekoak	67,6	69,1	21,2	13,8
Lehen mailakoak:				
16-24 urte	*	*	0,8	0,2
25-44 urte	40,2	96,4	58,9	42,3
> 44 urte	10,7	49,0	40,3	57,5
Bigarren mailakoak:				
16-24 urte	48,5	48,4	37,6	26,9
25-44 urte	73,9	97,8	56,9	60,8
> 44 urte	34,7	70,7	5,5	12,4
Unibertsitatekoak:				
16-24 urte	38,2	24,7	19,4	9,2
25-44 urte	90,1	89,8	71,5	69,6
> 44 urte	51,3	70,4	9,1	21,2

Iturria: PRA 1990eko 1. seihilabetekoa.

* OHARRA: Laginketarako baliabide urri, tasa ezegonkorak.

6. Grafikoa. Iharduera tasak (%) ikasketa mailaren arabera



Hortaz, ikasketa-maila funtsezko abiapuntutzat har daiteke emakumezkoen lan partaidetzari dagokionez. Lehenengo eta behin, goi-mailako ikasketak dituzten emakumezkoek gizonezkoen hein berebean parte hartzen dutelako.

Bestalde, lehen mailako ikasketak soilik egin dituzten emakumezkoek, hots, emakume guztien erdia baino zerbait gehiago, iharduera tasa oso txikia dutelako, bai berez eta bai gizonezkoenaren aldean. Beraz, ikasketa-mailak gizonezkoen lan partaidetzan inolako eraginik ez duen bitartean, emakumezkoentzat oso eraginkorra da, eta gazteenengan funtsezko eta erabateko eragina du.

Azken lau urteetan zehar ezer gutxi aldatu dira emakumezkoen ikasketa-mailaren arabera iharduera tasak. Lehen mailako ikasketak dituzten emakumeentzat bi puntutan behera egin du eta bigarren mailako eta unibertsitateko ikasketak dituztenentzat puntu bat edo hazi da eta irregularki gainera. Alabaina, adin-taldearen arabera aldaketa nabarmenak suertatu dira, 25 urtetatik 44etara bitarteko emakumeen artean, batez ere: berauen iharduera tasak hiru puntutan egin du gora lehen mailako ikasketak dituztenentzat, zazpi puntutan bigarren mailako ikasketak dituztenentzat eta bi puntutan unibertsitatekoentzat. Azkenik, 25 urtez behera eta 45 urtez gorakoan artean beherakadak gertatu dira lehen mailako ikasketak dituztenen kasuan.

1.12. TAULA Emakumezkoen eta gizonezkoen iharduera tasen bilakaera ikasketa-mailaren eta adinaren arabera. (Porzentaiatan).

	EMAKUMEAK				GIZONAK			
	1987	1988	1989	1990	1987	1988	1989	1990
Lehen mailakoak	21,3	20,4	18,9	19,0	66,7	65,6	62,7	61,9
25-44 urte	37,2	36,0	37,5	40,2	96,8	97,0	96,9	96,4
> 44 urte	13,4	12,4	11,1	10,7	52,7	51,6	49,5	49,0
Bigar. mailakoak	57,3	56,9	58,7	58,7	77,2	76,6	75,4	74,0
16-24 urte	53,1	53,8	50,4	48,5	58,0	56,1	52,6	48,4
25-44 urte	67,2	67,4	73,2	73,9	99,0	98,8	98,4	97,8
> 44 urte	32,9	23,9	29,1	34,7	71,8	69,3	70,4	70,7
Unibertsitatekoak	66,9	67,5	69,9	67,6	74,8	71,0	70,1	69,1
16-24 urte	45,4	41,7	45,8	38,2	34,4	29,4	26,2	24,7
25-44 urte	88,0	89,5	89,0	90,1	93,6	91,0	88,9	89,8
> 44 urte	52,5	42,2	47,6	51,3	76,3	69,4	68,8	70,4

Iturria: PRA urteroko batezbestekoak.

BIZTANLERIA LANGABETUA

1.3

Kapitulu honen hitzaurrean aipatu den bezala, lan alorreko biztanleria aktiboa lan ihardueretan ari diren pertsonen eta enpleguaren bila ari direnek osotzen dute. Euskal Herriaren arazo larrienetakoa langabezia da oraindik ere, eta arazo honek eragin handiagoa du emakumezko aktiboengan gizonezkoengan baino.

1990eko lehen seihilabetekoan (Ikus 1.13 Taula), Euskal Herriko biztanleria langabetua 85.900 emakumez eta 64.100 gizonez osotuta zegoen. Hau da, lanik gabe daudenetatik erdia baino gehiago, % 57,3a hain zuzen, emakumezkoak dira, nahiz eta emakume aktiboak biztanle aktibo guztien herena baino pixkat gehiago besterik ez diren. Langabezi tasei helduz, hots, emakume langabeen proportzioa biztanleria aktiboarekiko aztertuz gero, zera ageri da, lan egin nahi du-

ten emakumeetatik % 26,9k ez duela lanik aurkitzen, gizonezkoengan proportzio horrek % 11,4a jotzen duen bitartean. Beraz, langabeziak eragin benetan latza du emakume aktiboengan, berez nabarmena den gizonezko aktiboan langabezi tasa aiseki bikoizten duen tasa batez agertzen delarik. Gainera, horren ondorioz, emakume landunen proportzioa hamar puntuz jaitzen da biztanleria aktiboarekiko, % 36,9tik % 26,9ra.


1.13. TAULA 16 urte edo gehiago dituen biztanleria aktiboa, langabetua eta landuna. (pertsonak milakotan)

	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
16 urte edo gehiagoko bizt. aktiboa	318,9	562,1	881,0
Biztanleria langabetua	85,9	64,1	150,0
Langabezi tasa	% 26,9	% 11,4	% 17,0
Biztanle langabetu guztiekiko %	% 57,3	% 42,7	% 100,0
Lehen lanaren bila	41,4	20,9	62,3
Langabezi tasa	% 13,0	% 3,7	% 7,1
Guztiekiko %	% 66,5	% 33,5	% 100,0
Beste lan baten bila	44,5	43,1	87,7
Lan tasa	% 13,9	% 7,7	% 9,9
Guztiekiko	% 50,8	% 49,2	% 100,0
Biztanleria landuna	233,0	498,0	731,0
* Lan tasa	% 26,9	% 60,0	% 43,1
Biztanle landun guztiekiko %	% 31,9	% 68,1	% 100,0

Iturria: PRA 1990eko 1. sei hilabetekoa.

* OHARRA: Biztanle guztiekiko (aktiboak nahiz ezaktiboak) lan tasa.

7. Grafikoa. 16 urte edo gehiago dituen biztanleria aktiboa, langabetua eta landuna (pertsonak milakotan)



Lanik gabe dauden emakumezkoetako 44.500 lehenago lan egin dutenak dira eta 41.400 beren lehen enplegua bilatzen ari dira. Aurretik lan egin duten emakumezkoen kopurua gizonezkoenaren antzekoa da, baina lehen enpleguaren bila ari den gizonezko bakoitzeko bi emakumezko ari dira.

Beraz, aurretik lan egin dutenen artean ere langabezi tasa handiagoak agertzen bazaizkigu emakumezkoengan, tarte hori erabat areagotzen da lehen enpleguaren bila ari direnei dago-kienez. Hortaz, emakumezkoei askozaz ere zailago gertatzen zaie lehen lanpostura heltzea.


1.14 Taulan ikus daitekeenez, Euskal Herriko biztanleria aktiboaren langabezi tasa, % 17, Europako handienetakoa da, Espainia eta Irlandakoaren antzekoa, baina Europako batezbesteko % 10,6a baino dexente handiagoa. Nolanahi ere, gizonezkoen tasak bi puntuz baino ez du gainditzen Europako gizonezkoena, % 11,4 eta % 9, baina emakumezkoen tasak, % 26,9, bikoiztu egiten du Europako emakumezkoen % 13,2a. Herrialdez herrialde, euskal emakumezkoen tasa Europako Elkarteko handiena da eta ondoren Espainiakoa, % 24,8, eta urrutiago Irlanda, Belgika eta Italiakoak, % 18 inguru, agertzen direlarik. Dena den, gizonezkoen tasarekiko konparazioa eginez gero, Belgika, Grezia, Italia eta Espainiako egoeraren antzekoa antzematen da, herrialde horietan ere emakumezkoen tasak bikoiztu egiten bait du gizonezkoena.

1.14. TAULA Langabezi tasak Europako Elkarteko herrialdeetan. (Portzentaiatan)

HERRIALDEAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
Euskal Herria	26,9	11,4	17,0
Espainia	24,8	12,5	16,7
Europako Elkartea	13,2	9,0	10,6
Alemania	7,9	5,3	6,3
Belgika	18,4	7,6	11,8
Dinamarka	7,1	4,8	5,9
Frantzia	13,6	8,4	10,7
Grezia	11,5	5,1	7,4
Holanda	13,0	8,4	10,0
Irlanda	19,4	17,6	18,2
Italia	16,2	7,3	10,4
Luxemburg	4,2	1,9	2,7
Portugal	9,4	5,4	7,1
Erresuma Batua	10,5	11,4	11,1

Iturriak: PRA 1990eko 1. sei hil., EPA 1990eko 1. hiruhil., 1987. urteko Eurostat.

8. Grafikoa. Langabezi tasen araketa gizon nahiz emakumezko aktiboen arteko langabezi portzentaia



Azken lau urteetan zehar (Ikus 1.15 Taula), emakumezkoen langabezi tasa lau puntu eta pixkat gehiago jaitsi da eta gizonezkoena bost puntu, baina gizonezkoen artean beherakada horrek langabeziaren herena murriztea ekarri badu ere, emakumezkoen langabeziari dagokionez, seirena besterik ez da jaitsi. Hortaz, berpizte ekonomikoa onuragarriagoa gertatu zaie gizonezkoei egun arte, gizonezkoen eta emakumezkoen langabezi tasen arteko ohizko proportziogabetsuna areagotuz. Emakumezkoen langabezi tasaren murriztapenak, hiru puntu t'erdikoa, alegia, lehen lanaren bila ari direnengan izan du eragina, batipat, gizonezkoei dagokionez, ordea, antzerako eragina antzeman delarik langabeen kolektibo bitzurengan.

1.15. TAULA Emakume eta gizonezkoen langabezi tasen bilakaera azken lau urteetan. (Portzentaia)

	EMAKUMEAK				GIZONAK			
	1987	1988	1989	1990	1987	1988	1989	1990
Langabezi tasa	31,3	30,8	29,8	26,9	16,6	16,5	12,6	11,4
Lehen lanaren bila	16,5	14,5	15,8	13,0	5,4	5,8	5,1	3,7
Beste lan baten bila	14,8	16,4	14,0	14,0	11,2	10,7	7,5	7,7

Iturriak: PRA urteroko batezbestekoak.

1.3.1

1.16 Taulan langabezi tasak eta langabetu guztien, emakume zein gizonezkoen banaketa agertzen da adin-multzotan sailkaturik, eta langabeziaren eta adinaren arteko erlazio hertsia erakusten da, izan ere, langabetu guztietatik ia % 80ak 25 urte baino gutxiago bait ditu. 25 urtez beherako emakumezkoen langabezi tasa oso handia da, % 48koa, hau da, lan egiteko gertu dauden bi neskatatik batek ez du lanik aurkitzen, 25 urtetatik 45etara bitartean, berriz, oraindik nabarmena den arren, erdira jaisten da aipatu tasa, % 20tik gorakoa, eta 45 urtetatik 54etara bitartean ere erdira jaisten da, % 11ra, alegia. Gizonezkoen tasa ere, emakumezkoena baino txikiagoa bada ere, handia da 25 urtez beherakoentzat, % 35,4ekoa, baita 25 urtetatik 34etara bitartekoentzat ere, % 14,5ekoa, baina 35 urtez gorakoentzat % 5etik behera mantentzen da.

1.16. TAULA Langabezi tasak eta biztanleria langabetuaren banaketa adin-multzoka. (Portzentaiaetan)

ADINA

LANGABEZI TASAK


BIZT. LANGABETUAN %

	EMAKUMEAK			GIZONAK			EMAKUMEAK			GIZONAK		
	Guztira	1.enp.	Beste	Guztira	1.enp.	Beste	Guztira	1.enp.	Beste	Guztira	1.enp.	Beste
16-24	48,0	32,2	15,8	35,4	20,1	15,3	40,6	56,5	25,8	40,9	71,2	26,2
25-34	26,5	9,6	16,9	14,5	3,8	10,7	39,0	29,2	48,0	35,6	28,8	39,0
35-44	20,4	6,8	13,6	5,0	0,0	5,0	15,9	11,0	20,4	11,4	0,0	16,9
45-54	11,0	3,8	7,3	4,8	0,0	4,8	4,4	3,1	5,6	8,4	0,0	12,5
55-64	*	*	*	3,4	0,0	3,4	0,2	0,2	0,1	3,6	0,0	5,3

Iturria: PRA 1990eko 1. seihilabetekoa.

* OHARRA: Laginketarako baliabide urri, tasa ezegonkorak.

9. Grafikoa. Langabezi tasak (%) adinaren eta sexuaren arabera



Beren lehen lana bilatzen ari diren emakumezko gehienak gazteak dira, % 56,5a 25 urtez beherakoak eta % 85,7a 35 urtez beherakoak, baina gainontzeko % 14,3a, hau da, 6.000 emakume 35 urte baino gehiago zituenean lan merkaturatu da lehen aldiz.

Aurretiaz lan egin duten emakumezko langabetuek batezbesteko adin handiagoa dute, hots, erdiak 25 urtetatik 34etara bitartean daude eta gainontzekoa erdixka banatzen dira 25 urtez beherakoen eta 35 urtez gorakoen artean, azken hauen langabezi tasak gizonezkoen tasen parekoak direlarik, nahiz eta 25 urtetatik 45etara bitarteko tasek zazpi puntutan gaitzitzen dituzten haienak. Azken datu hau, hein batez behinik behin, ezkontza nahiz amatasunaren zioz lanari utzi zioten emakumezkoen lan merkaturatze berriaren erakusgarri izan liteke.

Euskal Herriko emakumezkoen langabezi tasaren adin-multzokako banaketa eta Espainiako antzerakoak dira (Ikus 1.17 Taula). Europako Elkartean, bestalde, emakumezkoen langabezia erdira jaisten den arren, garrantzizkoa da 25 urtez beherakoentzat, % 24,5, eta 25 urtetatik 34etara bitarteko kasuan, % 16,2, hortik gorakoen artean % 9 inguruan mantentzen delarik.

1.17. TAULA Langabezi tasak adin-multzoka Euskal Herrian, Espainian eta Europako Elkartean. (Portzentaiatan)

	EMAKUMEAK			GIZONAK		
	Euskal H.	Espainia	Europa	Euskal H.	Espainia	Europa
16-24	48,0	45,5	24,5	35,4	30,1	19,8
25-34	26,5	28,4	16,2	14,5	15,3	9,8
35-44	20,4	17,5	9,8	5,0	8,5	6,7
45-54	11,0	11,2	8,9	4,8	7,7	6,8

Iturriak: PRA 1990eko 1. sei hilabetikoa, EPA 1989eko 1. hiruhil., 1986.urteko Eurostat.

Azken lau urteetan zehar emakumezkoen langabezian gertatutako murriztapenak adin-tarte guztietan izan du eragina (1.18 Taula), hala ere, onuragarriagoa gertatu zaie 35 urtetatik 54etara bitarteko emakumeei, 5 puntuz gorako murriztapenaz. 35 urtez beherakoen tasa hiru puntutan jaitsi bada ere, bilakaera nahiko irregularra antzematen da.

1.18. TAULA Emakume eta gizonezkoen langabezi tasen azken lau urteetako bilakaera adin-multzoka

ADINA	EMAKUMEAK				GIZONAK			
	1987	1988	1989	1990	1987	1988	1989	1990
16-24	51,1	50,3	52,9	48,0	47,9	46,4	38,9	35,4
25-34	29,5	31,6	29,3	26,5	17,3	19,4	15,2	14,5
35-44	25,5	19,8	19,4	20,4	6,3	6,1	5,1	5,0
45-54	17,7	16,2	9,8	11,0	7,5	7,0	5,1	4,8

Iturria: PRA urteroko batezbestekoak.

1.3.2

Langabezia gazteriak, batez ere, jasaten duen fenomeno izaki, ezkongabeko emakumezkoen langabezi tasa ezkonduena baino askozaz ere handiagoa da, % 33,7koa eta % 20,6koa hurrenez hurren (Ikus. 1.19 Taula). Hala eta guztiz ere, ezkonduen tasa ere oso handia da, gizonezko ezkonduena baino bost bider handiagoa. Ezkongabeko emakumezkoen dagokienez, lehen lanaren bila ari direnak ditugu nagusi langabetuen artean, ezkonduen dagokienez, berriz, alderantziz gertatzen da, langabetu gehiago dago aurretiaz lan egin dutenen artean.

Dena den, 1.19 Taulan agertzen den xehetasunik garrantzizkoena zera da, emakumezkoen langabezi tasaren adin-multzokako banaketa berdintsua dela ezkongabeentzat nahiz ezkonduentzat, eta beraz, egoera zibilak ez duela eragin zuzenik langabezian, eta ezkongabeen tasa handiagoa bada, hauek gazteagoak direlako eta gazteen artean langabezia handiagoa ematen delako baino ez dela gertatzen hori. Gizonezkoen egoera erabat desberdina da. Ezkonduen langabezi tasa oso txikia dute, adinarekin zerikusirik ez duena, eta ezkongabeen tasa oso handia erakusten dute gazteen artean, adina aurreratu ahala murriztuz doana.

1.19. TAULA Langabezi tasak eta biztanleria langabetuaren banaketa egoera zibilaren eta adin-multzoaren arabera. (% tan)

	LANGABEZI TASAK						BIZT. LANGABETUAN %					
	EMAKUMEAK			GIZONAK			EMAKUMEAK			GIZONAK		
	Guztira	1.enpl.	Beste	Guztira	1.enpl.	Beste	Guztira	1.enpl.	Beste	Guztira	1.enpl.	Beste
Ezkongabeak	33,7	20,3	13,4	25,1	10,2	14,9	60,9	76,1	46,7	79,3	98,6	70,0
Ezkonduak	20,6	6,0	14,5	3,7	0,1	3,6	39,1	23,9	53,3	20,7	1,4	30,0
Ezkongabeak:												
16-24 urte	47,9	33,3	14,5	36,0	20,5	15,6	62,8	72,7	48,1	51,5	72,3	37,4
25-44 urte	24,7	11,1	13,7	19,9	5,0	14,9	36,1	26,8	50,2	45,2	27,9	57,1
> 44 urte	5,5	1,5	4,8	11,6	0,0	11,6	1,1	0,5	1,9	3,2	0,0	5,5
Ezkonduak:												
16-24 urte	52,6	12,8	39,7	3,3	0,0	3,3	6,1	5,1	6,5	0,4	0,0	0,4
25-44 urte	24,2	7,0	17,2	3,8	0,2	3,6	84,0	82,8	84,4	54,0	100,0	52,9
> 44 urte	7,8	2,8	5,0	3,6	0,0	3,6	10,0	12,1	9,1	45,7	0,0	46,7

Iturria: PRA 1990eko 1. seihilabetekoa.

1.20 Taulan ikus daitekeenez, emakumezkoen langabezi tasan azken lau urteetan nabari izan den beherakadak eragin berdintsua izan du ezkongabeen eta ezkonduen artean, bost eta lau puntu hurrenez hurren.

1.20. TAULA Emakume eta gizonezkoen langabezi tasaren bilakera egoera zibilaren arabera. (% tan)

EGOERA ZIBILA	EMAKUMEAK				GIZONAK			
	1987	1988	1989	1990	1987	1988	1989	1990
Ezkongabeak	38,9	38,0	37,3	33,7	33,9	32,6	26,3	25,1
Ezkonduak	24,3	23,5	21,8	20,6	7,3	6,9	4,2	3,7

Iturria: PRA urteroko batezbestekoak.

IKASKETA-MAILA

1.3.3

1.21 Taulako datuek erakusten dutenez, emakumezkoen langabeziak ez du ikasketa-mailarekiko lotura zuzena, zeren langabezi tasa gorena bigarren mailako ikasketak dituzten emakumeei bait dagokie, % 33,4, horien aldean, lehen mailako zein unibertsitateko ikasketak dituztenek antzeko tasa agertzen dute, % 21 gutxi gorabehera. Gizonezkoen langabezi tasak kontutan izanik, bigarren mailako zein unibertsitateko ikasketak dituzten emakumeen tasak bikoiztu egiten du maila bereko gizonezkoena eta lehen mailako ikasketak dituztenen artean, berriz, emakumezkoen tasak laukoiztu egiten du gizonezkoena. Lehen mailako ikasketak dituzten emakumeen artean, gehiago dira aurretiaz lan egin dutenak lehen lanaren bila ari direnak baino, bigarren mailako ikasketak dituztenen artean, berriz, berdintsu agertzen dira kolektibo biak eta unibertsitateko ikasketak dituztenen artean lehen lanaren bila ari direnak ditugu nagusi.

1.21. TAULA Langabezi tasak eta biztanleria langabetuaren banaketa ikasketa-mailaren eta adin-multzoaren arabera. (Portzentaiatan)

	LANGABEZI TASAK						BIZT. LANGABETUAN %					
	EMAKUMEAK			GIZONAK			EMAKUMEAK			GIZONAK		
	Guztira	1.enp.	Beste	Guztira	1.enp.	Beste	Guztira	1.enp.	Beste	Guztira	1.enp.	Beste
Leh. maila	20,6	6,3	14,3	5,2	0,1	5,2	22,7	14,5	30,4	19,4	0,7	28,4
Big. maila	33,4	16,4	17,0	17,0	6,3	10,7	60,7	62,0	59,6	65,4	73,7	61,5
Uniberts.	21,0	14,3	6,6	12,6	6,9	5,6	16,5	23,5	10,0	15,2	25,5	10,1
Leh. maila:												
16-24 urte	*	*	*	*	*	*	0,1	0,6	0,0	1,5	0,0	1,6
25-44 urte	29,9	8,9	20,9	6,4	0,1	6,2	85,7	83,5	86,3	51,6	100,0	51,0
> 44 urte	7,3	2,5	4,8	4,3	0,0	4,3	14,3	15,9	13,7	46,8	0,0	47,3
Big. maila:												
16-24 urte	47,8	30,3	17,5	33,7	18,4	15,2	53,7	69,3	38,7	53,5	79,8	38,2
25-44 urte	26,1	8,4	17,7	12,0	2,1	9,9	44,4	29,2	59,2	42,9	20,2	56,1
> 44 urte	11,0	4,6	6,4	4,9	0,0	4,9	1,8	1,6	2,1	3,6	0,0	5,7
Uniberts.:												
16-24 urte	51,7	42,2	9,9	50,0	36,6	14,1	47,9	56,9	29,2	36,4	48,6	23,0
25-44 urte	14,9	8,7	6,3	10,7	5,1	5,6	50,7	43,1	68,5	59,0	51,4	69,0
> 44 urte	3,3	1,2	2,1	2,7	0,0	2,7	1,4	0,0	2,2	4,6	0,0	8,0

Iturria: PRA 1990eko 1. sei hilabetekoa.

Aipagarria da lehen mailako ikasketak dituzten emakumezkoen langabezi tasa eta unibertsital ikasketak dituztenena berdintsuak izatea eta bigarren mailako ikasketak dituztenena askoz ere handiagoa izatea, baina kontutan hartu beharra dago, batetik, haien iharduera tasa askoz txikiagoa izanik, seguru aski, lanaren kualifikazioa aintzat hartu gabe lanaren premiarik handiena edo hura eskuratzeko aukerarik gehien dituztenek parte hartuko dutela, eta bestetik, haien batezbesteko adina handiagoa denez gero, gazteen langabeziak ere eragin txikiagoa duela beraiengan.

Adin-multzo desberdinetako emakumezkoen langabezi tasak ikasketa-maila bakoitzean aztertuz gero, zera antzematen da, 25 urtez beherako emakumeen tasa oso handia dela ikasketa-maila edozein delarik, % 50 ingurukoa, alegia, eta adin horretatik gorakoentzat, lehen mailako ikasketak eta bigarren mailakoak dituztenen tasak antzekoak direla eta unibertsital mailakoak dituztenena bikoiztu egiten dutela.

Emakumezkoen langabezi tasak azken lau urteetan behera egin du hiru ikasketa-mailotan (Ikus 1.22 Taula), eta haien bilakaera nahiko gorabeheratsua izan bada ere, onuragarriagoa gertatu zaie bigarren mailako ikasketak edo unibertsitate mailakoak dituzten emakumeei.

1.22. TAULA Emakume eta gizonezkoen langabezi tasaren bilakaera ikasketa-mailaren arabera. (% tan)

IKASKETAK	EMAKUMEAK				GIZONAK			
	1987	1988	1989	1990	1987	1988	1989	1990
Leh. mailakoak	22,1	23,4	18,6	20,6	9,8	9,5	6,1	5,2
Big. mailakoak	38,9	37,0	37,0	33,4	24,5	24,0	18,7	17,0
Unibertsitatekoak	29,4	28,1	28,6	21,0	16,1	17,7	13,4	12,6

Iturria: PRA urteroko batezbestekoak.

BIZTANLERIA LANGABETUAREN BESTELAKO EZAUGARRIAK

1.3.4

Azkenik, biztanleria langabetua aztertuko da lanik gabe daraman denboraren arabera, eta aurretiaz lan egin dutenei dagokienez, horrez gainera, langabezi aseguruaren kobrantzarekiko egoera eta azken aldiz lan egin zuteneko sektorea ere hartuko dira kontutan.

Emakumezkoek, batezbeste, 27,5 hilabete ematen dute langabezian, gizonezkoek, berriz, pixkat gutxiago, 25,2 hilabete (Ikus 1.23 Taula). Emakumezko langabetuen % 27,4k urtebete baino gutxiago darama langabezian, % 39,7k urtebete baino gehiago eta hiru baino gutxiago, eta % 33k hiru urte baino gehiago. Batezbesteko iraupena berdin samarra da lehen lanaren bila ari diren emakumezko langabetuei nahiz aurretiaz lan egin dutenei dagokienez, nahiz eta le-

henengoen artean proportzio handiagoa nabari den langabezian urtebetetik hiru urtetara eman dutenen artean, urtebete baino gutxiago eman dutenen kaltetan.

1.23. TAULA Langabezialdiaren iraupena

	EMAKUMEAK			GIZONAK		
	Guztira	1.enpl.	Beste	Guztira	1.enpl.	Beste
Batezb. iraupena (hil.)	27,5	27,3	27,7	25,2	25,9	24,8
Urtetako banaketa:						
Bat baino gutxiano	27,4	23,3	31,1	39,0	32,2	42,4
Batetik hirura	39,7	43,7	36,0	31,0	33,7	29,7
Hiru baino gehiago	33,0	33,0	32,9	30,0	34,1	27,9
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: PRA 1990eko 1. seihilabetekoa.

Aurretiaz lan egin duten emakumeetatik, % 14,9 baino ez dira langabezi aseguruak kobratzen ari direnak, % 32,1k jaso izan du noizbait, eta gainontzeko % 53k ez du inoiz ere kobratu (Ikus 1.24 Taula). Gizonezkoen egoera hobeagoa da, langabetuen herenak kobratzen bait du langabezi aseguruak, beste heren batek noizbait jaso izan du eta gainontzekoak inoiz ere ez.

1.24. TAULA Langabezi aseguruaren kobrantzarekiko egoera. (% tan)

	EMAKUMEAK	GIZONAK
Kobratzen ari dira	14,9	32,3
Noizbait kobratu dute	32,1	34,7
Inoiz ez dute kobratu	53,0	33,0
GUZTIRA	100,0	100,0

Iturria: PRA 1990eko 1. seihilabetekoa.

Aurretiaz lan egin duten emakume gehienek azken lana zerbitzuen sektorekoa zen, % 72,4, eta gainontzekoena industri sektorekoa (Ikus 1.25 Taula). Nolanahi ere, proportzioz, langabeziaren eragin handiena industri sektoreko emakumeek jasan dute, bertatik bait dator emakume langabetuen % 25,5a, nahiz eta sektore horretan lan egiten duten emakume landunak % 14,7 baino ez diren. Ez da gauza bera gertatzen gizonezko langabetuen artean, hauen kasuan erai-kuntzako langileak bait dira kaltetuenak.

Begibistakoa da Euskal Herriko industri sektoreak nozitutako birmoldaketa latzak, proportzioz, eragin handiagoa izan zuela emakumeengan, eta aztertutako datuen arabera, esan daiteke, berpizte ekonomikoa nabari den unean, emakumezkoak gizonezkoak baino nekezago eta astiroago birsartzen ari direla industri sektorean.

1.25. TAULA Langabezi tasak ekonomi sektoreka. (Portzentaiatan)

SECTOREAK	LANGABEZI TASAK		BIZTANLERIA LANDUNA	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
Nekazaritza	0,5	2,2	2,9	3,3
Industria	25,5	34,7	14,7	45,1
Eraikuntza	1,6	19,7	1,7	10,3
Zerbitzuak	72,4	40,8	80,8	41,3

Iturria: PRA 1990eko 1. seihilabetekoa.

BIZTANLERIA OSOAREN BANAKETA

1.4

Kapitulu honi amaiera emateko, 1.26 Taulan 16 urtez gorako emakume eta gizonezko guztien banaketa agertzen da lan ihardueraren nahiz bestelako ihardueren arabera sailkaturik lau multzotan: lanean dihardutenak, langabetuak, lanez kanpoko zereginetan dihardutenak (etxe-eginkizunak eta ikasketak) eta ezaktiboak.

Emakume gehienak, % 56,6, lanez kanpoko eginkizunetan ari dira, etxeko eginkizunetan, batez ere, eta % 26,9k besterik ez dihardu lanean. 25 eta 54 urte bitarteko emakumeengan ere, hau da, lan bizitzaren iraupenaren zatirik handiena dagokion adin-tartean ere, bestelako ihardueretan ari diren emakumezkoen proportzioa, % 45,7, lanean dihardutenena baino handiagoa da, % 40,9. Gizonezkoen kasuan, alderantziz gertatzen da, % 60k lanean dihardu, eta proportzio horrek % 87,1a jotzen du 25 eta 54 urte bitarteko gizonezkoengan.


Datu hauek baliagarriak dira emakumezkoari gaur egungo lan merkatuan dagokion partaidetzaren benetako nondik norakoak argitzeko, zeren, azken urteetan zenbait aldaketa gertatu badira ere, oraindik gutxiago bait dira etxetik kanpo lan egiten duten emakumeak etxeko eginkizunetan ari direnen aldean.

1.26. TAULA Biztanle guztien banaketa lan iharduerari eta bestelako iharduerari dagokienez. (Pertsonak milakotan eta Portzentaia bertikalak)

	EMAKUMEAK				GIZONAK			
	Guztira	< 25	25-54	> 54	Guztira	< 25	25-54	> 54
Lanean ari dena	233,0 26,9	37,7 24,0	176,5 40,9	18,7 6,8	498,0 60,0	47,9 28,7	380,6 87,1	69,5 30,8
Langabetua	85,9 9,9	34,9 22,2	50,9 11,8	0,2 0,1	64,1 7,7	26,2 15,7	35,6 8,1	2,3 1,0
Beste iharduer.	489,9 56,6	80,5 51,2	197,2 45,7	212,3 76,8	106,9 12,9	87,4 52,3	8,6 2,0	10,9 4,8
Ezaktiboa	56,7 6,6	4,2 2,7	7,1 1,6	45,3 16,4	160,8 19,4	5,5 3,3	12,2 2,8	143,1 63,4
GUZTIRA	865,6 100,0	157,3 100,0	431,8 100,0	276,6 100,0	829,7 100,0	167,0 100,0	437,0 100,0	225,7 100,0

Iturria: PRA 1990eko 1. seihilabetekoa.

10. Grafikoa. Biztanle guztien banaketa lan iharduerari eta bestelako iharduera dagokienez (pertsonak milakoan)



ONDORIOZTAPENAK

1.5

Euskal emakumezkoek presentzia urria dute oraindik lan merkatuan, beren iharduera tasa % 36,9ra iristen da, hots, gizonezkoen % 67,7aren erdia nekez gainditzen du. Emakumezkoen partaidetza Europako batezbestekoa baino txikiagoa da, Espainia eta Irlandakoa baino handiagoa eta Italia, Holanda, Luxemburg eta Greziakoaren parekoa bada ere, urruti samar geratzen dira % 50a gutxi gorabehera jotzen duten Frantzia eta Erresuma Batua bezalako herrialdeetako emakumezkoen iharduera tasak.

Bigarren mailako eta unibertsital ikasketak dituzten emakumezkoen iharduera tasa nahiko handia da, % 58,7 eta % 67,6koa, alegia, gizonezkoenaren gertu dago gainera, baina izugarri jaisten da, % 19raino hain zuzen, lehen mailako ikasketak dituzten emakumeengan. Adina kontutan harturik, emakumezkoen iharduera tasa gorena 25 eta 34 urte bitartean ageri da, % 75,4, baina adin horretatik aurrera ia linealki behera egiten du 55 urtetatik 64etara bitartekoan % 13,7raino.

Egoera zibilak eragin zuzena du oraindik emakumezkoen partaidetzan. Ezkongabekoen iharduera tasa, % 57,7, nahiko handia da eta bikoiztu egiten du ezkonduena, eta aipagarria da baita ere, 45 urtez beherakoek goia jo dutela dirudiela beraien % 91eko partaidetza tasari erreparatuz gero, eta ezkonduen partaidetza % 50tik pixkat gora baino ez dagoela.

Azken lau urteetan zehar, emakumezkoen iharduera tasak maila beretsuari eutsi dion bitartean, gizonezkoenak behera egin du lau puntutan. Egonkortasun hau, bestalde, 1985 eta 1986. urteetan zehar izan zen bost puntutako gorakada nabarmenaren ondoren suertatu da. Alabaina, 25 urtez behera eta 55 urtez gorako emakumeen artean, iharduera tasak behera egin du bost puntutan, lan bizitzaren iraupena gutxitu egin delako, dena den, beherakada hori 25 eta 44 urte bitarteko ezkonduen artean izandako zazpi puntutako gorakadaz konpentsatzen da, azken datu honek gainera, belaunaldi berrietako emakume ezkonduengana lan merkatuan parte hartzeari buruzko ohizko jokaera aldatu egin dela erakusten duelarik.

Langabeziak, berriz, eragin nabarmena du Euskal Herriko emakumezko aktiboengan, hots, langabezi tasak % 26,9a jotzen du, gizonezkoen % 11,4a aise bikoiztuz. Europako Elkarteko handiena da, ondoren Espainiakoa dagoelarik, % 24,8az, eta jada beherago Irlanda, Belgika eta Italia, % 18aren inguruko portzentaiez. Langabetuen portzentaiak berdintsuak dira aurretiaz lan egiten duten emakumeentzat eta lehen lanaren bila ari direnentzat.

Langabezia emakume gazteek jasaten dute gehien bat, langabetuen % 80k 35 urte baino gutxiago dituzte, eta hauen artean kaltetuenak 25 urtez beherakoak dira, berauen langabezi tasak ia % 50a jotzen bait du. Egoera zibilak ez du eraginik, eta ezkongabeak tasa handiagoaz agertzen badira ere, gazteagoak direlako eta berauen artean langabezia handiagoa suertatzen delako da. Azkenik, langabetu gehiago dago bigarren mailako ikasketak dituzten emakumeengan lehen mailakoak edo unibertsital mailakoak dituztenen artean baino.

Azken urteotan, emakumezkoen langabezi tasak, behera egin du, 4 puntu baino zerbait gehiago, hain justu, eta beherakada hau emakumezko langabetuen kolektibo osoan nabari izan bada ere, are nabariago suertatu da beren lehen lanaren bila ari ziren emakumezkoengan, 35 etik 54 urtera bitartekoengan eta bigarren mailako nahiz unibertsitateko ikasketak dituztenen artean.

Emakumezkoen langabezialdiak 27 hilabete dirau batezbeste. Aurretiaz lan egin duten langabetu gehienak zerbitzu sektorean arituak dira, nahiz eta, proportzioz, langabeziak eragin handiagoa duen industri sektorekoengan; beste alde batetik, emakume langabetuen % 15a besterik ez da langabezi aseguruak kobratzen ari, gizonezkoen portzentaia, aldiz, % 32koa dugu.

Azkenik, zera aipatu behar da, emakumezkoen lan partaidetza dela-eta, azken lau urteetan zehar aldaketa garrantzizkoak izan diren arren, etorkizunean Euskal Herria Europako Elkarteko gizarte aurreratuenen egoerarantz eramateko abiapuntu izan daitezkeen aldaketak, alegia, oraindik ere gehiago direla etxeko lanetan buru-belarri diharduten euskal emakumezkoak etxetik kanpo lan egiten dutenen aldean.

2

**LAN
IHARDUERETAN
ARI DEN
BIZTANLERIA**

Lan alorrean aktiboa izateak ez du esan nahi lan ihardueraren batetan aritzea, izan ere, biztanleria aktiboa delakoaren barne langabetuak ere sartzen bait dira. Aurreko kapituluan azaldu den bezala, Euskal Herrian 150.000 pertsona daude langabezian, hau da, biztanleria aktiboaren % 17a, eta langabetuen artean gazteei eta emakumezkoei dagokie gehiengoa, hortaz, lanik gabe dauden pertsonen % 80 35 urtez beherakoak dira eta horietako % 57,3 emakumeak, horrez gainera, emakumezkoen langabezi tasa benetan nabarmena da, % 26,9koa, gizonezkoena, berriz, % 11,4koa.

Langabeziari dagozkion zifrok hain handiak izanik, ihardutze-tasaren beherakada nabarmena ageri da iharduera tasari dagokionez, gazteen eta emakumezkoen artean, batez ere, nahiz eta, orohar, biztanleria landunari eta biztanleria aktiboari ezaugarri beretsuak nabari zaizkien.

2.1 Taulan ihardutze-tasak eta emakume nahiz gizonezko biztanleria landunaren banaketa bil-tzen da adinaren, egoera zibilaren eta ikasketa-mailaren arabera, eta baita iharduera tasaren azken lau urteetako bilakaera ere.

Biztanleria aktiboaren aldean, hurrengo aldaketa nagusiak agertzen dira:


- Batetik, emakumezkoen ihardutze-tasa iharduera tasa baino txikiagoa da 10 puntutan, % 26,9koa eta % 36,9koa hurrenez hurren, eta beherapen hori areago nabarmentzen da 35 urtez beherako emakumezkoengan, % 46,2tik % 24era 25 urte baino gutxiago dituztenentzat eta % 75,4etik % 55,4era 25 eta 34 urte bitartekoentzat.
- Bestetik, azken lau urteetan zehar bi puntutako gehikuntza gertatu dela emakumezkoen ihardutze-tasan, % 25etik % 26,9ra bitartekoa, iharduera tasak ia aldaketarik gabe zirauen artean.

2.1. TAULA Ihardutze-tasak eta biztanleria landunaren banaketa


	IHARDUTZE-TASAK		BIZT. LANDUNAREN %	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
Bizt. landuna:	233,0	498,0	100,0	100,0
	26,9	60,0		
Adina:				
16-24	24,0	28,7	16,2	9,6
25-34	55,4	80,2	39,9	26,9
35-44	36,5	93,3	22,8	28,0
45-54	25,7	89,1	13,0	21,4
55-64	13,6	52,8	7,3	13,2
65 edo gehiago	1,2	3,5	0,8	0,7
Egoera Zibila:				
Ezkongabeak	38,3	47,5	44,2	30,4
Ezkondutakoak	21,8	67,9	55,8	69,6
Ikasketak:				
Lehen mailakoak	15,1	58,6	32,4	45,2
Bigarren mailakoak	39,1	61,5	44,7	41,2
Unibertsitatekoak	53,4	60,3	22,9	13,6
Bilakaera:				
1987	25,0	59,8	100,0	100,0
1988	25,2	58,8	100,0	100,0
1989	26,0	60,1	100,0	100,0
1990	26,9	60,0	100,0	100,0

Iturria: PRA 1990 1. sei hilabetekoa. Urteroko batezbestek.


11. Grafikoa. Ihardutze-tasak (%) ikasketen mailaren arabera



12. Grafikoa. Ihardutze-tasak (%) adinaren eta sexuaren arabera



13. Grafikoa. Ihardutze-tasak (%) egoera zibilaren arabera



Ondoren, biztanleria landunari buruzko azterketa zehatza egingo da astero lanean emandako orduen, ekonomi sektorearen, iharduera adarraren, lanbidearen eta lanbide-egoeraren arabera. Azkenik, alokairupeko biztanleriari ere azterketa berbera aplikatuko zaio.

Aipatutako azterketa horri ekin aurretik, zera aipatu behar da, hemendik aurrera erabiliko diren biztanleria landunari buruzko zifrak orain arte erabilitakoak baino handixeagoak izango direla, zeren sasilangabetuak ere landuntzat jotzen bait dira, orain arte langabetuen artean sartu bazaie ere. Dena den, diferentzia oso txikia da, haien kopurua ere horrelakoxea bait da, 5.300 gizonezko eta 5.400 emakume, hain zuzen.

ASTERO LANEAN EMANDAKO ORDUAK

2.2

2.2 Taulan ikus daitekeenez, emakumezkoek aste bakoitzeko, batezbeste, 35,1 ordu ematen dituzte lanean, hau da, gizonezkoek baino gutxiago, hauek, batezbeste, 39,4 orduz aritzen bait dira astero.

2.2. TAULA Astero lanean emandako orduak sexuaren arabera. (Portzentaia bertikalak)

	EMAKUMEEK	GIZONEK
Ordu Batezbeste	35,1	39,4
< 15 ordu	4,5	0,7
15-29 ordu	15,5	3,9
30-39 ordu	25,7	19,5
40 ordu	37,1	55,7
> 40 ordu	17,3	20,1

Iturria: PRA 1990eko 1. seihilabetekoa.

Ihardunaldi partzialeko lantzat astero 30 orduz behera ematen zaiona jotzen bada, Euskal Herrian ihardunaldi partzian lan egiten duten emakumezkoen proportzioak % 20a jotzen du, Europako Elkartekoa baino zerbait txikiagoa, bertan % 27,3koa bait da (Ikus 2.3 Taula). Hala ere, Elkarteko herrialdeen artean ez da homogenotasunik nabaritzen, izan ere, herrialde gehienetan ihardunaldi partzian lan egiten duten emakumezkoen proportzioa % 10etik % 30era bitartekoa bada ere, Ingalaterra eta Danimarkan % 40tik gorakoa da.

2.3. TAULA Ihardunaldi partzialeko lana Europako Elkartean. (Portzentaiatan)

HERRIALDEAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
Europako Elkartea	27,3	3,3
Belgika	22,6	2,1
Dinamarka	41,9	8,7
Alemania	29,8	2,1
Grezia	10,3	3,4
Frantzia	23,1	3,4
Irlanda	14,3	2,6
Italia	9,5	2,8
Luxemburg	15,7	2,0
Portugal	10,0	3,4
Inglaterra	44,5	4,6

Iturria: Eurostat 1986

Azkenik, 2.4 Taulan ikusten den bezalaxe, ez da diferentzia nabarmenik agertzen emakumezkoek astero lanean emandako ordu-kopuruak egoera zibilaren arabera isladatzen dituzten banaketen artean. Ezkondutako emakumezkoen artean proportzioa handiagoa antzematen daiteke 15 ordu baino gutxiago ematen dutenei dagokienez, % 4,4 % 1,7ren aldean, baina 40 orduz gora lan egiten dutenen kasuan ere, % 18,0 % 14,2ren aldean, eta guzti hori 30 ordu baino gehiago eta 40 baino gutxiago lan egiten duten emakumezkoen proportzioaren gutxitzearen pentsura.

2.4. TAULA Astero lanean emandako orduak egoera zibilaren arabera. (Portzentaia bertikalak)

ORDUAK	EMAKUMEAK		GIZONAK	
	EZKONGABEAK	EZKONDUAK	EZKONGABEAK	EZKONDUAK
< 15 ordu	1,7	4,4	1,9	0,2
15-29 ordu	16,7	17,7	5,1	4,5
30-39 ordu	29,1	26,7	21,7	24,7
40 ordu	38,3	33,2	51,7	52,6
> 40 horas	14,2	18,0	19,7	18,0

Iturria: PRA 1990eko 1. sei hilabetekoa.

SEKTORE EKONOMIKOA

2.3

Emakumezko landunei dagokienez, gehienak, % 80,8, hain zuzen, zerbitzuen sektorean ari da lanean, eta gainontzekoek industri sektorean dihardute, batez ere, % 14,7 (Ikus 2.5 Taula). Nekazaritzan eta eraikuntzan lan egiten duten emakumezkoen proportzioa oso txikia da, % 2,9

eta % 1,7 hurrenez hurren. Gizonezkoen kasuan, aldiz, gehienak industri sektorean, % 45,1, eta zerbitzuen sektorean, % 41,3, ari dira, nahiz eta eraikuntzan dihardutenen proportzioa ere garrantzizkoa den, % 10,3.


Sektore bakoitza hartu eta sexukako banaketa eginez gero, emakumezkoek zerbitzuen sektorean lanean ari direnen erdia osotzen dute, nekazaritzan, bestalde, proportzio nahiko handiaz agertzen dira, % 29,5, eta gutxiengoa dagokie bai industrian, % 13,4, eta bai eraikuntzan, % 7,2, hauek askok, gainera, administrazio mailako eginkizunetan ari direlarik.

2.5. TAULA Biztanleria landunaren banaketa ekonomi sektoreen arabera

SEKTOREAK	GUZTIZKOAK		% BERTIKALAK		% HORIZONTALAK	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
Nekazaritza	6,9	16,5	2,9	3,3	29,5	70,5
Industria	35,0	227,1	14,7	45,1	13,4	86,6
Eraikuntza	4,0	51,9	1,7	10,3	7,2	92,8
Zerbitzuak	192,7	208,0	80,8	41,3	48,1	51,9
GUZTIRA	238,4	503,3	100,0	100,0	32,1	67,9

Iturria: PRA 1990eko 1. seihilabetekoa.

14. Grafikoa. Biztanleria landuna ekonomi sektorearen arabera (milatan eta % horizontaletan)



Nekazal sektoreak euskal ekonomian duen partaidetza urria dela eta, bertan lan egiten duten emakumezkoen proportzioa, % 2,9, Europako Elkarteko % 7,3koa baino dexente txikiagoa da (Ikus 2.6 Taula). Era berean, industrian eta eraikuntzan diharduten emakumezkoen proportzioa ere txikiagoa da, % 16,4 eta % 19,8 hurrenez hurren, baina diferentzia bitzuak zerbitzuen sektorean nabari den presentzia handiagoaz konpentsatzen dira.

2.6. TAULA Biztanleria landuna ekonomi sektoreka Euskal Herrian, Espainian eta Europako Elkartean. (Portzentaia bertikalak)

SEKTOREAK	EMAKUMEAK			GIZONAK		
	Euskal H.	Espainia	Europa	Euskal H.	Espainia	Europa
Nekazaritza	2,9	11,1	7,3	3,3	13,3	8,1
Industria-Eraikuntza	16,4	17,2	19,8	55,4	40,7	39,7
Zerbitzuak	80,8	71,7	72,9	41,3	46,0	52,2

Iturriak: PRA 1990eko 1. seihil., EPA 1990eko 1. hiruhil., Eurostat 1987.

2.7 Taulan ikus daitekeenez, nekazal sektorean soilik antzematen da halako aldaketa nabarmen bat emakumezko landunen adinaren araberrako banaketari dagokionez, izan ere, sektore horretan lan egiten duten emakumezkoen proportzioak % 8,3a jotzen bait du 45 urtez gorakoentzat eta % 1,5a baino ez gazteagoentzat. Zerbitzuen sektorean eta eraikuntzan partaidetza handiagoxea dagokie 45 urtez beherakoei, eta industrian diferentzia oso txikiak agertzen dira adin-tarte desberdinen artean. Gizonezkoei dagokienez, gorabehera handiak nabari dira adin ezberdinen artean, industri sektorean, batez ere, bertan lan egiten dutenen proportzioa 45 urtez gorakoen % 51,6tik 25 urtez beherakoen % 34,3ra jaisten bait da. Aitzitik, eraikuntzan eta, batez ere, zerbitzuen sektorean presentzia handiagoa dagokie 45 urtez beherakoei.

2.7. TAULA Biztanleria landuna ekonomi sektoreka eta adin-multzoka. (Portzentaia bertikalak)

SEKTOREAK	EMAKUMEAK			GIZONAK		
	< 25	25-44	> 44	< 25	25-44	> 44
Nekazaritza	1,6	1,4	8,3	5,7	2,0	4,7
Industria	13,6	15,4	13,5	34,3	42,9	51,6
Eraikuntza	2,4	1,9	0,3	13,7	10,0	9,8
Zerbitzuak	82,5	81,3	77,9	46,2	45,1	34,0

Iturria: PRA 1990eko 1. seihilabetekoa.

Azken lau urteetan zehar, nekazar sektorean lan egiten dutenen emakumezkoen proportzioa % 5,1etik % 2,9ra jaitsi da, sektorean diharduten emakumezkoen batezbesteko adin handia dela eta, batez ere, eta beherapen horrek handitze nimiño bat ekarri du gainontzeko sektoreetan lan egiten dutenen proportzioari dagokionez. Gizonezkoen artean, berriz, ez da aldaketa nabarmenik suertatu.

2.8. TAULA Biztanleria landunaren bilakaera ekonomi sektoreka. (Portzentaia bertikalak)

SEKTOREAK	EMAKUMEAK				GIZONAK			
	1987	1988	1989	1990	1987	1988	1989	1990
Nekazaritza	5,1	4,0	2,7	2,9	4,1	4,3	3,6	3,3
Industria	14,6	12,6	15,3	14,7	44,0	45,0	45,5	45,1
Eraikuntza	0,5	1,0	1,2	1,7	10,3	10,5	11,0	10,3
Zerbitzuak	79,8	82,4	80,9	80,8	41,5	40,1	39,9	41,3

Iturria: PRA 1990eko 1. seihilabetekoa.

IHARDUERA ADARRA

2.4


Lehenago ere aipatu den bezala, emakumezkoen gehiengoa zerbitzuen sektorean ari da lanean eta, hain zuzen ere (Ikus 2.9 Taula), lau iharduera adarretan biltzen dira: % 25,1a merkataritza eta ostalaritzan, % 24,9a administrazioan, sanitatean eta irakaskuntzan, % 15,6a merkatal alorretik kanpoko bestelako zerbitzuetan, pertsonalak eta etxeak, batipat, eta % 10,6a beste zenbait merkatal zerbitzutan. Beraz, lau iharduera adarrok emakumezko landun guztien % 76,2a baruhartzen dute, gizonezkoen % 30,1a baino ez, ordea, hauen iharduera adarren araberako banaketa askozaz ere homogenoagoa bait da.

2.9. TAULA Biztanleria landunaren banaketa iharduera adarren arabera

ADARRAK	GUZTIZKOAK		% BERTIKALAK		% HORIZONTALAK	
	EMAKUM.	GIZONAK	EMAKUM.	GIZONAK	EMAKUM.	GIZONAK
Nekazaritza, abeltzantza eta arrantza	6,9	16,5	2,9	3,3	29,3	70,7
Energia eta ura	0,0	4,1	0,0	0,8	0,0	100,0
Mea eta metalak	0,9	22,1	0,4	4,4	3,7	96,3
Mea ezmetalezkoak	0,8	7,5	0,3	1,5	9,6	90,4
Kimika industria	2,2	8,8	0,9	1,7	20,1	79,9
Metalezko eraikuntzak	2,0	35,1	0,8	7,0	5,4	94,6
Metal-gaiak. Mekanika lantegiak	5,2	28,2	2,2	5,6	15,6	84,4
Makineria ezelektrikoa	2,1	23,7	0,9	4,7	8,2	91,8
Makineria eta material elektrikoa	4,7	19,7	2,0	3,9	19,1	80,9
Garraio-ibilgailuak eta materiala	0,9	19,5	0,4	3,9	4,2	95,8
Elikadura, edariak eta tabakoa	5,2	12,6	2,2	2,5	29,2	70,8
Ehung., jantzigintza eta oinetakoak	4,9	4,2	2,1	0,8	54,1	45,9
Zura eta altzariak	0,6	11,5	0,2	2,3	4,6	95,4
Papera eta grafikagintza	2,9	11,1	1,2	2,2	20,5	79,5
Kautxo-plastikoa	2,8	19,4	1,2	3,8	12,4	87,6
Eraikuntza	4,0	51,9	1,7	10,3	7,1	92,9
Merkataritza-ostalaritza	60,0	77,0	25,1	15,3	43,8	56,2
Garraioa-komunikabideak	4,6	42,3	1,9	8,4	9,8	90,2
Banka-aseguruak	6,4	14,4	2,7	2,9	30,7	69,3
Administrazioa, sanitatea, irakask.	59,3	39,2	24,9	7,8	60,2	39,8
Bestelako merkatal zerbitzuak	25,3	26,0	10,6	5,2	49,3	50,7
Merkatal alorretik kanpoko zerbit.	37,2	9,2	15,6	1,8	80,2	19,8
GUZTIRA	238,4	503,3	100,0	100,0	32,1	67,9

Iturria: PRA 1990eko 1. seihilabetekoa

15. Grafikoa. Biztanleria landuna iharduera adinaren arabera (% horizontalak)



Aipatutako lau iharduera adarrotan antzematen den emakumezkoen kontzentrazio handiak emakumezkoen nagusitasun nabarmena dakar eta, horrela, emakumezkoek zerbitzu pertsonaletan nahiz etxekoetan dihardutenen % 80,2a jotzen dute, administrazioan, sanitatean zein irakaskuntzan dihardutenen % 60,2a, bestelako merkatal zerbitzuetan ari direnen % 49,3a eta % 43,8a merkataritza eta ostalaritzan, horrez gainera, industri sektoreko adar bat ere aipatu behar da, ehungintza, jantzigintza eta oinetakoena, hain zuzen, berorretan emakumezkoek guztizkoaren % 54,1a jotzen bait dute. Bestalde, aipatutako adarrei dagozkien lanetako gehienak emakumezkoek familian egin ohi izan duten lanen antzekoak dira.

Gainontzeko iharduera adarretan emakumezkoen proportzioa ez da emakumeei biztanle landun guztien aldean dagokien proportziara iristen, % 32,1era hain zuzen, alabaina, nahiko garrantziko da zenbait adarretan, hala nola, bankak eta aseguruetan, % 30,7, nekazaritzan, eta industri sektoreari dagokionez, elikadura, edari eta tabakoa delako adarrean, % 29,2, paper eta grafikagintzan, % 20,5, kimika industrian, % 20,1 eta makineria eta material elektrikoak biltzen dituen adarrean, % 19,1. Aitzitik, apenas dagoen emakumezkoen hurrengo adarrotan: energia eta ura, meak eta metalak, metalezko eraikuntzak, garraio-ibilgailuak eta materialak eta zura eta altzariak.

Beraz, sexuaren arabera bereizketa argi bat ageri da iharduera adar desberdinetan lan egiten dutenen banaketan, eta bereizketa edo segregazio hori zenbatzeko era egokia eskaintzen du disimilaritate-indizea delakoak, beronek kalkulatu bait du segregazioa ezerezteko iharduera adarrez aldatu beharko zuten emakumezkoen gutxienezko proportzioa, beti ere, gizonezkoen proportzioa aldatu ezik. Indize honek badu ezaugarri berezi bat, hots, ez dio emakumezkoen nahiz gizonezkoen biztanle landun guztien artean dagokien proportzioak eragiten, bai, ordea, kontutan har dadin adar-kopuruak. Formula matematikoa hau da:

$$I.D. = \frac{1}{2} \sum_i \frac{M_i}{M} - \frac{H_i}{H} \times 100$$

Non:

M_i = i iharduera adarrean diharduten emakume guztien kp.

M = emakume landun guztien kp.

H_i = i iharduera adarrean diharduten gizonezko guztien kp.

H = gizonezko landun guztien kp.

1990.eko lehen seihilabetekoari dagozkion datuen arabera, emakumezko landun guztien % 47,4ak iharduera adarrez aldatu beharko luke segregazioa ezerezteko. Eta proportzio hori oso handia da, are handiagoa erabilitako iharduera adarren kopuru urria aintzat harturik. Segregazio handiagoa nabari da industri sektorean, % 34,1, baina zerbitzuen sektorekoa ere nabarmena da, % 27,5.

Azken lau urteetan zehar, bestalde, segregazio-indizea apenas aldatu den:

1987	1988	1989	1990
% 46,7	% 48,7	% 47,8	% 47,4

eta beraz, joera bat mugatzerakoan lau urte oso gutxi badira ere, ez dirudi landunen iharduera adarren arabera sexuko segregazioa gutxituko bide denik, ez nabarmenki, behinik behin.

LANBIDEA

2.5

lharduera adar desberdinetan dihardutenen banaketari nabari zaion sexukako segregazio handiak zera darama bere baitan, lanbidearen arabeko segregazio handia, eta badirudi hura azken honen ondorioz sortarazten dela. Areago, sexukako lanbide-segregazioa gordinago ageri zaigu, zeren industri sektorean diharduten emakumezkoen hainbat enplegu administrazio-lanei bait dagozkie.

Hortaz, emakumezko landun gehienak lau lanbide nahiz lanbide-talderen ingurura biltzen dira (Ikus 2.10 Taula). % 29,4ak zerbitzu pertsonal nahiz etxekeekin edo ostalaritzarekin zerikusirik duen lanbideren bat du; % 19,5a administrari laguntzailea da, % 15,5a merkataria edo saltzailea eta % 13,3a erdi-mailako teknikari edo profesionaria, erizainak eta O.H.O.ko irakasleak, baita. Beraz, lau lanbide-talde hauek emakume landun guztien % 77,7a baruhartzen dute, gizonen % 77,7a baino ez dihardu lanbideotan.

2.10. TAULA Biztanleria landunaren banaketa lanbideen arabera

LANBIDEAK	GUZTIZKOAK		% BERTIKALAK		% HORIZONTALAK	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
Zuzendaritzako pertsonala	2,3	22,4	1,0	4,5	9,3	90,7
Teknik. etagoi-mailako profesionariak	13,1	22,9	5,5	4,5	36,3	63,7
Teknik. eta erdi-mailako profesionariak	31,7	17,2	13,3	3,4	64,8	35,2
Administrari buruak	2,4	28,6	1,0	5,7	7,6	92,4
Administrariak	5,3	37,6	2,2	7,5	12,3	87,7
Administrari laguntzaileak	46,6	36,5	19,5	7,2	56,1	43,9
Merkatari eta saltzaileak	37,1	19,5	15,5	3,9	65,5	34,5
Zerbitzuetako bestelako pertsonala	70,2	24,3	29,4	4,8	74,3	25,7
Nekazaritzak	6,7	16,0	2,8	3,2	29,5	70,5
Burdinmetalgintzako langileak	0,5	19,0	0,2	3,8	2,3	97,7
Erremintagintzako langileak	3,2	42,9	1,3	8,5	6,8	93,2
Doikuntzako mekanikari eta muntatzaileak	1,0	22,8	0,4	4,5	4,2	95,8
Elektrikariak	2,8	27,1	1,2	5,4	9,5	90,5
Iturginak, soldatzaileak eta txapistak	0,0	26,1	0,0	5,2	0,0	100,0
Igeltseroak eta eraikuntzako langileak	0,0	33,4	0,0	6,6	0,0	100,0
Gidariak	0,6	31,6	0,2	6,3	1,7	98,3
Industriako bestelako langileak	15,4	75,7	6,5	15,0	16,9	83,1
GUZTIRA	238,4	503,3	100,0	100,0	32,11	67,9

Iturria: PRA 1990eko 1. seihilabetekoa.

lharduera adarretan ere gertatzen zen bezalaxe, lanbide hauek ere gero eta emakumezko kutsu nabarmenagoa hartzen ari dira, gehiengo beraiei bait dagozkie. Zerbitzu pertsonal nahiz etxekeotan eta ostalaritzan lan egiten dutenen % 74,3, merkatari eta saltzaile guztien % 65,5, erdi-mailako profesionarien % 64,8 eta administrari laguntzaileen % 56,1a emakumezkoak ditugu.

Horrez gainera, emakumezkoak proportzio nahiko handiez agertzen dira goi-mailako profesio-narien artean, % 36,3, nekazaritzan, % 29,5, eta emakumezkoen presentzia nabarmena era-kusten duten adarretako zenbait industri lanetan, hala nola: ehungintza eta jantzigintzan, elika-dura, edari eta tabakoa delakoan, etab. Aitzitik, oso txikia da, % 10etik beherakoa, zuzendaritzako pertsonalaren artean, eta ia ez da agertzen industri eta eraikuntza alorreko lan-bide gehienetan: burdinmetalgintzako langileak, mekanikari eta muntatzaileak, iturginak eta sol-datzaileak, igeltseroak eta gidariak.

Lanbideen banaketari dagokion sexukako disimilaritate-indizea oso handia da, % 59,3koa, ihar-duera adarren banaketari zegokion % 47,7koa baino handiagoa, eta, segregazioa ezerezteko, lanean diharduten emakume guztien % 60ak lanbidez aldatu beharko luketela adierazten du. Azken lau urteetan indize hori ezer gutxi aldatu da:

1987	1988	1989	1990
% 57,9	% 59,2	% 58,1	% 59,3

eta beraz, iharduera adarren kasuan gertatzen zen bezalaxe, ez da biztanleria landunaren ba-naketan ageri den sexukako segregazioa gutxitzeko joera antzematen oraingoz bederen.

Lanean diharduten emakumezkoek lanbide jakin batzutara biltzeak eta gainontzekoetan pre-sentzia hain urria izateak garrantzizko eragina du lan merkatuaren dinamikan, alokairupeko biz-tanleriari dagokionez, batipat, izan ere, laneratzen diren emakume gehienek emakumezko ku-tsu nabaria duten lanbide horietara jotzen bait dute lehen bezala, azken urteetan ezer gutxi aldatu delarik joera hori, eta ez dirudi epe laburrera aldatuko denik.

Horrez gainera, eta azterlan honen bostgarren artikuluan erakutsiko den bezala, gehiengoa emakumezkoek dagokien lanbide gehientsuenetan alokairu txikiagoak ordaintzen dira, eta be-raz, lanbide-segregazio berak dakartzan ondorioak ez ezik, orohar bereizkeria kutsua izan ohi duen segregazioaren alokairuzko ondoreak ageri zaizkigu eta baita bestelakoak ere, hala nola, lanbide horietako zenbaiten sormen eskasarekin, promoziorako aukerekin edota gizarte-ospea-rekin zerikusia dutenak.

LANBIDE-EGOERA

2.6

Lanean diharduten emakumeen % 78 alokairupeko langileak dira, % 1,5 kooperatibakideak, % 1 beren ardurapean langileak dituzten enpresariak, % 13,8 enpresari indibidualak edo lan-gile autonomoak eta % 5,8 familiaren negozioetan laguntzen dutenak (Ikus 2.11 Taula). Ba-naketa hau eta gizonezkoena antzerakoak dira, baina gizonezkoen artean askozaz ere propor-tzio handiagoa ageri da enpresariei eta kooperatibakideei dagokienean, txikiagoa, berriz, familiaren negozioetan laguntzen dutenei dagokienean. Beraz, emakumezko gehiago dago fa-miliaren negozioetan laguntzen dutenen artean, % 66,3, eta partaidetza urria dagokie enpre-sarien artean, % 16 nahiz kooperatibetan, % 18.

2.11. TAULA Biztanleria landunaren banaketa lanbide-egoeraren arabera

EGOERA	GUZTIZKOAK		% BERTIKALAK		% HORIZONTALAK	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
Enplegatzailea	2,3	12,4	1,0	2,5	16,0	84,0
Langile autonomoa	32,8	70,1	13,8	13,9	31,9	68,1
Famili laguntza	13,8	7,0	5,8	1,4	66,3	33,7
Kooperatibakidea	3,6	16,2	1,5	3,2	18,0	82,0
Alokairupekoa	186,0	397,7	78,0	79,0	31,9	68,1
GUZTIRA	238,4	503,3	100,0	100,0	32,1	67,9

Iturria: PRA 1990eko 1. seihilabetekoa.

Nekazal sektorean (ikus 2.12 Taula), lanbide-egoeraren arabera banaketa berezia ageri da gainontzeko sektoreenaren aldean. Nekazaritzan lan egiten duten emakumeen % 62,3 langile autonomo gisa ari dira, % 24,4 famili ustia ketetan laguntzen ari dira eta % 13,2 baino ez dira alokairuren bat jasotzen ari. Gizonezkoen artean, berriz, % 50,4 langile autonomoak dira, % 7,9 famili ustia ketetan laguntzen dute eta % 38,9 alokairupekoak dira.

Zerbitzuen sektorean, bestalde, lanean diharduten emakume guztien multzoak erakusten duen banaketaren antzekoa ageri da, eta industria sektorean alokairupeko emakumeek eta kooperatibakideek gainditu egiten dituzte batezbesteko portzentaia.

2.12. TAULA Biztanleria landunaren banaketa lanbide-egoeraren eta ekonomi sektorearen arabera. (Portzentaia bertikalak)

LANBIDE-EGOERA	EMAKUMEAK				GIZONAK			
	Nekaz.	Indust.	Eraik.	Zerb.	Nekaz.	Indust.	Eraik.	Zerb.
Enplegatzailea	0,0	0,0	8,3	1,3	2,3	1,5	6,2	3,1
Langile autonomoa	62,3	6,2	4,3	14,1	50,4	2,9	19,4	22,5
Famili laguntza	24,4	2,5	11,7	5,1	7,9	0,2	0,6	2,2
Kooperatibakidea	0,0	5,6	0,0	0,6	0,4	4,8	0,1	0,7
Alokairupekoa	13,2	85,7	75,7	78,9	38,9	90,5	73,7	71,5

Iturria: PRA 1990eko 1. seihilabetekoa.

ALOKAIRUPEKO BIZTANLERIA

2.7

2.13 Taulan, alokairupeko emakume eta gizonezkoen banaketa agertzen da ekonomi sektoreen eta iharduera adarren arabera sailkatuta, eta guztizko zifretan nabari den beherapen logikoaz gaindi, nekazal sektorekoak batez ere, ezer gutxi aldatzen da biztanleria landun osoaren banaketarekiko.

2.13. TAULA Alokairupeko biztanleriaren banaketa ekonomi sektoreen eta iharduera adarren arabera

SEKTOREAK	GUZTIZKOAK		% BERTIKALAK		% HORIZONTALAK	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
Nekazaritza	0,6	6,5	0,3	1,6	8,5	91,5
Industria	32,1	216,4	16,9	52,3	12,9	87,1
Eraikuntza	3,1	38,4	1,6	9,3	7,5	92,5
Zerbitzuak	153,6	152,6	81,1	36,9	50,2	49,8
ADARRAK						
Nekazaritza, abeltzantza eta arrantza	0,6	6,5	0,3	1,6	8,5	91,5
Energia eta ura	0,0	4,1	0,0	1,0	0,0	100,0
Mea eta metalak	0,9	22,0	0,4	5,3	3,7	96,3
Mea ezmetalezkoak	0,8	7,5	0,4	1,8	9,7	90,3
Kimika industria	2,2	8,5	1,2	2,1	20,6	79,4
Metalezko eraikuntzak	2,0	33,9	1,1	8,2	5,6	94,4
Metal-gaiak. Mekanika lantegiak	4,8	26,7	2,5	6,5	15,1	84,9
Makineria ezelektrikoa	2,1	23,3	1,1	5,6	8,3	91,7
Makineria eta material elektrikoa	4,6	18,9	2,4	4,6	19,4	80,6
Garraio ibilgailuak eta materiala	0,9	19,3	0,4	4,7	4,2	95,8
Elikadura, edariak eta tabakoa	4,7	11,7	2,5	2,8	28,7	71,3
Ehun., jantzigintza eta oinetakoak	3,3	3,3	1,7	0,8	49,6	50,4
Zura eta altzariak	0,6	8,5	0,3	2,1	6,1	93,9
Paper eta grafikagintza	2,7	9,8	1,4	2,4	21,6	78,4
Kautxo-plastikoa	2,8	19,1	1,5	4,6	12,6	87,4
Eraikuntza	3,1	38,4	1,6	9,3	7,5	92,5
Merkataritza-ostalaritza	29,8	42,6	15,7	10,3	41,1	58,9
Garraioa-komunikabideak	3,9	28,8	2,1	7,0	11,9	88,1
Banka-aseguruak	6,3	14,2	3,3	3,4	30,6	69,4
Administrazioa, sanitatea, irakask.	59,1	39,1	31,2	9,5	60,2	39,8
Bestelako merkatal zerbitzuak	17,9	19,2	9,4	4,6	48,2	51,8
Merkatal alorretik kanpoko zerbitz.	36,8	8,8	19,4	2,1	80,7	19,3
GUZTIRA	189,5	413,8	100,0	100,0	31,4	68,6

Iturria: PRA 1990eko 1. seihilabetekoa.

2.14 Taulan biltzen den alokairupeko biztanleriaren lanbide-egoeraren arabeko banaketa aztertuz gero, lehenago aipatutako lanbide-segregazioaren ondorioak ikus daitezke, hortaz, emakumezkoen ia erdia, % 44,2, zehaztu gabeko alokairupekoen sailean agertzen bait dira, gehienak kategoriarik gabeko enplegatuen artean; gizonezkoen kasuan, ordea, laurdena baino ez da kategoria horretan sartzen, % 23,5a hain zuzen.

Emakumezko oso gutxi dago zuzendaritza-taldean, zuzendarien eta sekzioko nahiz zerbitzuko buruen % 10 besterik ez dira emakumezkoak. Goi-mailako teknikariei dagokienez, ordea, proportzio handian ageri dira, % 41,1. Eta gehiengoa osotzen dute erdi-mailako teknikarien artean, % 67,5, maistrak eta erizainak, batipat; eta gauza bera suertatzen da administrazio-kategorietan, administrariaren % 56,1 eta administrari laguntzaileen % 73,1 emakumezkoak bait dira.


Industri sektoreko kategorietan, berriz, oso emakume gutxi agertzen dira, eta kategoriaz igo ahala gero eta emakume gutxiago ageri dira. Espezialisten eta peoi nahiz ikasleen artean % 15, ofizialen % 9 eta arduradunen % 3,7 besterik ez.

2.14. TAULA Alokairupeko biztanleriaren banaketa lanbide-kategoriaren arabera

KATEGORIA	GUZTIZKOAK		% BERTIKALAK		% HORIZONTALAK	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
Zuzendariak	0,8	7,8	0,4	1,9	9,3	90,7
Sekzio-zerbitzu buruak	2,6	21,2	1,3	5,1	10,8	89,2
Goi-mailako teknikariak	10,9	15,6	5,8	3,8	41,1	58,9
Erdi-mailako teknikariak	25,0	12,0	13,2	2,9	67,5	32,5
Administrariak	17,4	13,6	9,2	3,3	56,1	43,9
Administ. laguntzaileak	16,8	6,2	8,8	1,5	73,1	26,9
Arduradunak	0,8	20,8	0,4	5,0	3,7	96,3
Ofizialak	10,8	108,2	5,7	26,1	9,1	90,9
Espezialistak	12,6	62,0	6,6	15,0	16,8	83,2
Peoi eta ikasleak	8,4	49,2	4,4	11,9	14,6	85,4
Zehagabeko alokairupekoak	83,7	97,3	44,2	23,5	46,2	53,8
GUZTIRA	189,5	413,8	100,0	100,0	31,4	68,6

Iturria: PRA 1990eko 1. sehilabetekoa.

16. Grafikoa. Alokairupeko biztanleriaren banaketa lanbide kategoriaren arabera (% horizontalak)



Azkenik, eta enpresa-motari dagokionez (2.15 Taula), alokairupeko biztanleriaren gehiengoak enpresa pribatua lan egiten du, alabaina, emakumezkoen proportzioak % 73,4a jotzen duen bitartean, gizonezkoena % 86,9ra iristen da. Administrazio publikoan alderantziz gertatzen da, alokairupeko emakumezkoen % 25,1ek bertan bait dihardu, gizonezkoen portzentaia % 9,9koa delarik; horren ondorioz, administrazio langileen artean emakumezko gehiago aurki daitezke, guztien % 53,5 alegia.

Argi dago, beraz, administrazio publikoa, sanitatea eta irakaskuntza barne, lantoki erakargarria gertatzen dela emakumezkoentzat, baina jokaera horrek badu zerikusirik aurrerago aztertuko den egoera batekin, hots, administrazioan, printzipioz behintzat, alor pribatua baino berdintasun handiagoa nabari dela laneratzeko baldintzei eta alokairuei dagokienez.

2.15. TAULA Biztanleria landunaren banaketa enpresa-motaren arabera

EMPRESA-MOTA	GUZTIZKOAK		% BERTIKALAK		% HORIZONTALAK	
	EMAKUMEAK GIZONAK		EMAKUMEAK GIZONAK		EMAKUMEAK GIZONAK	
Enpresa pribatua	139,1	359,6	73,4	86,9	27,9	72,1
Enpresa publikoa	2,9	12,9	1,5	3,1	18,3	81,6
Administ. publikoa	47,6	41,3	25,1	9,9	53,5	46,5
GUZTIRA	189,5	413,8	100,0	100,0	31,44	68,6

Iturria: PRA 1990eko 1. sei hilabetekoa.

ONDORIOZTAPENAK

2.8

Euskal Herrian, eta bertako emakumezkoengan batipat, langabeziak duen eragin handia dela medio, emakumezkoen ihardutze-tasa iharduera tasa baino 10 puntu gutxiagoz agertzen zaigu, horrela, 16 urte edo gehiago dituzten euskal emakumezkoen % 26,9ak besterik ez dihardu lanean, gizonezkoen proportzioak, ostera, % 60a jotzen du.

Emakumezkoek, batezbeste, 35,1 ordu ematen dituzte lanean aste bakoitzeko, gizonezkoek baino lau ordu gutxiago, eta ihardunaldi partzialeko lana nahiko urria da oraindik Euskal Herrian.

Lanean diharduten emakumezkoen gehiengoa, % 77,7a hain zuzen, lau lanbide-taldetara biltzen da: % 29,4ak zerbitzu pertsonaletan zein etxekoetan eta ostalaritzan dihardu, % 19,5a administrari laguntzailea da, % 15,5a merkataria nahiz saltzailea eta % 13,3a teknikaria edo erdi-mailako profesionaria, O.H.O.ko irakaslea edo erizaina, funtsean. Emakumezko gehienak lanbide jakin hauetara mugatzen direnez gero, sexuaren arabera lanbide-segregazio nabarmena ageri da; eta horrela, segregazio hori ezerezteko, lanean diharduten emakumezkoen % 60ak lanbidez aldatu beharko luke.

Segregazio horrek, bestalde, eragin handia du lan merkatuaren dinamikan, laneratuz doazen emakumezkoak emakumezko kutsu argia duten lanbide horietara jotzen bait dute oraindik ere, eta lanbideok, orohar, lanbide-kategoria txikienak dituztenak eta, beraz alokairurik urrienak jasotzen dituztenak izan ohi dira.

Lanbide-segregazio horren ondorioz, lanean diharduten emakumezkoen % 80 zerbitzuen sektorean ari da, merkataritza nahiz ostalaritzan, administrazioan, sanitatean nahiz irakaskuntzan, zerbitzu pertsonaletan edota bestelako merkatal zerbitzuetan, batez ere. % 14,7 besterik ez industri sektorean, nahiz eta adarren batetan emakumezko ugari ari den, ehungintzan, jantzigintzan eta oinetakogintzan, batipat; eraikuntzari dagokionez, oso proportzio urrian ageri zaizkigu, % 1,7 baino ez dira emakumezkoak eta hauetako gehienak administrazio-lanetan aritzen dira. Nekazaritzan lan egiten duten emakumezkoen proportzioa gizonezkoenaren parekoa da, % 2,9 eta % 3,3 hurrenez hurren, baina emakume hauetako gehienak 45 urtez gorakoak dira eta, beraz, proportzio hori gutxituz joango da.

Emakume landunen % 78 alokairupeko langileak dira, % 1,5 kooperatibakideak, % 1 bere ardurapeko langileak dituen enpresaria, % 13,8 enpresari indibidualak eta langile autonomoak eta % 5,8 famili negozioetan laguntzen dutenak. Banaketa hau eta lanean diharduten gizonezkoena antzerakoak dira, alabaina, proportzio askozaz ere handiagoa dagokie gizonezkoen enpresarien eta kooperatibakideen kasuan eta dexente txikiagoa famili negozioetan laguntzen dutenen kasuan.

Alokairupeko biztanleriaren lanbide-egoeraren arabera banaketari dagokionez, emakumezkoen ia erdia, % 44,2, zehaztu gabeko enplegatuen kategorian agertzen da; aitzitik, gizonezkoen laurdena besterik ez dago kategorian horretan. Zuzendaritza-taldeetan, bestalde, oso emakume gutxi agertzen da; teknikarien artean, aldiz, garrantzizko proportzioak nabari dira, maistra eta erizainen artean, batez ere, eta administrazio lanetan gehiengoa dagokie. Industri sektoreko kategorietan, berriz, oso emakume gutxi agertzen dira, are gutxiago kategoriaz igo ahala.

Azkenik, enpresa-motari dagokionez, alokairupeko langile gehienek enpresa pribatuan lan egiten badu ere, emakumezkoen proportzioak % 73,4a jotzen du eta gizonezkoenak % 86,9a. Hortaz, emakumezkoek presentzia nabarmenagoa dute administrazio publikoan, alokairupeko emakume guztien % 25,1 administrazioan ari da, gizonezkoen portzentaia, aldiz, % 9,9koa da eta, ondorioz, administrazio langileen artean emakumezko gehiago dago, % 53,5 hain zuzen.

3

EMAKUMEZKOAK NEKAZARITZAN, ETXEKO LANETAN, EZKUTUKO EKONOMIAN ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN

3.1

SARRERA

Honako kapitulu honetan, emakumezko langilegoaren garrantzizko zati bat bildu izan ohi duten iharduera adarretako hirutan, hau da, nekazaritzan, etxe-zerbitzuan eta administrazio publikoan lan egiten duten emakumezkoen ezaugarri nagusiak aztertuko dira, eta baita ezkutuko ekonomia deiturikoan ari direnenak ere, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak 1988-1989 urtean moldatutako Lan Merkatuari buruzko Zentsutik eta EUSTAT, Estatistikarako Euskal Institutuak moldatutako 1990.eko 1. seihilabetealdiko P.R.A. delakotik ateratako informazioa abiapuntutzat harturik.

3.2

EMAKUMEZKOAK NEKAZARITZAN

4.000 eta gutxi dira nekazaritzan eta abeltzantz lan egiten duten emakumezkoak, hau da, emakume landunen % 1,8, eta badute ezaugarri nagusi eta berezi bat, batezbesteko adin handia, alegia, sektore bereko gizonezkoena ere gainditzen duena. Nekazaritzan diharduten emakumezkoen % 63k 45 urte baino gehiago ditu, emakume landun guztien artean, berriz, % 21,1ek baino ez dute adin hori gainditzen. Gehienak ezkonduak dira, % 80,9, eta ia denek, % 92,4, lehen mailako ikasketak dituzte.

Alor bereko gizonezkoen artean gertatzen den bezala, oso gutxi dira alokairuren bat jasotzen duten emakumezkoak, % 4,5 hain zuzen, gehienak langile autonomoak dira, % 66,9, gizonezkoak baino proportzio txikiagoan, ordea, % 83,2; alabaina, emakumezkoen proportzioa gizonezkoena baino dexente handiagoa da famili ustiapenetan ari direnen artean, % 28,6 eta % 9,1 hurrenez hurren.

Emakume nekazarien laurdenak lantzean behingo lana betetzen badu ere, familiaren ustiapenetan lan egiten dutenen proportzioarekin bat datorren portzentaia, alegia, astero, batezbeste, lanean emandako ordu-kopurua emakume landunen multzoarena baino handiagoa da, eta % 41ek astero 40 ordu baino gehiago ematen duela lanean aipatu beharra dago.

Emakumezkoak nekazaritzan nahiz abeltzantz partaidetza handia izan ohi badu ere, gaur egun nabarmenki gutxituz doa eta aurreko kapituluan azaldu den bezala, azkenengo lau urteetan zehar, sektore honetan, arrantza barne, lan egiten duten emakumezkoen proportzioa erdira jaitsi da, eta gehiengoaren adin handia dela medio, proportzio hori gehiago jaitsiko bide da etorkizunean.

3.1. TAULA Nekazaritzan diharduen biztanleriaren ezaugarri nagusiak. (Portzentaia berti- kalak aldagai bakoitza)

	NEKAZAL BIZTANLERIA		BIZTANL. LANDUNA	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
Adina:				
16-24	5,9	9,8	16,2	9,6
25-34	13,7	16,8	39,9	26,9
35-44	17,4	15,5	22,8	28,0
45-54	20,7	20,4	13,0	21,4
55-64	39,0	33,7	7,3	13,2
65 edo gehiago	3,3	3,7	0,8	0,7
Egoera zibila:				
Ezkongabeak	19,1	46,2	44,2	30,4
Ezkondutak	80,9	53,8	55,8	69,6
Ikasketak:				
Lehen mailakoak	92,4	84,2	32,4	45,2
Bigarren mailakoak	6,8	13,7	44,7	41,2
Goi-mailakoak	0,7	2,1	22,9	13,6
Lanbide-egoera:				
Autonomoa	66,9	83,2	14,8	16,4
Famili laguntza	28,6	9,1	5,8	1,4
Alokairupekoa	4,5	7,7	79,5	82,2
Ihardutzea:				
Etengabekoa	73,1	91,1	97,9	99,4
Lantzean behingoa	26,9	8,9	2,1	0,6
Astero lanean emandako orduak:				
15 ordu baino gutxiago	8,7	2,4	4,5	0,7
15-29 ordu	14,6	4,6	15,5	3,9
30-39 ordu	17,1	7,0	25,7	19,5
40 ordu	18,5	24,3	37,1	55,7
41-44 ordu	18,8	26,1	6,0	3,5
44 ordu baino gehiago	22,2	32,0	11,3	16,6
GUZTIRA (Milatan):	4,22	10,35	233,0	498,0

Iturria: Lan merkatuari buruzko zentsua, PRA 1990eko 1. sei hilabetekoa.

EMAKUMEZKOAK ETXE-ZERBITZUAN

3.3

Etxe-zerbitzuan lan egiten duten emakumezkoen kopurua 17.000tik gorakoa da, hau da, lanean diharduten emakumezkoen % 7,4a, lan horretan diharduten gizonezkoak, berriz, 1.000 inguru besterik ez dira. Etxe-zerbitzuan lan egiten duten emakumezko gehienek 35 urte baino gutxiago ditu, % 67,7ak alegia, 25 urtez beherakoei proportzio handia dagokielarik, guztien

% 40,6a hain zuzen, nahiz eta emakumezko biztanleria osoaren % 16,2a baino ez dagokien. Gizonezkoen kasuan, ordea, gehienek 45 urte baino gehiago dituzte.

Etxe-zerbitzuan enplegatutako emakumezkoen % 64,8 ezkongabeak dira, eta, orohar, gazteak diren arren, euren batezbesteko ikasketa-maila emakume landunen multzoarena baino askozaz ere eskasagoa da, izan ere, gehienek, % 77,7, lehen mailako ikasketak baino ez dituzte burutu, eta % 21,3k besterik ez bigarren mailakoak.

3.2. TAULA Etxeko Lanetan diharduen biztanleriaren ezaugarri nagusiak. (Portzentaia bertikalak aldagai bakoitza)

	ETXEKO ZERBITZARIAK		BIZTANLERIA LANDUNA	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
Adina:				
16-24	40,6	5,4	16,2	9,6
25-34	27,1	9,2	39,9	26,9
35-44	12,6	7,9	22,8	28,0
45-54	11,0	19,4	13,0	21,4
55-64	7,9	54,7	7,3	13,2
65 edo gehiago	0,8	3,4	0,8	0,7
Egoera zibila:				
Ezkongabeak	64,8	14,1	44,2	30,4
Ezkonduak	35,2	85,9	55,8	69,6
Ikasketak:				
Lehen mailakoak	77,0	89,4	32,4	45,2
Bigarren mailakoak	21,3	8,7	44,7	41,2
Goi-mailakoak	1,6	1,9	22,9	13,6
lhardutzea:				
Etengabekoa	80,1	99,0	97,9	99,4
Lantzean behingoa	19,9	1,0	2,1	0,6
Astero lanean emandako orduak:				
15 ordu baino gutxiago	11,5	1,0	4,5	0,7
15-29 ordu	19,8	0,0	15,5	3,9
30-39 ordu	16,6	2,0	25,7	19,5
40 ordu	29,9	40,9	37,1	55,7
41-44 ordu	11,0	24,9	6,0	3,5
44 ordu baino gehiago	11,2	31,2	11,3	16,6
GUZTIRA (Milatan):	17,19	1,10	233,0	498,0

Iturria: Lan merkatuari buruzko zentsua, PRA 1990eko 1. sei hilabetekoa.

Etxe-zerbitzuan enplegatutako emakumezkoen % 19,9k bazterreko edo lantzean behingo lana egiten du eta astero lan horretan ematen dituzten orduak gainontzeko emakume landunek ematen dituztenak baino pixkat gutxiago dira. Hala ere, lanean emandako batezbesteko ordu-kopuruari dagokionez, desberdintasun argiak agertzen dira, hots, % 31,3k aste bakoitzeko 30 ordu baino gutxiago ematen ditu lanean, % 46,5ak 30 ordutatik 40 ordutara eta gainontzeko 22,2ak 40 ordu baino gehiago.

Beraz, etxe-zerbitzuan ari diren ia denak emakumezkoak ditugu, gehienak gazteak eta heziketa-maila oso eskasa dutenak. Horrez gainera, hurrengo kapituluan azalduko den bezala, funtsezko ezaugarri bat dakusagu, hau da, etxeetan enplegatutako emakumeetako erdiak baino gehiago Lan gizarte Segurantzaren alta eman gabe ari direla lanean, ezkutuko ekonomia deiturikoan ageri den kolektiborik garrantzizkoena delarik.

EMAKUMEZKOAK EZKUTUKO EKONOMIAN

3.4

Ezkutuko ekonomia edo enplegu irregularra deiturikoak, beren lan harremanarengatik Gizarte Segurantzaren sarturik izan beharko luketen arren, berorretatik kanpo dauden pertsonak barruhartzen ditu, emakumezkoak gehien bat, 13.500 emakume eta 5.800 gizonezko, hots, emakume landun guztien % 5,8 eta gizonezkoen % 1,1a.

Ezkutuko ekonomian diharduten emakumezko gehienak, % 67 hain zuzen, etxe-zerbitzuko enpleguak dira eta, beraz, orohar, ezaugarri berberak erakusten dituzte, hau da, gehienak 35 urtez beherakoak dira, 25 urtez beherakoei partaidetza handia dagokielarik, ezkongabeak eta ikasketa-maila oso eskasa dutenak.

Ezkutuko ekonomian ari diren gainontzeko emakumezkoak merkataritza nahiz ostalaritzako enpleguak, % 9,6, beste zenbait zerbitzutakoak, % 8,1, eta irakaskuntzan, batez ere, lan egiten duten erdi eta goi-mailako teknikariak, % 11,5, dira.

Ezkutuko ekonomian lan egiten duten gizonezkoek, aldiz, iharduera adarren arabera banaketa homogenoagoa erakusten dute, eta gehienak zerbitzu sektorean biltzen badira ere: % 21,8 merkataritza eta ostalaritzan, % 19,8 irakaskuntzan eta % 25 bestelako zerbitzuetan, garrantziko portzentaiezin agertzen dira bai industrian, % 18,3az, eta bai eraikuntzan % 11,6az. Emakumezkoak bezalaxe, gehienak 35 urtez beherakoak dira, baina ezkongabeen proportzioa dextente handiagoa da gizonezkoen kasuan, % 67, eta baita goi-mailako ikasketak dituztenena, % 17,9.

3.3. TAULA Ezkutuko enpleguan diharduen biztanleriaren ezaugarri nagusiak. (% bertikaletan aldagai bakoitza)

	EZKUTUKO EKONOMIA		BIZTANLERIA LANDUNA	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
Adina:				
16-24	41,9	36,9	16,2	9,6
25-34	23,9	34,9	39,9	26,9
35-44	27,8	14,5	22,8	28,0
45-54	10,9	5,9	13,0	21,4
55-64	5,0	6,9	7,3	13,2
65 edo gehiago	0,4	0,9	0,8	0,7
Egoera zibila:				
Ezkongabeak	56,0	67,0	44,2	30,4
Ezkondak	44,0	33,0	55,8	69,6
Ikasketak:				
Lehen mailakoak	65,0	51,1	32,4	45,2
Bigarren mailakoak	26,1	31,0	44,7	41,2
Goi-mailakoak	8,8	17,9	22,9	13,6
Lanbideak:				
Goi-mailako teknikariak	2,7	8,5	6,5	9,0
Erdi-mailako teknikariak	8,8	18,4	14,3	9,1
Enplegatuak	82,0	26,5	66,6	23,4
Langileak	6,6	46,7	12,6	58,5
Iharduera adarra:				
Nekazaritza	0,4	3,3	2,9	3,3
Oinarrizko industria	1,4	10,5	7,9	33,5
Bestelako manufakt. industriak	1,8	7,8	6,9	11,6
Eraikuntza	0,2	11,6	1,7	10,3
Merkataritza, ostalaritza	9,6	21,8	25,1	15,3
Administ., sanitatega, irakask.	11,5	19,8	24,9	7,8
Etxe-zerbitzua	67,0	0,1	15,6	0,8
Bestelako zerbitzuak	8,1	25,0	15,2	17,5
Ihardutze-modua:				
Etengabekoa	66,0	67,5	97,9	99,4
Lantzean behingoa	34,0	32,5	2,1	0,6
Astero lan egindako orduak:				
15 baino gutxiago	21,6	10,3	4,5	0,7
15-29 ordu	27,7	15,2	15,5	3,9
30-39 ordu	17,2	13,6	25,7	19,5
40 ordu	21,7	43,3	37,1	55,7
41-44 ordu	5,7	10,2	6,0	3,5
44 ordu baino gehiago	6,0	7,5	11,3	16,6
GUZTIRA (Milatan):	13,50	5,80	233,0	498,0

Iturria: Lan merkatuari buruzko zentsua, PRA 1990.eko 1. seihi.

Ezkutuko ekonomian enplegatutako emakumezkoen % 34k bazterreko edo lantzean behingoa lana dute eta astero lan egindako orduen batezbestekoa emakumezko biztanleria landunarena baino txikiagoa da, haietako erdiak gutxi gorabehera 30 ordu baino gutxiago ematen bait dituzte lanean aste bakoitzeko.

Lehenago ere aipatu den bezala, ezkutuko ekonomian lan egiten duten emakumezko gehienak etxe-zerbitzuan ari dira. Kolektibo hau salbuetsiz gero, enplegu irregularrak ikututako gainontzeko emakumezkoen kopurua eta ezaugarriak eta gizonezkoenak oso antzekoak lirateke. Beraz, ezkutuko ekonomiari datxekion emakumezko kutsua, funtsean, etxe-zerbitzarietako gehienak egoera horretan aurkitzen direlako zertu da.

EMAKUMEZKOAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN

3.5

Administrazio publikoan, sanitatea eta irakaskuntza barne, lan egiten duten emakumezkoen proportzioa oso handia da, alokairupeko emakume guztien % 25,1, alegia, gizonezkoen kopurua ere gainditzen dutelarik, hots, 47.600 emakume eta 41.300 gizonezko ari dira lanean administrazio publikoan.

Batezbesteko adinari dagokionez, gizonezkoena baino pixkat txikiagoa da, baita alokairupeko gainontzeko emakumeenarena baino, aipagarria delarik, bestalde, erdiek 25 urtetatik 34 urte-tara bitarteko adina dutela eta 25 urtez beherakoen proportzioa, gizonezkoena bezalaxe, txikia dela, % 8,8koa, alegia.

Administrazioan enplegatutako emakumezkoen ia erdiak, % 45, teknikariak dira, % 12,6 goi-mailakoak eta % 32,3 erdi-mailakoak, gehienak erizainak edo irakasleak; beste laurden bat gutxi gorabehera, % 22, administrari kategorian daude, % 7,7 administrariak ditugu eta % 14,3 laguntzaileak, eta gainontzeko % 27,2a zehaztu gabeko enplegatuen kategorian sartzen da.

Administrazioan diharduten gizonezkoen aldean, gizon bakoitzeko hiru emakume dago erdi-mailako teknikarien (maistrak eta erizainak, batipat) eta administrari laguntzaileen artean; aitzitik, zehaztu gabeko enplegatuen herena dagokie emakumezkoen eta proportzio benetan urriak zuzendarien eta peoi nahiz mandatarien artean.

Alokairuren bat jasotzen duten gainontzeko emakumezkoen aldean, berriz, administrazioan bi-koiztu egiten da teknikarien proportzioa, goi zein erdi-mailakoena, eta administrari laguntzaileen ere dextente handiagoa da; aitzitik, zehaztu gabeko kategoriako enplegatuen proportzioa erdira jaisten da eta ofizial, espezialista eta peoiena seirena.

Beraz, emakumezko landunetako multzo garrantzitsu bat aurki dezakegu administrazio publikoan, erdi-mailako teknikariak (erizainak eta maistrak) batipat, eta lehenago ere aipatu den bezala, jarrera honekin ba omen du zerikuzirik administrazioaren jokabideak, hots, laneratzeari zein alokairuei dagokienean, gizonezkoekiko berdintasun-maila handiagoa eskaintzen duela alor pribatuko erakundeek baino.

3.4. TAULA Administrazio publikoan diharduen biztanleriaren ezaugarri nagusiak. (% bertikalatan)

	ADMINIST. PUBLIKOA		ALOKAIRUPEKO BIZTANL.	
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
Adina:				
16-24	8,8	6,2	18,0	9,6
25-34	50,4	41,8	42,8	28,1
35-44	23,1	24,4	22,8	28,4
45-54	9,8	13,4	10,8	21,1
55-64	7,6	13,7	5,5	12,4
65 edo gehiago	0,3	0,5	0,1	0,4
Egoera zibila:				
Ezkongabeak	46,2	38,2	47,6	31,1
Ezkondutakoak	53,7	61,8	52,4	68,9
Lanbide-kategoria:				
Zuzendariak	0,1	0,9	0,4	1,9
Sekzio-zerbitzu buruak	2,4	2,4	1,3	5,1
Goi-mailako teknikariak	12,6	15,7	5,8	3,8
Erdi-mailako teknik.	32,3	10,3	13,2	2,9
Administrariak	7,7	6,1	9,2	3,3
Administ. laguntzaileak	14,3	3,8	8,8	1,5
Arduradunak	0,6	2,3	0,4	5,0
Ofizialak	0,4	3,3	5,7	26,1
Espezialistak	1,1	1,0	6,6	15,0
Peoi eta mandatariak	1,2	8,3	4,4	11,9
Zehaztu gabekoak	27,2	45,9	44,2	23,5
GUZTIRA (Milatan):	47,6	41,3	189,5	413,8

Iturria: PRA 1990eko 1. sei hilabetekoa.

ONDORIOZTAPENAK

3.6

Emakumezkoek, betidanik, nekazaritzan eta abeltzantzan garrantzizko presentzia izan badute ere, gaur egun presentzia hori nabarmenki gutxituz doa eta emakumezko biztanleria landunaren % 1,8ak besterik ez dihardu alor honetan. Gutxitze horren funtsezko arrazoia sektoreko emakumezkoen batezbesteko adin handian datza, % 63k 45 urte baino gehiago bait ditu. Nekazaritzan diharduten emakumezko gehienak langile autonomoak dira, % 66,9, baina aipagarria, agian, famili ustiapenetan laguntzen duten emakumezkoen proportzio handia daiteke, % 28,6.

Etxe-zerbitzuan enplegatutakoaren artean, berriz, ia denak emakumezkoak dira, eta izan ere, askotxo dira, emakume landun guztien % 7,4a jotzen bait dute. Gehienak 35 urtez beherakoak dira, 25 urtez beherako presentzia nabarmena delarik, eta gazteak izan arren, ikasketak maila oso eskasa antzematen da, gehiengo handi batek lehen mailako ikasketak baino ez ditu eta.

Ezkatuko ekonomian ari direnen artean, bestalde, gehienak emakumezkoak ditugu eta haue-
tako % 67 etxe-zerbitzariak eta, beraz, azken horienak bezalako ezaugarriak dituzte. Ezkutuko
ekonomian diharduten gainontzeko emakumezkoak merkataritza eta ostalaritzako enplegatuak
eta beste zenbait zerbitzutakoak dira edota irakaskuntzan, batez ere, lan egiten duten erdi eta
goi-mailako teknikariak.

Administrazio publikoan lan egiten duten emakumezkoen garrantzizko proportzioa dagokie alo-
kairupeko emakume guztien artean, % 25,1 alegia, guztira gizonezkoak baino gehiago direlarik.
Haien batezbesteko adina gizonezkoena eta alokairupeko gainontzeko emakumeena baino txi-
kiagoa da eta aipatzekoa da, bestalde, haietako erdiak 25 urtetatik 34 urtetara bitartekoak di-
rela. Administrazioan diharduten emakumeetako ia erdiak, % 45, teknikariak dira, maistrak eta
erizainak, batez ere, eta beste % 22 bat administrariak eta laguntzaileak. Erdi-mailako teknika-
rien eta administrari laguntzaileen artean, gizonezko bakoitzeko hiru emakume daude; aitzitik,
emakume gutxiago agertzen dira zehaztu gabeko kategoriako enplegatuen artean eta, batez
ere, zuzendarien eta peoi nahiz mandatarien artean.

4

ALOKAIRUZKO DESBERDINTASUNAK EMAKUME ETA GIZONEZKOEN ARTEAN

4.1

SARRERA

Kapitulu honetan zehar, alokairupeko emakume eta gizonezkoen arteko alokairuzko desberdintasunak aztertuko dira, bai alokairupeko biztanleria osoari dagokionez, eta bai berori osotzen duten gizatalde desberdinak ondoen mugatzen dituzten aldagaien kategoria bakoitzari dagokionez, hots: enpresarekiko lan hartuemanari, ekonomi sektoreari, lanbide-kategoriari, adinari eta egoera zibilarari dagokienez.

Alokairuei buruzko argibideak inkesta baten bidez jaso da, Iceberg Prospectiva delakoak honako azterlan honetarako espreski moldatu zuen inkesta hori alokairupeko 1.900 pertsonari, 16 urtetatik 60etara bitarteko 861 emakume eta 1.039 gizonezkoari, hain zuzen, egin zitzaienten, pertsona hauetako 1989. urtean zehar alokairupeko lan-errentengatik izandako sarrera gordinetako bukuruzko xehetasunak eskatuz. Informazio hau homogenotutako asmoz, sarrera horiek lan egindako ordu bakoitzeko jasotako pezetako gordinetan emango dira.

ALOKAIRUZKO DESBERDINTASUNAK SEXUAREN ARABERA

4.2

4.1 Taulan alokairupeko emakume eta gizonezkoen banaketa agertzen da enpresarekiko lan hartuemanaren, enpresa-motaren, ekonomi sektorearen, lanbide-kategoriaren, adinaren eta egoera zibilararen arabera sailkatuta, eta baita batezbesteko alokairua eta alokairuzko desberdintasuna ere, sexuaren arabera sailkatuta, aldagai horien kategorietako bakoitzari dagokionez.

Alokairupeko emakumezkoen multzoaren ordu bakoitzeko alokairu gordinak 799 pezetako jotzen duen bitartean, gizonezkoenak 1.019 pezetako jotzen du, hots, emakumezkoen batezbesteko alokairua gizonezkoena baino txikiagoa da % 21,6ko proportzio batez.

Batezbesteko alokairua eta alokairuzko diferentziala nabarmenki aldatzen dira enpresarekiko lan hartuemanaren arabera. Mugagabeko kontratua dutenen batezbesteko alokairuak biztanleria osoarenak baino askoz handiagoak dira, 958 emakumezkoena eta 1.123 gizonezkoena, eta haien alokairuzko diferentziala txikiagoa da, % 14,7koa, hain zuzen. Aldi baterako kontratua dutenen alokairuak, berriz, batezbesteko alokairuak baino txikiagoak dira, gizonezkoenak, batipat, 708 pezetako emakumeak eta 732 gizonezkoak, eta desberdintasun oso txikia nabari da sexu biei alokairuei dagokionez, % 3,3koa alegia. Azkenik, lan hartueman berezia dutenentzat (Gizarte Segurantzaren sisteman sartutako otseinak) edo ezkutuko ekonomian deiturikoan dihardutenentzat, alokairua asko gutxitzen da, 302 pezetako emakumeentzat eta 471 gizonezkoentzat, eta sexuaren araberrako alokairuzko diferentziala % 35,9raino iristen da.

4.1. TAULA Alokairupeko biztanleriaren banaketa eta alokairuen arteko batezbesteko desberdintasunak

	% BERTIKALAK		ALOKAIRUA (pztatan)		DIFERENTZ. (% tan)
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	
Lan hartuena:					
Mugagabeko kontrat.	61,3	75,2	958	1.123	14,7
Aldi baterako kontrat.	23,2	22,2	708	732	3,3
Hart. berezia-Ezkut. ekonom.	15,4	2,6	302	471	35,9
* Enpresa-mota:					
Pribatua	70,8	83,6	652	973	33,0
Administrazioa	26,2	10,7	1.149	1.284	10,5
* Sektorea:					
Industria	19,0	53,1	783	1.015	22,9
Zerbitzuak	80,7	37,8	803	1.084	25,9
Lanbide-kategoria:					
Zuzendaritzako pertson.	0,7	5,7	2.041	2.164	5,7
Goi-mailako teknikariak	5,2	4,9	1.597	1.716	6,9
Erdi-mailako teknikariak	16,0	11,5	1.155	1.235	6,5
Administrariak	13,9	5,1	1.012	1.123	9,9
Administrari laguntzaileak	9,2	1,3	780	773	(+) 0,9
Kategoriarik gabeko enpleg.	41,6	8,1	511	673	24,1
Arduradunak	1,2	6,9	850	1.110	23,4
Ofizial eta espezialistak	7,4	43,1	733	901	18,6
Peoiak eta ikasleak	4,8	13,4	554	622	10,9
Adina:					
16-24 urte	17,9	9,7	417	624	33,2
25-34 urte	43,7	30,9	802	914	12,3
35-44 urte	23,9	27,3	1.039	1.158	10,3
45-60 urte	14,5	32,1	863	1.122	23,1
Egoera zibila:					
Ezkongabea	42,4	27,0	692	792	12,6
Ezkondua seme-alabarik gabe	9,5	8,1	834	1.012	17,6
Ezkondua seme-alabekin	48,1	64,9	885	1.115	20,6
GUZTIRA	100,0	100,0	799	1.019	21,6

Iturria: Emakunde inkesta

* Enpresa publikoari eta nekazal eta eraikuntz sektoreari buruzko datuak ez dira agertzen, kolektibo horietako pertsona oso gutxi barruhartu bait du erabilitako laginak.

Beraz, lan hartueman berezia duten pertsonen eta ezkutuko ekonomian dihardutenek beherengo alokairuak jasotzen dituzte, bai emakumezkoek eta bai gizonezkoek. Nolanahi ere, emakumezkoak dira kaltetuenak, lehenengo eta behin, egoera horretan dauden gehiengo osotzen dutelako, egoera horretan bait daude alokairupeko emakume guztien % 15,4 eta gizonezkoen % 2,6 besterik ez, eta bigarrenik, beren batezbesteko alokairua gizonezkoena baino askoz txikiagoa delako, hauena ere oso txikia izan arren, alokairuzko diferentziala % 35,9raino iristen delarik. Lan hartueman berezia duten edo ezkutuko ekonomian diharduten alokairupeko emakumezkoen artean, gehienak gazteak dira, zerbitzu pertsonalen iharduera adarrean ari direnak: otseinak, interinak direlakoak eta kategoriarik gabeko bestelako enpleguak, alegia.

Etxe-zerbitzari edo otseinen eta ezkutuko ekonomian lan egiten duten emakumezkoen alokairuzko beherengo maila horrek, garrantzizko eragina du alokairupeko emakumezko biztanlegoaren batezbesteko alokairuan nahiz alokairuzko diferentzian eta bereziki, presentzia nabarmena dutelako aztertu beharreko gainontzeko aldagaien kategoriei dagokienetan, hots: zerbitzuen sektorea, kategoriarik gabeko enpleguak, emakume gazteak, ezkongabeak eta seme-alabarik gabeko ezkonduak, hain zuzen. Hori dela eta, behin haien alokairuzko egoera aztertutakoan, kolektibo hori laginetik kanpo utzi da eta 4.2 Taula moldatu da.

Lan hartueman berezia duten edota ezkutuko ekonomian diharduten pertsonak salbuetsiz gero, emakumezkoen ordu bakoitzeko alokairu gordina nabarmenki gehitzen da, 799 pezetatik 889 pezetatara, gizonezkoena, aldiz, ezer gutxi aldatzen da, 1.034 pezetatan gelditzen bait da, eta ondorioz, alokairuzko diferentziala % 21,6tik % 14era jaisten da.

Administrazio publikoko batezbesteko alokairuak enpresa pribatukoak baino handiagoak dira eta sexuaren arabera alokairuzko diferentzialari dagokionez, askoz txikiagoa da administrazio publikoan nabari dena, % 10,5, enpresa pribatukoa baino, % 24,2. Zerbitzuen sektoreko alokairuak ere industri sektorekoak baino handiagoak dira, tartea administrazioa eta enpresa pribatuaren artekoa baino txikiagoa bada ere, eta zerbitzuen sektoreko alokairuzko diferentziala, % 17,5, industri sektorekoa, % 22,4, baino zerbait txikiagoa da. Dena den, zerbitzuen sektoretik administrazioari dagokion enplegua ateraz gero, bai batezbesteko alokairuak eta bai alokairuzko diferentziala industri sektorekoen antzerakoak dira.

4.2. TAULA Alokairupeko biztanleriaren banaketa eta alokairuen arteko batezbesteko desberdintasunak (lan hartueman bereziko pertsonak eta ezkutuko ekonomia salbuetsita)

	% BERTIKALAK		ALOKAIRUA (pztatan)		DIFERENTZ. (% tan)
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	
Kontratu-mota:					
Mugagabea	72,5	77,2	958	1.123	14,7
Aldi baterakoa	27,5	22,8	708	732	3,3
Enpresa-mota:					
Pribatua	65,8	83,4	748	987	24,2
Administrazioa	30,8	10,9	1.155	1.290	10,5
Sektorea:					
Industria	21,8	54,1	792	1.020	22,4
Zerbitzuak	77,9	37,1	918	1.113	17,5
Lanbide-kategoria:					
Zuzendaritzako pertson.	0,8	5,8	2.041	2.164	5,7
Goi-mailako teknikariak	5,8	5,0	1.678	1.716	2,2
Erdi-mailako teknikariak	18,5	11,6	1.168	1.248	6,4
Administrariak	16,5	5,2	1.012	1.123	9,9
Administrari laguntzaileak	10,9	1,4	780	773	(+) 0,9
Kategoriarik gabeko enpleg.	32,6	7,3	626	691	9,4
Arduradunak	1,4	7,1	850	1.110	23,4
Ofizial eta espezialistak	8,5	43,6	746	908	17,8
Peoiak eta ikasleak	5,1	12,9	564	635	11,2
Adina:					
16-24 urte	11,3	8,7	550	647	15,0
25-34 urte	45,7	30,3	860	934	7,9
35-44 urte	27,2	28,1	1.065	1.158	8,0
45-60 urte	15,8	32,9	912	1.122	18,7
Egoera zibila:					
Ezkongabea	37,2	25,7	835	817	(+) 2,2
Ezkondua seme-alabarik gabe	10,3	8,1	881	1.025	14,0
Ezkondua seme-alabekin	52,5	66,2	929	1.119	17,0
GUZTIRA	100,0	100,0	889	1.034	14,0

Iturria: Emakunde inkesta

Lanbide-kategorien arabera, ia baliogabeko alokairuzko diferentziala antzeman daiteke administrari laguntzaileen eta goi-mailako teknikarien artean; txikia da, % 6koa gutxi gorabehera, zuzendariei eta erdi-mailako teknikariei dagokienez; % 10 ingurukoa administrariantzat, kategoriarik gabeko enplegatuentzat eta peoi eta ikasleentzat, eta asko gehitzen da ofizialen eta espezialisten kasuan, % 17,8, eta bereziki, arduradunen kasuan, % 23,4. Teknikarien eta zuzendarien kasuan, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko alokairuzko diferentziala hain txikia izatearen arrazoia zera da, talde horietako emakumezko gehienek administrazio publikoan lan egiten dutela eta administrazioko alokairuak, batezbeste enpresa pribatukoak baino handiagoak direla.

Adin-multzoka, bestalde, alokairuzko diferentzial handia antzematen da 25 urtez beherako emakumezkoentzat eta 44 urtez gorakoentzat, % 15 eta % 18,7koa hurrenez hurren, eta % 8 inguruan mantentzen da 25 eta 44 urte bitartekoentzat. 25 urtez beherako eta 44 urtez gorako emakumezkoek dagokien alokairuzko diferentzial handia, alokairu urria duten kategoriarik gabeko enplegatu asko eta erdi nahiz goi-mailako teknikari eta administrazio enplegatu gutxi izatetik ondorioztatzen da.

Egoera zibilar dagokionez, berriz, emakume ezkongabeen batezbesteko alokairua ezkongabeko gizonezkoena baino pixkat handiagoa da, % 2,2a alegia, alabaina ezkonduen artean alderantziz gertatzen da, gizonezkoen aldeko alokairuzko diferentziala % 14koa bait da seme-alabarik ez dutenentzat eta % 17koa seme-alabak dituztenentzat. Aipagarria da, batezbeste, emakume ezkongabeek halako gizonezkoek baino alokairu handiagoak izatea. Hau, bestalde, aldi baterako kontratuekin lan egiten dutenen eta peoi nahiz ikasleen artean, hots, alokairu urriak jasotzen dituzten kolektibo horietan, ezkongabeko emakumeak baino gizonezko gehiago dagoelako gertatzen da. Horrez gainera, kontutan izan behar dugu lagin honetatik lan hartueman berezia duten pertsonak eta ezkutuko ekonomian dihardutenak atera direla, eta horietako gehienak alokairu oso eskasak dituzten emakume ezkongabeak direla.

Behin emakume eta gizonezkoen arteko alokairuzko desberdintasunak, hala alokairupeko biztanleria osoaren arabera, nola berori mugatzen duten aldagai nagusien kategorietako bakoitzaren arabera aztertutakoan, ondorengo bi ataletan zehar, desberdintasun horien kausak zehazteari ekingo zaio. Horretarako, lehendabizi, lanbide-segregazioak alokairuzko diferentzian zernolako eragina izan dezakeen mugatzeari ekingo zaio, eta, ondoren, lan merkatuan eta ekonomia ikuspegitik, pertsona batek balorazio handiagoa lortzeko baliagarriak diren faktoreei dagokionez, hau da, heziketa-maila, esperientzia, disponibilitatea, eta abarrei dagokienez, emakume eta gizonezkoen artean dauden desberdintasunek zenbaterainoko eragina izan lezaketen diferentzial horretan neurtzeko ekingo zaio.

ALOKAIRUZKO DESBERDINTASUNAK ETA LANBIDE-BEREIZKETA

4.3

Txostenaren bigarren kapituluaren erakutsi denez, sexuaren arabeko lanbide-segregazio argi bat dago, eta berorren ondorioz lanbide jakin batzuk emakumezko kutsuaz jantzita agertzen zaizkigu eta gainontzekoak gizonezko kutsuaz. Emakumezko kutsua duten lanbide gutxi horietara biltzen da alokairupeko emakumezko biztanleriaren gehiengoa eta lanbideok, orohar, maila txikienekoak eta, beraz, alokairurik urrienak jasotzen dituztenak dira.

Sexuaren arabeko alokairuzko diferentzialaren zati bat lanbide-bereizketaren ondorioz sortzen da, eta, batetik, emakumezkoen benetako batezbesteko alokairuaren, eta bestetik, emakumezkoak lanbide desberdinetan gizonezkoen era berberean banandu eta lanbide bakoitzeko emakumezkoen batezbesteko alokairua jasoz lortuko luketenaren arteko diferentziari dagokio.

Planteamendu teorikoa oso erraza bada ere, praktikara eramaterakoan agertzen dira eragozpenak, zeren, azterlan hauetan ohizkoa dena kontutan harturik, erabilitako lagina nahiko handia

den arren, ez du alokairupeko biztanleria lanbideka zehazki sailkatzeko biderik eskaintzen, alokairuei buruzko informazio oso ezegonkorra sortuko bait litzateke. Eragozpen hori gaindituz gero ere, beste oztopo bat aurkituko genuke, hots, lanbide askotxotan gizonezkoek eta emakumezkoek, edo horietako zenbaitek behinik behin, betetzen dituzten funtzio edo eginkizunak ez dira berdinak. Esate baterako, gerta daiteke garbiketan enplegatutako gizonezko eta emakumezkoak eginkizun oso desberdinetan aritzea, lanbide berbera duten arren.

Aipatutako eragozpenez gaindi, azterketari ekingo zaio, nahiz eta jakin badakigun lortuko den emaitza lanbide-segregazioak sexuaren arabera alokairuzko desberdintasunetan duen benetako eraginari "nekez" inguratuko zaiola.

4.3 Taulan alokairupeko emakumezkoen biztanleria nola banatzen den hamazortzi lanbide edo lanbide-multzotan erakusten du, eta baita lanbideotako bakoitzari dagokion sexuaren arabera batezbesteko alokairua ere. Hemengo lanbideak ez datoz bat txostenaren bigarren kapituluaren agertzen direnekin, kasu honetan emakumezkoen partaidetza handia duteneko lanbideak, batez ere, hartu bait dira kontutan. Disimilaritate-indize bera erdiesten da, eta lanbide-bereizketa edo segregazioa ezerezteko, emakumezkoen % 60k lanbidez aldatu beharko luketela adierazten du.

4.3. TAULA Alokairupeko biztanleriaren banaketa lanbideen arabera eta batezbesteko alokairua lanbideka

LANKIDEAK	% BERTIKALAK		ALOKAIRUA		DIFERENTZ.
	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	
Etxe-enplegatua	10,2	0,0	265	—	—
Ume, zaharren zaintzailea	3,4	0,0	344	—	—
Garbiketa zerbitzuko enplegatua	7,7	0,8	566	886	36,1
Zerbitzaria, sukaldaria	5,6	1,9	629	679	7,4
Saltzailea	8,6	2,5	559	625	10,6
Kategoriarik gabeko beste enpl.	2,3	7,8	420	784	46,4
Langilea: Peoi edo ikaslea	4,6	13,1	558	620	10,0
Langilea: Ofizial edo espezialista	7,4	39,2	741	905	18,1
Arduraduna	0,3	6,3	879	1.128	22,1
Klinikako laguntzailea	4,8	0,0	946	—	—
Administrari laguntzailea	9,2	1,3	780	779	0,0
Administraria	13,9	5,2	1.012	1.115	9,2
Kualifikatu gabeko teknikaria	2,7	4,3	865	1.068	19,0
Maisu/maistra	7,5	1,5	1.283	1.351	5,0
Erizaina	2,4	0,3	1.232	1.188	(+) 3,7
Erdi-mailako beste teknikariak	3,4	5,3	1.017	1.341	24,2
Goi-mailako teknikaria	5,2	4,9	1.597	1.716	6,9
Zuzendaritzakoa	0,7	5,7	2.041	2.164	5,7
GUZTIRA	100,0	100,0	799	1.019	21,6

Iturria: Emakunde inkesta.

4.3 taulako datuen arabera, emakumezkoak gizonezkoen era berebieran lanbide desberdinen artean banandu eta lanbide bakoitzeko emakumezkoen batezbesteko alokairua jasoko balute, alokairu hori 854 pezetatakoa litzateke, hau da, orain irabazten dutena baino 55 pezeta gehiago jasoko lukete. Alokairuzko diferentziala 220 pezetatakoa denez gero, 55 pezeta horiek guz-

tizko diferentzialaren laurdena jotzen dute eta, beraz, lanbide-segregaziorik ez balego, sexuaren arabera alokairuzko diferentziala % 21,6tik % 16,2ra jaitsiko litzateke.

Nolanahi ere, lehenago aipatu den bezala, lortutako emaitza ez du lanbide-segregazioak sexuaren arabera alokairuzko desberdintasunetan duen eragina zehazten, eta berorrenaganako inguratze "txar" bat bezala har genezake, benetako eraginaren behetik gelditzen dena, beti ere.

Alokairuzko diferentzialaren gainontzeko zatia, hots, azaltzeke gelditzen dena, lanbide bakoitzean suertatzen diren sexuaren arabera alokairuzko desberdintasunen ondorioa litzateke, desberdintasunok, bestalde, hurrengoongatik ematen direlarik: lehendabizi, funtzioen bereizketak edo segregazioarengatik, hau da, lanbide berbera izan arren, emakume eta gizonezkoek, edo berauetako hainbatek behinik behin, eginkizun desberdinetan dihardutelako, eta bigarrenik, alokairuzko diskriminazio zuzenarengatik, izan ere, eginkizun edo funtzio berberak izan arren, emakumezkoek gizonezkoek baino alokairu txikiagoak izaten dituztelako.

Orain arte ikusitakoaren arabera, ezin da zehaztu aipatutako hiru kausetako zeinek, hau da, lanbide-segregazioak, funtzioen segregazioak edo alokairuzko diskriminazioak duen eragin handiagoa sexuaren arabera alokairuzko desberdintasunari dagokionean; hala ere, Azterlan honen bigarren zatian, hots, "Emakumeak lan merkatuan duen partaidetzari buruzko eritzi eta jarrerak" deiturikoan bildutako informazioaren arabera, segregazioa litzateke, bai lanbide mailakoa eta bai funtzio mailakoa, alokairuzko desberdintasunaren kausa nagusia. Informazio horrek erakusten duenez, beren enpresetan eurek burutzen duten eginkizun berberean ari diren gizonezkoak daudela dioten alokairupeko emakumezkoen % 23k haiek baino gutxiago irabazten dutela baieztatu dute. Alokairuari dagokionez bere burua baztertutzat jotzen duen emakume-talde honek alokairupeko emakumezko guztien % 14a osotzen du.

Gauzak honela, esan daiteke, hein handi batez bederen, lanbide eta funtzio segregaziotik ondorioztatzen dela sexuaren arabera alokairuzko diferentziala, zeren, alokairuzko diskriminazio zuzena garrantzizko faktorea izan ohi den arren, gaur egun segregazioak baino eragin txikiagoa du, nahiz eta hainbat emakumek jasaten duen oraindik ere.

Dena den, ez da aiantzi behar lanbide eta funtzio segregazioaren ondoriozko emakume eta gizonezkoen arteko alokairuzko diferentzialaren zati baten jatorrian zera dagoela, sarritan balio ekonomiko berbera duten lan desberdinengatik soldata txikiagoak ordaintzen direla baldin eta lanotan gehien bat emakumezkoek badihardute.

Hortaz, gogoratu beharra dago Europako Elkarteko 75/117 Zuzentarauak erabereko lanbide-sailkapenerako sistema baten beharra aipatzen duela, emakume nahiz gizonezkoentzako erizpide amankomunak oinarritzat hartu eta sexuan sustraitutako bereizkeriak salbuetsi dezan sistema, alegia. Zuzentaru hori betez, Europako Elkarteen Justizi Auzitegiak zenbait sententzia eman ditu, Rumler-Dato Drunck kasuarena, esate baterako, zeinetan haxe adierazten den: "lan berberak edo balio bera atxekitzen zaion lan batek ordainketa berbera jaso behar du, gizonezko batek ala emakumezko batek egina izan arren".

Azkenik, eta laginketaren tamainua dela eta emaitza oso ezegonkorrak ateratu daitezkeelako, lanbide-segregazioak alokairupeko emakume-talde desberdinen batezbesteko alokairuetan duen eraginari buruzko emaitzak agertzen ez badira ere, aipatu behar da eragin hori nabarmenago agertzen dela sexuaren arabera alokairuzko diferentzial handienak dagozkien emakume-taldeengan, hau da, 25 urtez beherako eta 44 urtez gorakoak, seme-alabarik gabeko ezkonduak eta enpresa pribatuko enplegatuak.

Sexuaren araberako alokairuzko desberdintasunaren zati bat emakume eta gizonezkoen artean batezbeste dagoen ekoizmen mailako desberdintasunari lotuta egon daiteke, hau da, lan merkatuan eta ekonomiaren aldetik pertsona batek balio handiagoa izan dezan eragiten duten faktoreei dagokienez antzematen diren desberdintasunei: heziketa, esperientzia, disponibilitatea, dedikazioa...

Planteamendu honen arabera, sexuaren araberako alokairuzko diferentzialaren gainontzeko zatia sexu-diskriminaziotik soilik ondorioztatuko litzateke, dela lanbide edo funtzio-segregazioarengatik, dela alokairuzko diskriminazio zuzenarengatik, nahiz eta ekoizmen mailako desberdintasun batzu ere sexu-diskriminazioaren ondorioz sortuak izan daitezkeen.

Aipatutako helburua erdiesteko, Mincer-ek proposatutako eredu teorikoa erabiliko da. Eredu horrek, lehenengo eta behin, erregresio linealeko analisi anizkun baten bidez, gizonezko eta emakumezkoen batezbesteko alokairuak zenbatesten ditu banandurik eta pertsona baten ekoizteko gaitasuna edo ekoizmen maila mugatzen duten faktoreen arabera. Ondoren, sexuen arteko ekoizmen mailako desberdintasunaren balio ekonomikoa kalkulatzeko du aurreko kalkuluan gizonezko eta emakumezkoen batezbesteko alokairuak mugatzeko erabiltzen diren ekoizpenezko faktoreetan antzemandako diferentzien arabera, faktore horietako bakoitza gizonezkoen alokairuaren zenbatespenean lortutako prezio baterakoian balioztatuz. Azkenik, balio hori sexuaren araberako alokairuzko diferentzialetik kenduz sexu-diskriminazioari dagokion zatia erdiesten da.

Eredua erabiltzean eta kalkuluak errazteko, alokairuen logaritmo neperianoen zenbatespenak hartzen dira abiapuntutzat:

$$\text{Alok}_G \text{ Ln} = a * \text{Ek}_G$$

$$\text{Alok}_E \text{ Ln} = b * \text{Ek}_E$$

Eta alokairuzko zenbatespenetatik, sexuaren araberako alokairuzko diferentzialaren atalbanaketa, bere bi ataletan, hau da: ekoizmen mailako desberdintasunari dagokiona eta sexu-diskriminazioari dagokiona, hurrengo transformazioaren bidez erdiesten da:

$$\begin{aligned} \text{Alok}_G \text{ Ln} - \text{Alok}_E \text{ Ln} &= a * \text{Ek}_G - b * \text{Ek}_E \\ (\text{Alok}_G / \text{Alok}_E) \text{ Ln} &= a * \text{Ek}_G - a * \text{Ek}_E + a * \text{Ek}_E - b * \text{Ek}_G \\ &= a * (\text{Ek}_G - \text{Ek}_E) + \text{Ek}_E * (a - b) \end{aligned}$$

$$\begin{aligned} (\text{Alok}_G / \text{Alok}_E) &= \text{Ln alokairuzko diferentzialaren logaritmoa} \\ a * (\text{Ek}_G - \text{Ek}_E) &= \text{ekoizmen mailako desberdintasuna eta} \\ \text{Ek}_E * (a - b) &= \text{sexu-diskriminazioa direlarik.} \end{aligned}$$

Azterlan honetan, gai honi buruzko nazioarteko azterlan gehienetan bezalaxe, pertsona bakoitzaren ekoizmen maila mugatuko da heziketaren, lan esperientziaren eta famili kargen arabera. Beste zenbait faktore ere sartu nahi izan dira, disponibilitatea, dedikazioa eta norberaren lanarekiko motibazioa kasu, baina lortutako emaitzak ez dira egokiak izan, seguruenik erabili den inkesta, masiboa izaki, faktoreok neurtzeko tresnarik egokiena ez delako inondik ere.

Kontutan hartutako hiru faktoreok neurtzeko hurrengo aldagaiok erabili dira:

1. Heziketa:

- Eskolatzeko urte kopurua (IKAS)
- Azken hiru urteetan zehar ikastaroetan emandako ordu kopuruaren bigarren erroa (IKTA)

2. Esperientzia:

- Lanean emandako urte kopuruaren bigarren erroa (URTE)
- Kontratu-amaiera, botatzea, famili arrazoiak eta abarrak direla eta zenbat aldiz utzi behar izan duen lana (LANA)
- Lan iharduerari ekin zitzaionetik lan egin gabe egon deneko hilabete kopuruaren bigarren erroa (TARTE)

3. Famili kargak:

- Etxean elkarrekin bizi direnen kopurua (ETXE).
- Astegunetan, astelehenetik ostiralera, etxeko eginkizunetan emandako ordu kopuruaren bigarren erroa (EGIK)

Ondoren gizonezko eta emakumezkoentzat zenbatetsitako alokairuzko ekuazioak eta erregresio linealeko analisi aniztuna aplikatuz lortutako informaziorik garrantzizkoena azaltzen dira:

$$\ln Alok_G = 5,512 + 0,161 \cdot URTE_G + 0,062 \cdot IKAS_G - 0,025 \cdot TARTE_G + 0,011 \cdot IKTA_G$$

$$\ln ALOK_E = 4,740 + 0,232 \cdot URTE_E + 0,094 \cdot IKAS_G - 0,071 \cdot LANA_E + 0,010 \cdot IKTA_E$$

GIZONEZKOAK

Step	MultR	Rsq	AdjRsq	F(Eqn)	SigF	RsqCh	FCh	SigCh	Variable	BetaIn	Correl	Medias
1	0,3579	0,1281	0,1273	152,353	0,000	0,1281	152,353	0,000	ESTU	0,3579	0,3579	10,518
2	0,6274	0,3936	0,3925	336,257	0,000	0,2655	453,657	0,000	URTE	0,5745	0,3039	4,168
3	0,6506	0,4232	0,4216	253,164	0,000	0,0296	53,136	0,000	CURSO	0,1805	0,2351	4,422
4	0,6586	0,4337	0,4315	197,975	0,000	0,0105	19,115	0,000	INTER	-0,1046	-0,2071	1,450
5	0,6619	0,4381	0,4354	161,105	0,000	0,0044	8,150	0,004	TRABA	-0,0720	-0,1558	1,582

EMAKUMEZKOAK

Step	MultR	Rsq	AdjRsq	F(Eqn)	SigF	RsqCh	FCh	SigCh	Variable	BetaIn	Correl	Medias
1	0,4372	0,1911	0,1902	202,939	0,000	0,1911	202,939	0,000	ESTU	0,4372	0,4372	11,228
2	0,6497	0,4221	0,4208	313,387	0,000	0,2310	343,030	0,000	URTE	0,5069	0,3168	3,311
3	0,6601	0,4358	0,4338	220,627	0,000	0,0136	20,710	0,000	CURSO	0,1286	0,3322	4,757
4	0,6703	0,4493	0,4467	174,572	0,000	0,0135	20,978	0,000	TRABA	-0,1168	-0,1799	1,439

Ekuazio bietan azaldutako aldakuntza % 45 ingurukoa da, eta eskolatzeko urte kopurua eta lanean emandako urte kopuruaren ondorio da, batez ere, beroriek bait dira emakume eta gizonezkoen alokairuetan eragin handiena duten aldagaiak. Gainontzeko aldagaiek ezer gutxi gaineratzen dute.

Eskolatze urteak delako aldagaiaren koefizientea handiagoa da emakumezkoentzat, 0,094 eta 0,062, hurrenez hurren. Honek zera adierazten du, eskolatze urteak gehitu ahala, emakume baten alokairua areago gehituz doala gainontzeko emakumezkoen alokairuaren aldean, gizonezkoen kasuan baino. Alabaina, horrek ez du esan nahi emakumezkoen eskolatze urtea gizonezkoena baino gehiago ordaintzen denik.

Lanean emandako urteak delako aldagaiari ere antzerako zerbait antzematen zaio, emakumezkoen koefizientea gizonezkoena baino handiagoa bait da, 0,232 eta 0,161 hurrenez hurren. Beraz, emakumezkoak, alokairupeko gainontzeko emakumeekiko, gizonezkoak gainontzeko gizonezkoekiko baino etekin handiagoa ateratzen duela ikasketa-mailatik eta esperientziatik esan daiteke.

Famili kargak neurtzen dituzten aldagaiak, berriz, etxebizitzan elkarrekin bizi diren pertsonen kopurua eta etxeko eginkizunetan emandako orduen kopurua, hain zuzen, zenbatetsitako ekuazioetan agertu ere ez dira egiten. Aldagaion eta orduko alokairu gordinaren arteko korrelazioak hutsala da bai emakumezkoentzat eta bai gizonezkoentzat, eta ez da gehitzen kategorietako bakoitza adinaren, egoera zibilaren eta abarren arabera bananduta kontutan harturik ere.

Beraz, famili kargak emakumezkoen alokairuetan izan dezaketen eragina ez dela berehala nabaritu eta urteak aurreratu ahala antzemango dela pentsa daiteke. Horrez gainera, esan beharra dago famili kargak mugatzeko erabili izan diren aldagaiok, famili erantzunkizuntzat zentzurik zabalenean jotzen direnen zati bat besterik ez direla, garrantzizkoa baina zati bat. Izan ere, logikaz pentsa bait daiteke famili erantzunkizunok, lan merkatutik irteterakoan, edo kasua balitz, bertaratzekoan izaten duten garrantziaz gainera, badutela eraginik emakumezkoen alokairuei dagokienean.

Alokairuzko zenbatespenetatik abiatuta, sexuaren arabera alokairuzko diferentzialaren atalbanaketa, bere bi ataletan, ekuazio bien arteko kenketa egin eta hurrengo transformazioaren bidez erdiesten da:

$$\begin{aligned} \ln(A_{ok_G}/A_{ok_E}) &= (5,512 - 4,740) \\ &+ 0,161*(URTE_G - URTE_E) && - 0,071*URTE_E \\ &+ 0,062*(IKAS_G - IKAS_E) && - 0,032*IKAS_E \\ &- 0,025*(LANA_G - LANA_E) && + 0,046*LANA_E \\ &- 0,017*(TARTE_G - TARTE_E) && - 0,017*TARTE_E \\ &+ 0,011*(IKTA_G - IKTA_E) && + 0,001*IKTA_E \end{aligned}$$

$$\begin{aligned} \ln(A_{ok_G}/A_{ok_E}) &= 0,772 \\ &+ [0,161*(URTE_G - URTE_E) - 0,025*(LANA_G - LANA_E) - 0,017*(TARTE_G - TARTE_E)] \\ &+ [0,062*(IKAS_G - IKAS_E) + 0,011*(IKTA_G - IKTA_E)] \\ &- [0,071*URTE_E - 0,064*LANA_E + 0,017*TARTE_E + 0,032*IKAS_E - 0,001*IKTA_E] \end{aligned}$$

$$\ln(A_{ok_G}/A_{ok_E}) = 0,072 + A + B - C = A + B + (0,072 - C)$$

A= esperientzia mailako desberdintasunen ondoriozko diferentzial-zatia.

B= heziketa mailako desberdintasunen ondoriozkoa.

(0,772 - C)= kontutan hartu ez diren faktoreen desberdintasunen eta sexu-diskriminazioaren ondoriozkoa.

Eta aldagai bakoitzaren ordean bere batezbesteko balioa jarri gero, zera erdiesten da:

$$\ln (Alok_G/Alok_E) = 6,819 - 6,505 = 0,314$$

$$A = 0,161 \cdot (4,168 - 3,311) - 0,025 \cdot (1,582 - 1,439) - 0,017 \cdot (1,450 - 2,478) = 0,152$$

$$B = 0,062 \cdot (10,518 - 11,228) + 0,011 \cdot (4,422 - 4,757) = -0,048$$

$$(0,772 - C) = 0,772 - 0,071 \cdot 3,311 + 0,046 \cdot 1,439 - 0,017 \cdot 2,478 - 0,032 \cdot 11,228 + 0,001 \cdot 4,757 = 0,206$$

Gizonezko eta emakumezkoen arteko lan esperientzia mailako diferentziak, besterik gabe, sexuaren arabera alokairuzko diferentzialaren erdia, % 48,4 ($0,152/0,314$), sortarazten du. Alokairuzko emakumezkoen batezbesteko heziketa-maila gizonezkoena baino zerbait handiagoa denez, heziketak era negatiboan azaltzen du alokairuzko diferentziala, $-\% 15,3$ ko balioaz ($-0,048/0,314$). Hortaz, gizonezko eta emakumezkoen artean esperientzia eta heziketa mailan dauden diferentziagatik azaldutako alokairuzko diferentzialaren proportzioa, % 33,1koa da, gainontzeko % 66,9a azterketan kontutan hartu ez diren faktoreetako diferentziak eta sexu-diskriminazioa direla medio sortzen da.

Beraz, sexuaren arabera alokairuzko diferentzialaren heren bat baino ez dagokie emakume eta gizonezkoen artean esperientzia eta heziketa mailan dauden diferentziei. Gainontzeko bi herenak, berriz, neurgaitzak diren beste zenbait faktoreetako diferentziei eta lan merkatuko sexu-diskriminazioari zor zaizkie, bakoitzari zenbateko proportzioa dagokion balioztatzea ezinezkoa delarik. Nolanahi ere, pertsona baten ekoizmen maila mugatzen bide duten faktore nagusiak aintzat hartu direnez gero, badirudi hein handi batez sexu-diskriminazioari dagokiola. Eta aurreko atalean adierazi den bezala, diskriminazio hori lanbide eta funtzio-segregazioaren ondorioz zertzen da, batez ere, gaur egun alokairuzko diskriminazio zuzena ez baita ohizkoa.

Etxe-zerbitzuan enplegatutako emakumezkoak eta ezkutuko ekonomian dihardutenak laginketatik atera eta analisisia berriz aplikatuz gero, lan esperientziagatik azaldutako diferentzialaren proportzioak gora egiten du % 78,2raino, aldi berean, heziketako diferentziari dagokionak ere gora egiten du baina alderantzizko zentzuan, $-\% 41,2$ raino. Hortaz, faktore bi horiengatik azaldutako alokairuzko diferentzialaren proportzioa % 37koa da, hots, lagina bere osotasunean hartuta lortzen den emaitza baino pixkat handiagoa.

Administrazioan lan egiten dutenak soilik hartuz gero, bi faktoreengatik azaldutako alokairuzko diferentzialaren proportzioa oso handia da, % 67,9koa, % 35,8a esperientzia mailako diferentziari dagokiolarik eta % 32,1a heziketakoari, kasu honetan gizonezkoen aldekoa dena, izan ere, administrazioan diharduten gizonezkoen batezbesteko heziketa maila handiagoa bait da. Beraz, administrazioan, sexuaren arabera alokairuzko diskriminazioa mugatuago agertzen da. Enpresa pribatuan, ordea, bi faktoreok, besterik gabe, % 30,5a baino ez dute azaltzen, sexu-diskriminazioari tarte zabala gelditzen zaiolarik.

ONDORIOZTAPENAK

4.5

Alokairupeko emakumezkoen multzoak ordu bakoitzeko jasotzen duen alokairu gordina 799 pezetatakoa da eta gizonezkoena 1.019 pezetatakoa, horrenbeztez, emakumezkoen batezbesteko alokairua gizonezkoena baino % 21,6 bat txikiagoa da. Hau horrela izanik ere, diferentzia horren zati handi bat ezkutuko ekonomian diharduten pertsonen nahiz lan hartueman berezia dutenen artean dagoen sexuaren arabera alokairuzko diferentzial handiaren ondorio da, diferentzial hori % 35,9koa bait da. Pertsona horiek salbuetsiz gero, emakumezkoen alokairuak nabarmenki egiten du gora, 799 pezetatik 889 pezetatara, gizonezkoena, ordea, ezer gutxi aldatzen da, 1.034 pezetatara iristen bait da, eta alokairuzko diferentziala % 21,6tik % 14era jaisten da.

Administrazioan ageri den alokairuzko diferentziala, % 10,5ekoa hain zuzen, enpresa pribatukoa, % 24,2, baino askoz txikiagoa da, eta zerbitzuen sektorekoa, % 17,5, industri sektorekoa, % 22,4, baino pixkat txikiagoa. Lanbide-kategoriei dagokienez, alokairuzko diferentzial hutsala nabari da administrari laguntzaileen eta goi-mailako teknikarien artean; txikia, % 6 ingurukoa, zuzendari eta erdi-mailako teknikarien artean; % 10ekoa gutxi gorabehera administrarien, kategoriarik gabeko enplegatuen eta peoi nahiz ikasleen kasuan, eta dexente handiagoa ofizial eta espezialistentzat, % 17,8, eta arduradunentzat, % 23,4.

Adin-tarte edo multzoaren arabera, berriz, alokairuzko diferentzial handia ageri da 25 urtez beherako emakumeentzat eta 44 urtez gorakoentzat, % 15 eta % 18,7 hurrenez hurren, eta % 8aren inguruan mantentzen da 25 urtetatik 44etara bitartekoen kasuan. Egoera zibilari dagokionez, bestalde, positiboa da ezkongabeko emakumeentzat, +% 22, eta negatiboa bihurtzen da ezkonduen kasuan, % 14koa seme-alabarik ez dutenentzat eta % 17koa dituztenentzat.

Gizonezko eta emakumezkoen alokairuen artean ageri den desberdintasunaren zati bat, behintzat, pertsona baten ekoizmen maila mugatzen duten faktoreak direla eta sexu bien artean dauden desberdintasunen ondorio da. Hortaz, % 48,8a lan esperientzia mailako diferentzian oinarritzen da eta % 15,3a heziketa mailakoan, baina kasu honetan alderantzizko zentzuan, negatiboki alegia, zeren, alokairupeko emakumezkoek, batezbeste, gizonezkoek baino heziketa maila handiagoa bait dute. Famili kargetatik, ordea, ez da alokairuzko diferentzialaren ezein proportzio ondorioztatzen, era zuzenean eta berehalakoan ez, behinik behin.

Beraz, alokairuzko diferentzialaren heren bat baino ez da emakume eta gizonezkoen arteko esperientzia eta heziketa mailako diferentzien ondorioz azaltzen. Gainontzeko bi herenak, aldiz, ekoizmen maila mugatzeko baliagarriak baina, aldi berean, neurgaitzak ere badiren beste zenbait faktoreetan antzemandako diferentzietatik eta sexu-diskriminaziotik ondorioztatzen dira, berorietako bakoitzari dagokion proportzioa balioztatzen oso zaila delarik. Nolanahi ere, pertsona baten ekoizmen maila mugatzen bide duten faktore nagusiak aintzat hartu direnez gero, arrazoitu gabe gelditzen den alokairuzko diferentzialaren zati handi bat sexu-diskriminazioaren ondorio izan daitekeela ematen du.

“Emakumeak lan merkatuan duen partaidetzari buruzko eritzi eta jarrerak” deituriko azterlanaren bigarren zatian bildutako informazioaren arabera, alokairupeko emakumezko biztanleriaren % 14ak zuzenean diskriminaturik dakusa bere burua, hortaz, esan daiteke sexu-diskriminazioa,

bere osotasunean ez behar bada, baina bai hein handi batetan, lanbide eta funtzio-segregazioaren ondorio dela, eta alokairuzko diskriminazio zuzena, garrantzizko faktorea izan ohi bada ere, gaur egun mugatuago ageri dela.

Azkenik, aipatu behar da, administrazio publikoan lan egiten duten emakume eta gizonezkoen dagokienez, esperientzia eta heziketa mailako desberdintasunagatiko alokairuzko diferentzialaren portzentaia oso handia dela, % 67,9koa hain zuzen, eta beraz, ekoizmen maila azaltzen duten gainontzeko faktoreei eta sexu-diskriminazioari dagokien margina % 32,1ekoa dela, eta alokairuzko diferentziala txikia dela aintzat harturik, % 10,5ekoa, alegia, administrazioan, behinik behin, sexuarengatiko alokairuzko diskriminazioa oso txikia dela.

5

**ALOKAIRUPEKO
BIZTANLERIA
ETA
ETXE-EGINKIZUNEKIKO
DEDIKAZIOA**

SARRERA

5.1

Lan iharduerari ekin dioten emakumezkoek ez diote etxeko ohizko lanak egiteari utzi eta askok eta askok etxekoandreek egiten dituzten lan berberak egiten dituzte, nahiz eta, astirik ez izatera, dedikazio txikiagoaz eta beste ordu-banaketa batez aritu. Gizonezkoek, ordea, eginkizunok bere gain hartu gabe segitzen dute, oraindik ere, nahiz eta, talde jakin batzutan eta neurri batean, lan horietako zenbait egiten hasi diren.

Kapitulu honetan zehar, alokairupeko biztanleriak, bai gizonezkoak eta bai emakumezkoak, nola parte hartzen duen etxe-eginkizunetan eta zenbat denbora ematen den berorietan aztertuko da, Iceberg Prospectiva delakoak propio moldatu duen eta lehenago ere aipatu den inkestaren bidez lortutako emaitzak oinarritzat harturik.

ALOKAIRUPEKO BIZTANLERIAK EGINDAKO ETXE-IHARDUERAK

5.2

5.1 Taulan ikus daitekeenez, alokairupeko emakumezkoek etxe-ihardueretan aritzen direneko maiztasuna oso handia da. Maiztasun hori nabarmenagoak da zenbait iharduerei dagokienean, hots: janaria prestatu eta harrikoa egin, etxea garbitu eta arropa gertatu eta umeak nahiz pertsona nagusiak zaindu.

Iharduera hauek egunero egiten dituzten emakumezkoen proportzioa hauxe da: % 58ak janariak prestatu eta harrikoa egiten du, % 46ak etxea garbitu eta arropa gertatu eta % 41ak umeak nahiz pertsona nagusiak zaintzen ditu. Alderantzizko muturrean, % 30ak inoiz ere ez ditu lan horiek egiten edo noizean behin baino ez, eta proportzio hau % 56koa da umeak nahiz pertsona nagusiak zaintzeari dagokionean.

Alokairupeko emakumezkoen % 29ak egunero egiten ditu erosketak, baina gero eta gehiago dira astean birritan edo hirutan edo asteburuetan egiten dituztenak. Azkenik, emakume gehienek, % 83, inoiz ere ez edo lantzean behin baino ez dituzte konponketak, famili garraioak edo gestioak egiten.

5.1. TAULA Etxe-iharduera ezberdinak egiten direneko maiztasuna. (Portzentaia bertikale-tan)

IHARDUERA

EMAKUMEAK

GIZONAK

	Guztira	Ezkonga- beak	Ezkon- duak se- me/ala- barik gabe	Ezkon- duak 12 urtez be- herako seme/a- labekin	12 urtez gorako seme/a- labekin	Guztira	Ezkonga- beak	Ezkon- duak se- me/ala- barik gabe	Ezkon- duak 12 urtez be- herako seme/a- labekin	12 urtez gorako seme/a- labekin
EROSKETAK:										
Egunero	29	16	26	38	48	9	6	17	12	6
Astean bi/hiru egunez	23	12	33	30	28	11	5	19	15	7
Asteburuetan	16	13	23	18	15	11	6	15	15	8
Noizean behin	17	29	9	9	5	28	28	24	25	31
Bakanka edo inoiz ere ez	16	29	10	5	5	42	54	25	32	48
JANARIA PRESTATU, HARRIKOA EGIN:										
Egunero	58	35	71	73	85	14	12	31	20	4
Astean bi/hiru egunez	7	8	11	6	4	8	4	15	10	9
Asteburuetan	8	9	5	9	4	5	4	4	9	3
Noizean behin	15	27	4	8	5	25	27	17	25	27
Bakanka edo inoiz ere ez	12	22	10	4	3	47	54	33	36	58
ETXEA GARBITU, ARROPA GERTATU:										
Egunero	46	28	45	58	68	7	7	11	10	2
Astean bi/hiru egunez	17	14	24	19	13	7	3	15	8	6
Asteburuetan	13	14	18	11	9	6	2	11	10	4
Noizean behin	15	26	7	8	5	18	19	19	18	18
Bakanka edo inoiz ere ez	10	17	5	4	5	62	68	44	55	70
UMEAK EDO PERTSONA NAGUSIAK ZAINDU:										
Egunero	41	13	15	84	40	15	3	4	36	4
Astean bi/hiru egunez	2	1	0	4	1	5	1	1	9	3
Asteburuetan	2	1	0	2	2	3	1	1	n8	1
Noizean behin	6	9	4	3	4	14	9	7	20	12
Bakanka edo inoiz ere ez	50	75	82	7	54	63	87	87	27	79
KONPONKETAK, FAMILI GARRAIOAK, GESTIOAK:										
Egunero	10	3	9	16	18	7	4	6	12	5
Astean bi/hiru egunez	4	3	4	5	4	9	6	10	12	9
Asteburuetan	3	2	6	2	2	6	4	8	7	6
Noizean behin	35	31	28	42	36	49	47	54	49	49
Bakanka edo inoiz ere ez	48	61	54	35	39	28	39	23	20	31
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: Emakunde inkesta.

Nolanahi ere, etxe-eginkizunekiko dedikazioa ez da homogenoa alokairupeko emakumezkoen multzoari dagokionez, izan ere, desberdintasun handiak ageri bait dira. Hortaz, batezbesteko maiztasuna aintzat harturik, seme-alabak dituzten emakume ezkonduak hura baino askoz ere handiagoaz agertzen zaizkigu iharduera hauek egiterakoan.

Zifra adierazgarrienak aipatzekotan, aipatu beharra dago egunero: emakume ezkonduetako % 70 baino gehiagok janaria prestatu eta harrikoa egiten duela, % 85ak 12 urtez gorako seme-

alabak dituztenen kasuan; seme-alabak dituztenen % 60 baino gehiagok etxea garbitu eta arropa prestatzen duela eta 12 urtez beherako seme-alabak dituztenen % 84ak haiek zaintzen dituela.

Ezkongabeko emakumeek dedikazio askoz txikiagoa eskaintzen diete etxe-eginkizunei, eta maiztasunaren arabera, janaria prestatu, etxea garbitu eta arropa gertatzen aritzen dira, batez ere, baina haietako % 30a besterik ez egunero.

Gizonezkoei dagokienez, berriz, ezer gutxi parte hartzen dute etxe-eginkizunetan, izan ere, gehiago handi bat inoiz ere ez edo lantzean behin baino ez da eginkizunotan aritzen, % 70tik % 80era ihardueren arabera.

Gizonezkoen partehartzerik handiena eginkizun jakin batzutura mugatzen da, horrela gizonezkoen % 15ak egunero zaintzen ditu umeak, baita etxea garbitu eta arropa gertatu ere.

Gizonezkoen dedikazioari dagokionez, askoz handiagoa da seme-alabarik gabeko ezkonduen artean eta 12 urtez beherako seme-alabak dituzten ezkonduen artean, hau da, ezkonduetako gazteen artean, 25 urtetatik 40etara bitarteko artean, eta ez ezkongabeen kasuan eta 12 urtez gorako seme-alabak dituztenen kasuan, hauen dedikazioa oso txikia bait da.

Partehartzeari buruzko portzentaierik handienak, berriz, janariaren prestaketan agertzen dira seme-alabarik gabeko gizonezko ezkonduen dagokienez, eta umeen zaintzan 12 urtez beherako seme-alabak dituzten ezkonduen artean, % 31koa eta % 36koa hurrenez hurren.

Beraz, erabateko proportziogabetasuna ageri da emakumezkoek eta gizonezkoek, hurrenez hurren, etxean egindako lanen artean, eta gizonezkoen ihardueratzat jo ohi izan diren zenbaitetan (konponketak, gestioak,...) baino ez da nolabaiteko oreka bat antzematen.

ETXE-IHARDUERETAN EMANDAKO DENBORA

5.3

Alokairupeko emakumezkoak astegunez, astelehenetik ostiralera, batezbeste bi ordu t'erdi baino gehixeago ematen du etxe-ihardueretan (Ikus 5.2 Taula).

Dedikazio hori, logikoa denez, desberdina da kolektiboen arabera, eta horrela, eguneroko batezbesteko hauek ageri zaizkigu: ordubete t'erdi ezkongabeentzat, bi ordu seme-alabarik ez duten ezkonduentzat eta hiru ordu t'erdi edozein adinetako seme-alabak dituzten ezkonduentzat.

Portzentaiei dagokienez, seme-alabak dituzten emakume ezkonduetako erdiak lau orduz edo gehiagok aritzen dira etxeko eginkizunetan, eta gainontzekoetarik gehienak bi orduz gutxienik ere. Seme-alabarik gabeko ezkonduen artean, berriz, lautik hiruk ordubetetik hiru ordutara bitartean ematen dute eginkizunotan. Azkenik, ezkongabeko emakumezkoen artean, lautik hiru bi orduz, gehienik, aritzen dira eta gainontzeko herena ez da ordu erdira ere heltzen.

Gizonezkoek, bestalde, alokairupeko emakumezkoek baino hiru bider gutxiagoko dedikazioa erakusten dute etxeko eginkizunekiko, eta eguneroko batezbestekoa ordubetetik beherakoa da.

Seme-alabarik gabeko edo 12 urtez beherako seme-alabak dituzten gizonezko ezkonduen artean, eguneroko batezbestekoa ordubete baino gehixeagokoa da, eta ezkongabekoen eta ezkondu zaharrenen kasuan, batezbestekoa erdira heltzen da gutxi gorabehera, hau da, ordu erdi baino pixkat gehiagora.

Gizonezkoetako erdiak baino gehiagok, % 57k, ez du ordu erdi bat ere ematen etxeko eginkizunetan, eta proportzio hori % 74era iristen da 12 urtez gorako seme-alabak dituztenen artean. Partehartzerik handiena ezkondu gazteenen kasuan suertatzen da, izan ere, seme-alabarik ez dutenen % 26k eta 12 urtez beherakoak dituztenen % 40k bi orduz, gutxienik ere, aritzen bait dira eginkizunotan.


Etxeko lanekiko dedikazio handiagoa antzematen da asteburuetan, hortaz, astegunetako dedikazioarekiko % 25eko gorakada nabari da, eguneroko batezbestekoetan isladatzen dena, hiru ordu eta laurden emakumezkoentzat eta ordubete eta laurden gizonezkoentzat. Antzerako gorakada ageri da talde guztientzat, alabaina, pixkat handiagoa da 12 urtez beherako seme-alabak dituzten emakume nahiz gizonezkoen artean.

5.2. TAULA Etxe-ihardueretan eguneko ematen diren orduak. (Portzentaiak)

	EMAKUMEAK					GIZONAK				
	Guztira	Ezkonga-beak	Ezkon-duak seme/alabarik gabe	Ezkon-duak 12 urtez beherako seme/alabekin	12 urtez gorako seme/alabekin	Guztira	Ezkonga-beak	Ezkon-duak seme/alabarik gabe	Ezkon-duak 12 urtez beherako seme/alabekin	12 urtez gorako seme/alabekin
ASTEGUNETAN:										
Batezbeste	2,6	1,6	2,1	3,6	3,4	0,9	0,7	1,1	1,3	0,5
Desbider. tipikoa	2,0	1,6	1,3	2,1	1,8	1,2	0,9	1,1	1,4	0,9
Ordu erdiz behera	17	32	11	4	5	57	64	45	40	74
Ordubete	18	25	26	11	9	21	22	29	21	16
Bi ordu	21	20	29	19	20	14	8	15	23	8
Hiru ordu	16	11	20	20	18	5	5	5	7	1
Lau ordu	13	7	11	18	18	3	0	6	7	1
Lau orduz gora	16	5	4	29	29	1	1	0	3	1
ASTEBURUAN:										
Batezbeste	3,2	1,8	2,5	4,8	4,1	1,2	0,6	1,5	2,0	0,7
Desbider. tipikoa	2,6	1,8	1,7	2,8	2,2	1,7	1,1	1,4	2,2	1,2
Ordu erdiz behera	14	27	13	4	3	46	61	31	30	57
Ordubete	3	7	0	0	1	7	8	6	3	9
Bi ordu	14	21	20	6	6	18	16	25	18	19
Hiru ordu	18	18	26	14	22	14	10	17	19	10
Lau ordu	12	13	15	10	12	6	2	11	10	2
Lau orduz gora	39	15	27	66	56	10	3	11	20	3

Iturria: Emakunde inkesta.

17. Grafikoa. Etxe-ihardueretan eguneko ematen diren orduak



ETXE-EGINKIZUNAK BURUTZEKO LAGUNTZA

5.4

Alokairupeko emakumezkoetatik % 74k ez du etxeko lanik egiten laguntzen dion elkarbizitza-unitatez kanpoko pertsonarik, eta gauzak horrela, iharduera horietatik eratorritako lan guzti-guztiz arduratu beharra daukate, senarrak edo seme-alabek lanotan parte hartzen ez badute, behintzat (Ikus 5.3 Taula). % 7k senideren baten laguntza izaten dute, ama edo amaginarrebarena, batik bat, % 12k ordukako aldarteko edo interina dute eta % 6k kanpoko otseina.

12 urtez beherako seme-alabak dituzten emakumezko ezkonduak dira, bereziki, elkarbizitza-unitatez kanpoko laguntzaren batez baliatzen direnak, beraietako erdiek bait dute etxeko lanetan laguntzen dien pertsonaren bat: % 20k ordukako aldartekoa, % 16k kanpoko otseina eta % 14k senideren baten laguntza.

Alokairupeko gainontzeko emakumezkoek dagokienez, aipatutako lanak egiteko etxetik kanpoko pertsonaren baten laguntza dutenen proportzioa txikiagoa da. % 21ekoa 12 urtez gorako seme-alabak dituzten emakume ezkonduen kasuan, % 16koa seme-alabarik gabeko ezkonduen artean eta % 10ekoa ezkongabekoen artean.

5.3. TAULA Elkarbizitza-unitatetik kanpoko laguntzak etxe-eginkizunak egiteko. (Portzentia bertikalak)

	Guztira	Ezkongabeak	Ezkonduek seme/alabarik gabe	Ezkonduek 12 urtez beherako seme/alabekin	Ezkonduek 12 urtez gorako seme/alabekin
Ez dute laguntzarik	74	90	84	50	79
Senideren bat	7	3	5	14	4
Ordukako interina	12	5	9	20	14
Kanpoko enplegatua	6	1	2	16	3
Barneko enplegatua	0	0	0	0	0

Iturria: Emakunde inkesta.

ONDORIOZTAPENAK

Alokairupeko emakume ezkonduetako gehienek iharduera bikoitzari aurre egiten die, batetik, etxetik kanpo lan egiten dute, eta bestetik, etxeko eginkizunak ere bere gain hartu behar dituzte, eta azken iharduera hau bereziki gogorra da seme-alabak dituzten emakume ezkonduen kasuan, berauetako erdiak, egunero lau orduz, gutxienik, aritzen bait dira etxeko lanak egiten.

Dena den, ezin daiteke gauza bera esan ezkongabeko emakumezkoei dagokienez, ez guztiei behinik behin, zeren, berorietako erdiak ordubetez, gehienik, aritzen bait dira etxeko lanetan. Horrez gainera, ezkongabeko emakumeek lan ihardueretan ari diren emakume guztien % 45a jotzen dutela kontutan harturik, aipatu beharra dago aurrez adierazitako iharduera bikoitzak ez duela eragin handirik lanean diharduten emakumeetako talde garrantzizko batengan.

Gizonezkoek, bestalde, ez dituzte etxeko eginkizunak beren lantzat hartzen oraindik ere, eta % 57k ordu erdi bat baino gutxiago ematen dute eginkizunotan, proportzio horrek % 74a jotzen duelarik 12 urtez gorako seme-alabak dituzten gizon ezkonduen artean; izan ere, 40 urtez beherako ezkonduen gutxiengo baten artean baino ez bait da etxe-eginkizunekiko ardura eta erantzun taxuzkoa antzematen.

Emakumezkoek gehienetan eta maiztasun handiagoz egiten dituzten lanak honako hauek dira: lehendabizi, janaria prestatu eta harrikoa egin eta ondoren, etxea garbitu eta arropa gertatu eta umeak zaindu, azken hau iharduera nagusia delarik 12 urtez beherako seme-alabak dituzten emakumezkoentzat. Gizonezkoen artean, berriz, maiztasun askoz txikiagoa nabari den arren, hurrengook dira iharduera ohizkoenak: umeak zaindu, janaria prestatu eta harrikoa egin.

Azkenik, 12 urtez beherako seme-alabak dituzten alokairupeko emakume ezkonduetako erdiek badute etxeko lanak egiten laguntzen dien elkarbizitza-unitatetik kanpoko pertsonaren bat, proportzio hori % 20tik beherakoa delarik alokairupeko gainontzeko emakumeen artean.

6

ONDORIOZTAPEN OROKORRAK

Euskal emakumezkoek lan merkatuan duten partehartzea nahiko urria da oraindik ere, hortaz, emakumezkoen iharduera tasa gizonezkoenaren erdia da eta Europako Elkarteko herrialdeen batezbestekoa baino txikiagoa. Hala ere, belaunaldizko aldaketa nabarmena antzeman daiteke, izan ere, emakume gazteen partehartzea Europako herrialdeetako enaren parekoa bait da. Alabaina, etxeko lanetan baino ez diharduten emakumezkoen kopurua etxetik kanpo lanetan bat dutenena baino handiagoa da.

Emakumezkoek lan merkatuan duten presentzia ikasketa-mailaren heinean gehitzen da eta adinarekin gutxitu. Egoera zibila ere, lehenago zuen eragina ez badu ere, funtsezko aldagaitzat jo dezakegu, oraindik, emakumezkoak lan merkatuan irauterakoan. Ezkongabeko emakumezkoek, goi-mailako ikasketak dituztenek eta gazteenek gizonezkoen partaidetza-mailaren antzekoak dituzte.

Langabeziak eragin latza du euskal emakumezkoengan, gazteengan, batez ere, emakumezkoen langabezi tasa gizonezkoena baino askoz handiagoa delarik eta Europako Elkarteko handiena.

Lan ihardueraren bat duten emakumezko gehienak lau lanbide-multzotara biltzen dira: etxe-zerbitzuak eta pertsonal mailakoak, administrariak, merkatari eta saltzaileak eta erdi-mailako teknikari eta profesionariak (maistrak eta erizainak, batik bat), berorietako gehienak emakumezkoak direlarik. Beraz, sexuaren arabera lanbide-segregazio garbia nabari da, lan merkatuaren dinamikan eragin zuzena duena, izan ere, lan ihardueretan hasten diren emakumezkoek lanbide horietara, emakumezko kutsua duten eta gehienetan lanbide-kategoriarik beherengoa dagokien lanbideetara jo ohi bait dute.

Lanbide-segregazioaren poderioz, emakumezko gehienek zerbitzuen sektorean lan egiten dute, merkataritzan eta ostalaritzan, administrazioan, sanitatean eta irakaskuntzan eta pertsonal mailako zerbitzuetan, batez ere. Industri sektorean lan egiten duten emakumezkoen portzentaia oso txikia da, nahiz eta adarren batetan garrantzizko presentzia duten, eraikuntzan, haatik, oso bakanak ditugu. Nekazaritzan diharduten emakumezkoen proportzioa gizonezkoenaren antzekoa da, baina gehienak adinekoak direnez gero, proportzio horrek etorkizunean gutxitzeko joera erakusten du.

Alokairupeko emakumezkoen laurdenak administrazio publikoan lan egiten du, eta kopuruz gizonezkoak baino gehiago dira, irakasleak, maistrak eta erizainak eta administrariak eta laguntzaileak, batez ere.

Ezkutuko ekonomian ari direnetarik gehienak emakumezkoak ditugu eta berorietako gehienak etxe-zerbitzuan enplegatutakoak. Otseinen ezaugarri nagusiak gaztetasuna eta ikasketa-maila eskasa dira.

Emakumezkoen batezbesteko alokairua gizonezkoena baino txikiagoa da % 21,6 batez, eta diferentzia horren herena besterik ez dagokio emakume eta gizonezkoen arteko lan esperientzia eta heziketa-mailako desberdintasunari, hau horrela izanik, beraz, gainontzeko bi herenen zati handi bat sexu-diskriminazioaren ondorio dela ematen du.

Alokairuzko diferentziak eta alokairuzko diskriminazioa nabarmen aldatzen dira emakumezko langile-talde batetik bestera, administrazio publikoko emakumezkoak direlarik gutxien kaltetuak.

Sexu-diskriminazioa, bere osotasunean ez bada ere, hein handi batean, behinik behin, lanbide eta funtzio-segregazioaren ondorioz ematen da, zeren, alokairuzko diskriminazio zuzena, hau

da, lan berberagatik alokairu desberdina, betidanik garrantzizkoa izan den arren, gaur egun ez bait da horren garrantzizkoa. Dena den, lanbide eta funtzio-segregazioaren ondoriozko alokairuzko diferentzia, hein batez, bederen, zenbaitetan, lan desberdinak baina balio ekonomiko berbera dutenak egitearren, gehien bat emakumezkoek egiten badituzte, ordainsari txikiagoak jasotzen direlako sortzen da.

Azkenik, lan ihardueraren batetan ari diren emakume ezkonduetako gehienek iharduera bikotizari aurre egin behar diotela antzematen da, hots, etxetik kanpo lan egin eta etxeko eginkizunak bere gain hartu behar dituzte, seme-alabak dituzten ezkonduak, batez ere. Gizonezko gehienek, alderantziz, ez dituzte etxeko eginkizunak beren lantzat hartzen oraindik ere.

TXOSTENA

EMAKUMEEK

LAN MERKATUAN

DUTEN

PARTAIDETZARI

BURUZKO

ERITZI

ETA JARRERAK

1

**ZENBATEZKO
AZTERKETA**

1.1

SARRERA

Zenbatezko fasean lortutako informazioa jorratu aurretik, gogoratu behar da informazio horrek eritzi eta jarrerak dituela oinarri, behin baino gehiagotan portaerekin bat ez datozen eritzi eta jarrerak, are gehiago darabilgun gai honi dagokionean. Horrez gainera, egindako galdera batzuk ezezagun eta berriak suertatu zitzaizkien inkestatutako zenbait pertsonari. Hortaz, lortutako portzentaia zehatzen balioa ez da erabatekoa, aitzitik, garrantzizkoagoak dira somatzen diren joera orokorrak.

Aipatu beharra dago, halaber, lagin hau, L.N.E. delakoak mugatutakoaren arabera, *lan ihardueretan ari diren pertsonen* soilik osotua dela, eta horrenbestez, ez dituela lanik gabekoak, ez eta etxeko lanetan baino ez dihardutenak barruhartzen.

1.2

LAN EGITEKO ERAGINGARRIAK

Emakumezkoei zergatik lan egiten duten, edo zehazkiago esanda, zein den horretarako arrazoi nagusia galdetu zitzaientean, % 37ak norbere beharrizan ekonomikoa aipatu zuen bere erantzunean, % 24ak familiaren beharrizan ekonomikoa, % 19ak bere buruak hala eskatzen zuelako, % 14ak burujabetasun handiagoa izatearren eta % 4ak etxeko lanaren ohikeriari ekiditearren erantzun zuten.

Gizonezkoei, emakumeek zergatik lan egiten duten, beraien ustez zein den emakumezkoek lan egitearen arrazoi nagusiaz galdetu zitzaientean, antzeko erantzunak eta portzentaiak jaso ziren, nahiz eta, gizonezkoen artean, emakumezkoek etxeko ohikeriatik ihes egitearren lan egiten dutela uste dutenen portzentaia handiagoa izan, % 8a hain zuzen, norbere beharrizan ekonomikoa aipatzen dutenenak, ostera gutxiago direlarik, % 30a.

Hortaz, beharrizan ekonomikoa ageri da lehen tokian, dela norberarena, dela familiarena, eta ondoren, baina portzentaia nahiko txikiagoez, bestelako arrazoiak.

45 urtez gorakoak, lehen mailako ikasketak dituztenak, ezkutuko ekonomian dihardutenak edo lan hartueman berezikoak eta gutxien irabazten dutenak dira, hain zuzen ere, beharrizan ekonomikoa, gehien bat, aipatzen dutenak. Norbere helburuak lortzea eta burujabetasun handiagoa izatea arrazoi nagusizat dituztenek, haatik, unibertsitateko ikasketak dituztenak, administrazioko langileak eta alokairu handienak jasotzen dituztenak dira.

Ezkongabeko emakumeetarik gehienek, % 52ak hain zuzen, norberaren beharrizan ekonomikoa aipatu zuten eta % 8ak besterik ez familiarena, ezkonduen artean, aldiz, % 36ak jarri zuten familiaren beharrizana lehen tokian, sei urtez gorako seme-alabak dituztenek, batik bat. Beraz, emakumezko gazteen kasuan, famili erantzunbehar arinagoak dituztenez gero, lan egiteko eragingarriak edo motibazioak norberaren alderdi ekonomikoari lotzen zaizkie, gehien bat, eta adin-

duz eta familiarekiko erantzunbeharrak gehituz joan ahala, hartutako erantzunkizun ekonomikoari aurre egin beharra nagusitzen da gero eta gehiago.

— *Lan egiteko eragingarri edo motibazioen artean, beharrian ekonomikoa, dela norberarena, dela familiarena, argi eta garbi ageri da lehen tokian, eta bigarrenetan, baina portzentaia dexente txikiagoez, norbere helburuei eta burujabetasunari lotutako arrazoiak ageri dira. Beharrian ekonomikoari dagozkion portzentaiarik handienak gutxien ordaindutako lanak egiten dituzten emakumezkoen artean ageri dira, eta norbere helburuei dagozkienak unibertsitateko ikasketak dituzten emakumeen eta administrazioan enplegatutakoen artean.*

LANAREKIKO POZTASUNA. HELBURUAK

1.3

Emakumezkoen % 63a eta gizonezkoen % 66a pozik edo oso pozik daude egun duten lanarekin, nahiz eta hainbat kasutan poztasun hori lan bat izateagatiko eskerronaren adierazgarri besterik ez izan. Aitzitik, emakumezkoen % 15a eta gizonezkoen % 13a ez daude pozik.

Egiten duten lanarekiko pozik handiena adierazten duten emakumezkoak unibertsitariak eta administrazioan enplegatutakoak dira, beren lana gogoko ez dutenen artean, berriz, ezkutuko ekonomian ari diren edo lan hartueman berezi bat duten alokairupeko emakumeak dira atsekabetuenak.

— *Gizonezkoen lanarekiko poztasun-maila eta emakumezkoena berdintsuak dira eta ikasketamailari eta lan baldintzei lotzen zaie, batez ere.*

Elkarriketatuei beren egungo lanaren hiru ezaugarri edo kualitate gogokoenak aipatzeko eskatu zitzaizenean, bi nagusitu ziren bai gizonezkoen eta bai emakumezkoen erantzunetan, hots: egonkorra eta segurua da, batetik, eta ordutegi eroso da, bestetik, herenak baino gehiagok aipatu zituzten bi kualitateok. Ondoren eta % 25 inguruko portzentaiez hauexek: nire gaitasunari egokitzen zaio, giro atsegina dago, adiskide berriak egin daitezke, interesgarria da eta gizartearentzako onuragarria da.

Gizonezkoek eta emakumezkoek agertutako balioztapenen artean desberdintasun txikiak somatzen badira ere, gizonezkoek gehiagotan aipatzen dituzte egonkortasuna eta segurtasuna, promoziorako ahalbideak eta ordainketa ona. Horrek ez du nahitaez adierazten gizonezkoek emakumezkoek baino gehiago onesten dituztenik kualitateok, baizik eta gizonezkoek proportzio handiagoz gozatzen dituztela. Emakumezkoek, bestalde, giro atsegina eta adiskide berriak aurkitzeko ahalbide edo posibilitateak aipatzen dituzte gehien bat.

Nolanahi ere, balioztapenak ez dira homogenoak emakume-talde desberdinei dagokienean, eta horrela: 25 urtez beherakoek giro atsegina eta adiskide berriak aurkitzeko ahalbidea aipatu zuten aurrena; ezkutuko ekonomian dihardutenek edo lan hartueman berezia dutenek, berriz, giro atsegina eta ordutegiaren erosotasuna; langile autonomoek adiskide berriak aurkitzeko ahalbidea; unibertsitariarentzat gizartearentzat mesedegarri izatea zen garrantzizkoena eta administrazioan enplegatutako emakumezkoentzat segurtasuna eta gizartearentzat mesedegarri izatea.

Kualitate negatiboei dagokienez, inkestari erantzun zioten emakume eta gizonezkoen herenak ordainketa eskasa eta lan nekosoa izatea aipatu zuten, eta proportzio txikiagoz: ordutegi txarra, lan monotonoa eta gogaikarria izatea eta promozio-biderik ez izatea.

Berriz ere, pareko balioztapenak agertzen dira gizonezkoen nahiz emakumezkoen artean, hala ere, gizonezkoek gehiagotan aipatzen dute euren lana osasunaren kalterako eta zaila dela eta emakumezkoek promozio-biderik ez dutela eta familiaz arduratzea eragozten diela.

Aztartuak izan diren emakume-talde guztien kasuan, ordainketa eskasa eta lan nekosoa dira gehien aipatzen diren kualitate negatiboak, are aipatuagoak alokairua gutxituz eta lan baldintzak okerragotuz doazen neurrian.

— *Gizonezko nahiz emakumezkoek kualitate berdintsuak aipatzen dituzte beren lanaren alderdirik gogokoena balioztatzean, gehien aipatzen direnak hauxek direlarik: segurtasuna eta egonkortasuna eta ordutegien erosotasuna. Dena den, gizonezkoek gehiagotan aipatzen dituzte egonkortasuna eta segurtasuna, promozio-ahalbideak eta ordainketa ona, eta emakumezkoek, giro atsegina eta adiskide berriak aurkitzeko aukera. Kualitate negatiboei dagokienez ere, antzeko aipuak ageri dira, ordainketa eskasa eta lan nekosoa izatea, batez ere, nahiz eta gizonezkoen artean gehiagotan aipatu osasunkortasun-eza eta zailtasuna eta emakumezkoen artean promoziorako ahalbide urriak eta familiaz arduratzeko eragozpenak.*

Gizonezkoen % 72ak beren egungo lanari eutsi nahi diote, baita emakumezkoen % 14ak ere, haietako % 14ak lanez aldatu nahi du emakumezkoen % 20ak bezala; gizonezkoen % 2ak egungo lanari utziko lioke bere familiaz arduratzeko, emakumezkoen % 8ak bezalaxe eta azkenik, gizonezkoen % 10ak eta emakumezkoen % 3ak jubitatua izan nahiko luke.

Beraz, gehienek beren egungo lanari eutsi nahi diote, gizonezkoen artean proportzio handiagoa ageri delarik. Lanez aldatu nahi dutenen artean, aldiz, emakumezkoen proportzioa handiagoa da, eta berorien artean, ezkutuko ekonomian dihardutenak nahiz lan hartueman berezia dutenak eta gutxien irabazten dutenak nabarmentzen dira. Azkenik, adineko pertsonen artean gehitu egiten da lanari utzi nahi dioten portzentaia, emakumezkoek familiaz arduratzeko eta gizonezkoek jubilatzeko.

— *Gehienek beren egungo lanari eutsi nahi diote. Lanez aldatu nahi dutenen artean, emakumezkoek proportzio handiagoa dagokie.*

LANA ETA FAMILIA

1.4

Ezkondutako emakumezkoen % 87ak dioenez, beren senarrek ongi deritzote eurek lan egiteari, proportzio hori % 100era inguratzen delarik unibertsitateko ikasketak dituzten emakumezkoen kasuan. Beste % 10 batek dioenez, beren senarrek, ados dauden arren, nahiago dute beren emazteek lan egin ez dezaten, ezkutuko ekonomian edo lan hartueman berezi bati loturik eta industri sektorean lan egiten duten emakumezkoen senarrak desadostasun nabarmenagoa

agertzen dutelarik. Azkenik, % 2ak beren senarrek ez dutela beraiek lan egiterik nahi adierazten dute.

Ezkongabeko, dibortziatutako edo alargundutako emakumezkoen % 76ak ez du lanari uzteko asmorik ezkondu ondoren. % 7ak uzteko asmoa du eta beste % 7 bat zalantzan dago; portzentaia hauek, bestalde, bikoiztu egiten dira ezkutuko ekonomian edo lan hartueman berezi bati loturik lan egiten duten eta gutxien irabazten dutenen artean. % 10ak, ordea, ez du erantzuten, hauetako gehienak berriro ezkontzeko asmorik ez duten dibortziatuak edo alarguntsak direlarik.

Seme-alabarik ez duten emakumezkoen % 54ak besterik ez du zalantzarik gabe adierazten ez diotela lan egiteari utziko lehenengo seme edo alaba izan ondoren. % 20ak ez lioke utziko seme edo alaba hori zaintzeko laguntzarik lortuz gero edo bere lan ihardunaldia aldatu ahal izanez gero. Azkenik, % 15ak agian utziko lioke lan egiteari eta % 8ak zalantzarik gabe. Zalantzazko portzentaiarik handienak eta lanari uzteko asmorik sendoenak, berriz ere, lehen mailako ikasketak dituzten emakumezkoen artean, ezkutuko ekonomian edo lan hartueman bereziaz dihardutenen artean eta gutxien irabazten dutenen artean aurkitzen ditugu.

Beraz, emakumezkoen gehiengo handi batek ezkondu ondoren ere lanari eutsiko lioketela adierazi arren, horietako erdiak baino ez du zalantzarik gabe agertzen lehenengo seme edo alaba izan ondoren ere lan egiten jarraitzeko asmo sendoa. Portzentaia hau nahiko adierazgarria da eta joera nabarmen bat erakusten du, hots, lehen seme edo alaba izanez gero, etxetik kanpoko lanari uzteko joera, lanik gutxietsienak eta gutxien ordainduak egiten dituzten emakumezkoen artean batez ere antzematen dena.

— *Ezkondutako emakumezkoen gehiengo nabarmen batek adierazten duenez, beren senarrak ados daude emazteek lan egiteaz. Ezkondu ondoren lanari uzteko joera oso txikia da, baina nabarmenki handitzen da amatasunaren ondorioz.*

ALOKAIRUETAN SOMATUTAKO DISKRIMINAZIOA

1.5

Emakumezkoen erdiak, gutxi gorabehera, adierazi zuten euren enpresan beraien lan berbera egiten zuten gizonezkoak ere bazirela. Kasu guztietako % 66an emakumezkoak gehiago ziren, % 19an gizonezko gehiago zeuden eta gainontzeko % 15an gizonezko eta emakumezkoen kopuruak berdintsuak ziren.

Beraz, sexuaren arabera lanbide eta funtzio-bereizketa edo segregazio garbia dago, izan ere, emakumezkoen erdiak baino ez bait du gizonezkoen lan berbera egiten, eta horietako erdietan baino gehiago emakumezko gehiago daude.

Gizonezkoek bezalako lana duten emakumezkoen artean, % 69ak adierazi zuten gizonezkoek eta emakumezkoek berdin irabazten zutela. % 22ak, ordea, gizonezkoek baino gutxiago irabazten zutela esan zuten. Eta % 4ak, alderantziz, euren alokairua gizonezkoena baino handiagoa zela.

Hortaz, emakumezkoek esandakoaren arabera, gizonezkoek bezalako lana egiten duten emakumezkoen % 22ak eta gizonezkoen % 4ak jasaten dute alokairuzko diskriminazio zuzena, hau da, lan berberagatik alokairu txikiagoa. % 22 horrek emakume langile guztien % 12a jotzen du. Horrenbestez, alokairuzko diskriminazio zuzenak indarrean dirau eta emakume-talde handi bati eraso egiten dio. Nolanahi ere, informazio hau emakumezkoen beraien adierazpenetatik atera dela aipatu beharra dago. Izan ere, emaitza desberdinak agertuko bait lirateke gizonezkoei gai honetaz galdetuz gero, hauetako askok argudiatuko luketelako garatutako funtzioak desberdinak direla.

Diskriminazio-salaketak ugaltu egiten dira industri sektorean lan egiten duten emakumezkoen kasuan, horietako % 46ak diskriminaturik ikusten bait dute bere burua, gazteenak, lehen mailako ikasketak dituztenak eta gutxien irabazten dutenak direlarik diskriminazio hori gehien jasaten dutenak. Aitzitik, unibertsitarien eta administrazioan lan egiten duten emakumezkoen artean oso bakanak dira horrelako salaketak.

Gizonezko eta emakumezkoentzako lan baldintzak antzekoak ote ziren galdetu zitzaizenean, emakumezko horietako % 79ak baietz erantzun zuten, % 14ak gizonezkoenak hobeak zirela eta % 5ak emakumezkoenak. Kasu honetan ere diskriminatuena, beraien ustez, ezkutuko ekonomian lan egiten dutenak eta 35 urtez gorakoak ditugu, eta berriro, unibertsitarien eta administrazio publikoan lan egiten duten emakumezkoen artean apenas entzuten den halako salaketarik.

— *Emakumezkoen erdiak baino ez du bere lana gizonezkoekin konpartitzen, eta emakumeok adierazitakoaren arabera, berorietako % 22ak, hau da lanean diharduten emakumezko guztien % 12ak, diskriminaturik ikusten dute bere burua gizonezkoek eta eurek jasotako alokairuei dagokienez, salaketa hau nabarmenagoa delarik industri sektorean lan egiten duten emakumezkoen kasuan.*

GIZONEZKOEN LANAK ETA EMAKUMEZKOENAK

1.6

Inkestaren emaitzen arabera, lanbide desberdinetan aritzeko alde zuzenagoa jarri da dagokienez, funtsezko desberdintasuna nabari da gizonezko eta emakumezkoen artean, eta arazo hau umetatik atxekitako lanbide-errolekin zerikusi zuzen-zuzena du.

Inkestatutakoei zera galdetu zitzaizenean, hots, burutuak zituzten ikasketak eta egun egiten zuten lanak edozeintzu izanik, lanbide jakin batzutan arituko ote ziren galdetu zitzaizenean, erantzunak oso adierazgarriak izan ziren, izan ere, gizonezko lantzat jo ohi izan diren zenbait lanbide eta emakumezkoen lantzat hartuak izan diren beste zenbait nahastuz, honako erantzunok eman bait ziren:

	EMAKUMEZKOEN %	GIZONEZKOEN %
Mekanikaria	16	54
Ingeniaria	21	49
Aparejadorea	15	36
Suhiltzailea	11	23
Taxista	13	20
Ileapantzailea	34	10
Administraria	55	30
Maisu/maistra	47	31
Medikua	39	32
Zerbitzaria	19	16

* Aniztasun erantzuna

Argi dago, galdetu zaien gizonezkoek emakumezkoek baino joera askoz handiagoa agertzen dutela etorkizunean ingeniariak, aparejadoreak, mekanikariak, suhiltzaileak edo taxistak izateko. Emakumezkoengan, aldiz, maistra, administraria edo ileapantzailea izateko aurretiko jarrera nabarmenagoa ageri da. Azkenik, medikuntzan edo zerbitzari gisa aritzeko joera berdintsua nabari zaie sexu biei. Hortaz, erantzunak bat datoz gizartean nagusi izan ohi diren estereotipoekin.

Komeni da, bestalde, jarrera horiek adinaren arabera aztertzea, lan merkaturatuz doazen belaunaldi berriengan lanbide desberdinetan aritzeko joera-aldaketarik somatzen denentz jakiteko. Hortaz, ingeniartzan aritzearen alde emakumezko guztien % 21a besterik ez dagoen bitartean, 25 urtez beherakoen artean % 25a jotzen du portzentaia horrek. Aparejadore gisa ihardutzeari buruz, emakumezkoen % 15a gertu legoke, gazteenen % 16a bezalaxe. Emakumezkoen % 16a prest dago mekanikari gisa lan egiteko, 25 urtez beherakoen kasuan portzentaia hori % 23ra iristen da, hala ere, gehikuntza txiki hau 25 urtez beherako gizonezkoengan ere antzematen da. Eta gainera, emakumezkoenak izan ohi diren lanbideetan aritzeko joera garbiagoa nabari da emakume gazteengan gainontzekoengan baino. Izan ere, emakumezko guztien % 34ak ileapantzaile gisa lan egiteko gogoia agertu zuten, eta gazteen artean % 53ak. Emakumezkoen % 55ak administrari gisa arituko litzateke, gazteen portzentaia % 64a jotzen du. Dena den, emakumezko lanbidetzat jo ohi diren hauen kasuan, antzerako gehikuntzak agertzen dira 25 urtez beherako gizonezkoen artean ere.

Beraz, emakumezkoen artean ez da belaunaldizko aldaketarik suertatu lanbide desberdinetan aritzeko aurretiko joerari dagokionez, eta aldaketa txikiren bat nabari bada, gizonezkoen artean ere berdintsu ageri da. Ikasketa-mailaren arabera ere ez dira garrantzizko aldaketak antzematen, eta baten bat izatekotan, gizonezkoen artean ere era berebean suertatu da.

— *Gizonezko nahiz emakumezkoen artean argi eta garbi antzematen dira ohizko rolak lanbide desberdinei dagokienez. Halaber, belaunaldizko aldaketak izan arren bere hartan diraute, ikasketa-mailak ere ezer gutxi eragiten dielarik.*

Elkarriketatuei, emakume batentzat zeintzu ziren nortasun ezaugarri garrantzizkoenak bere lanbidean arrakasta ukateko galdetu zitzaizkionean, honako hauek izan ziren aipatuena, (aniztasun erantzuna):

	EMAKUMEEN %	GIZONEN %
Lanerako gaitasuna	67	64
Adimena	63	64
Ekimena	48	42
Burrukarako kemena	46	41

Galdera berbera baina gizonezkoei buruz egin zenean, honako erantzuna hauek jaso ziren, (aniztasun erantzuna):

	EMAKUMEEN %	GIZONEN %
Lanerako gaitasuna	66	69
Adimena	64	64
Ekimena	48	44
Burrukarako kemena	44	44

Labur esanda, bai gizonezkoarentzat eta bai emakumezkoarentzat bere lanbidean arrakasta lortzeko ezaugarri berberak aipatu ez ezik, hots, lanerako gaitasuna, adimena, ekimena eta burrukarako kemena, lehentasun berberak agertzen dira eta, horrez gainera, kasu bakoitzari dagokionez ere, erantzun berdinak jasotzen dira emakume nahiz gizonezkoen artean. Ikus daitekeen desberdintasun bakarra zera da, emakumezkoek gehixeagotan aipatu zutela ekimena eta lis-karretarako gaitasuna.

Aipatutako beste kualitateei dagokienez, desberdintasun argi bat besterik ez da antzematen, hots, bai emakumezkoek eta bai gizonezkoek garrantzi handiagoa ematen diotela agintzeko ahalmenari gizonezkoek arrakasta lortzerakoan, emakumezkoen % 26ak eta gizonezkoen % 29ak adierazitakoaren arabera; kualitate berbera emakumezkoen % 12ak eta gizonezkoen % 16ak aipatzen zutelarik emakumezkoentzat. Aitzitik, emakumezkoen kasuan, garrantzi handiagoa ematen zaio begikotasunari eta jende-hartze onari eta baita xarmangarritasunari ere, nahiz eta azken hau emakumezkoen % 4ak eta gizonezkoen % 8ak besterik ez aipatu.

Adin-tarteen edo ikasketa-mailaren arabeko azterketa zehatzagoa eginik ere ez dira funtsezko diferentziak agertzen. Aipatzekotan, unibertsital ikasketak dituztenentzat lanerako gaitasuna eta adimena gainontzekoentzat baino garrantzizkoagoak direla aipa daiteke.

— *Gizonezkoak eta emakumezkoak bat datoz, hala emakume batek, nola gizonezko batek, bere lanbidean arrakasta ukateko izan behar dituen ezaugarri nagusiak balioztatzerakoan. Aipatzekotan, desberdintasun bakarra aipa daiteke, hots, bai gizonezkoek eta bai emakumezkoek garrantzi handiagoa ematen diotela agintzeko ahalmenari gizonezkoengan.*

ERITZI ETA JARRERA OROKORRAK

1.7

Atal honetan zehar, lan ihardueretan ari den biztanleriak emakumezkoen lan partaidetzari lotu-tako lau gai nagusiri buruz dituen eritzi eta jarrerak aztertuko dira, hots:

- Emakumezkoak bigarren mailako eskulangilegotzat jotzea.
- Emakumezkoen lana famili interesen menpe izatea.
- Emakumezkoek lanerako aukera eskasagoak izatea.
- Emakumezkoen artean lan abstenzionismo handiagoa izatea.

Guzti hau dela eta, gogoratu beharra dago azalduko den informazioa eritzi eta jarreretatik atera dela eta beroriek askotan ez datozela bat portaerekin.

Emakumezkoak bigarren mailako eskulangilegotzat jotzeari buruzko eritzi eta jarrerak, hurrengo galderoi emandako erantzunak pilatzetik atera dira:

- “Krisialdian, emakumezkoek lanari utzi behar diote gizonezkoek lan egin ahal dezaten”.
- “Negoziotan gizonezkoak emakumezkoak baino hobeak dira”.
- “Hobe gizonezko buruzagia emakumezkoa baino”.

Horrenbestez, emakumezkoak bigarren mailako eskulangiletzat jotzeari buruzko eritzi hauek jaso ziren:

	EMAKUMEZKOEN %	GIZONEZKOEN %
Erabateko adostasuna	1	6
Nolabaiteko adostasuna	3	12
Ez ados, ez desados	9	20
Nolabaiteko desadostasuna	33	32
Erabateko desadostasuna	53	32
Ez daki	1	1

Ikus daitekeenez, lan egiten duten emakumezkoetarik ia denak, % 86ak, bere burua bigarren mailako eskulangiletzat hartzearen aurka daude, % 53a erabat aurka eta % 33a partzialki, % 4 bat, ordea, bat datoz eritzi horrekin. Aurkako jarrera hau aztertutako emakume-talde guztien artean nabarmenki nagusitzen bada ere, beheranzko joeraz ageri zaigu adina gehituz doan neurrian, ikasketa-mailarekin, ordea, alderantziz, gertatzen da. Gutxien errefusatzen dutenak 45 urtez gorako emakumezkoak dira, hauen portzentaia % 64eraino jaisten bait da.

Gizonezkoetarik gehienak ere, % 61a hain zuzen, emakumezkoak bigarren mailako eskulangilegotzat jotzearen aurka daude, hala ere, % 18a ados agertzen da eta % 20a ez alde ez aurka. Emakumezkoen kasuan bezala, aurka egotea adinarekin gutxitu eta ikasketa-mailarekin gehitu egiten da. Jarrera hori gutxien errefusatzen dutenak 45 urtez gorako gizonezkoak, etxetik kanpo lan egiten ez dutenen senarrak eta lehen mailako ikasketak baino ez dituztenak dira, hauek % 50a agertzen bait dira eritzi horren aurka.

— *Emakumezkoen artean erabateko errefusa ageri da beren burua bigarren mailako eskulangileztatik hartzerakoan. Gizonezkoen kasuan, berriz, gehienak aurka agertzen badira ere, talde garrantzizko bat ados dago eritzi horrekin. Bai emakumeengan eta bai gizonezkoengan errefusa hori adinarekin gutxitu eta ikasketa-mailarekin gehitu egiten da.*

Emakumezkoen lana familiaren interesen menpe izatea ala ez, ondoko esaldiei emandako erantzunetan oinarritu da:

- “Ume txikiak izanik lan egiten duen emakumeak ez ditu bere ama-eginbeharrak betetzen”.
- “Emakumearen lanaren ondorioz bikotearen artean arazoak sortzen badira, logikoa da emakumeak bere lan maila galtzea”.
- “Emakume batek ez du lan hobekuntzarik onartu behar, horretarako familiak bizilekuz aldatu behar badu”.

Menpe izate horrekiko adostasun-maila hauek jaso ziren:

	EMAKUMEZKOEN %	GIZONEZKOEN %
Erabateko adostasuna	3	8
Nolabaiteko adostasuna	6	14
Ez ados ez desados	11	20
Nolabaiteko desadostasuna	28	29
Erabateko desadostasuna	50	27
Ez daki	2	2

Emakumezkoen lana familiaren interesen menpe geratzearen aurka daudenen portzentaiak eta emakumezkoak bigarren mailako eskulangileztatik hartzearen aurka agertutakoenak berdintsuak dira, pixkat txikiagoak beharbada. Emakumezkoen gehiengo handi bat, % 78a, aurka agertzen dira, % 50a erabat aurka eta % 28a partzialki; gizonezkoen artean, berriz, erdia baino gehiago aurka daude, % 56a hain zuzen, hala ere, erabat aurka eta aurka partzialki daudenen kopuruak berdinak dira. Aitzitik, familiaren interesen menpe izatearen aldeko jarrera erakusten dute emakumezkoen % 9ak eta gizonezkoen % 22ak.

Kasu honetan ere, aurka egotea adinarekin gutxitu eta ikasketa-mailarekin gehitu egiten da, eta 45 urtez gorako gizonezkoek emakumezkoen etxetik kanpoko lanaren gainetik jartzen dituzte familiaren interesak.

— *Emakumezkoen gehiengo handi bat eta gizonezkoen erdiak baino gehiago, emakumezkoen lana familiaren interesen menpe jartzearen aurka agertzen dira. Bai emakume eta bai gizonezkoengan, aurka egote hori adinarekin gutxitu eta ikasketa-mailarekin gehitu egiten da. 45 urtez gorako gizonezkoentzat, berriz, familiaren interesak emakumezkoen lanaren gainetik daude.*

Elkarriketatuei “Emakumezkoek lanerako aukera eskasagoak dituztenentz” galdetu zitzaientean, honako erantzun hauek izan ziren:

	EMAKUMEZKOEN %	GIZONEZKOEN %
Erabateko adostasuna	71	61
Nolabaiteko adostasuna	10	13
Ez ados ez desados	4	6
Nolabaiteko desadostasuna	5	4
Erabateko desadostasuna	8	13
Ez daki	2	3

Gizonezko eta emakumezkoetarik gehienak, % 74a eta % 81a hurrenez hurren, emakumezkoek gizonezkoek baino lanerako aukera eskasagoak dituztela aitortzen dute, hala ere, gizonezkoen % 17a eta emakumezkoen % 13a ez datoz bat eritzi honekin. Eta ez da aldaketa aipagarririk agertzen aztertutako aldagaietako edozeini dagozkion emaitzen arabera.

— *Gizonezko eta emakumezko gehienek aitortzen dute emakumezkoek gizonezkoek baino aukera eskasagoak dituztela laneratzekoan.*

Azkenik, "Emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino lan abstenzionismo handiagoa ematen dela" esandakoan honako emaitzak jaso ziren:

	EMAKUMEZKOEN %	GIZONEZKOEN %
Erabateko adostasuna	45	50
Nolabaiteko adostasuna	9	12
Ez ados ez desados	7	11
Nolabaiteko desadostasuna	5	3
Erabateko desadostasuna	26	15
Ez daki	8	9

Gizonezko eta emakumezko gehienek, % 62ak eta % 54ak hurrenez hurren, eritzi berbera dute, hala ere, emakumezkoen artean, bereziki, desadostasun handia dago, % 31a aurka bait daude. Emakumezkoek dagokienez, aldeko jarrera nagusitzen da sei urtez beherako seme edo alabak dituztenen artean, eta gizonezkoen kasuan, adinarekin gehitu eta ikasketa-mailarekin gutxitu egiten da ados daudenen kopurua.

— *Gizonezko eta emakumezko gehienek diote emakumezkoen lan abzentismoa handiagoa dela, alabaina, asko dira, emakumezkoak, batez ere, eritzi horrekin bat ez datozenak.*

Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko lan alorreko berdintasuna bultzatzeko neurririk garrantzikoenerari buruz galdetu zenean, jarraian adierazten diren hiru erantzunak gailendu zitzaizkien gainontzekoei:

- Hautzaindegiak, eskola-jantokiak eta hirugarren adinekoentzako zerbitzuak hobetzea, erantzun zuten emakumezkoen % 33ak eta gizonezkoen % 38ak.
- Familiaren eginkizun eta erantzunkizunak gizonezkoen eta emakumezkoen artean hainbanatzea, aipatu zuten emakumezkoen % 31ak eta gizonezkoen % 21ak.
- Famili erantzunkizunak dituztenentzat lantsaio murriztua eta ordutegi malgutasuna araupe- tzea zen garrantzikoena emakumezkoen % 19arentzat eta gizonezkoen % 17arentzat.

Gizonezkoak eta emakumezkoak hiru neurri nagusiokina eta beraiekiko lehentasunekin bat da- tozen arren, emakumezkoek kezkatuago agertzen dira etxeko lanen hainbanaketa bultzatu be- harrari dagokionez.

Hautzaindegiei, eskola-jantokiei eta hirugarren adinekoentzako arretari dagozkien zerbitzuen hobekuntza, berriz, areago aipatu zuten 35 urtez gorako emakume nahiz gizonezkoek eta baita ezkonduak ere.

Etxeko lanen hainbanaketa bultzatzearen aldeko eritzia, bestalde, gazteen artean nabarmendu zen, 25 urtez beherakoan artean, batez ere, hauetako gizonezkoen % 36ak eta emakumezkoen % 45ak aipatu zutelarik.

Azkenik, lantsaio murriztua eta ordutegi malgutasuna araupe- tzearen aldeko jarrerak portzentaia berdintsuak lortu zituen aztertutako gizatalde desberdinen artean, ezkutuko ekonomian edo lan hartueman berezi batez lan egiten duten emakumezkoen artean izan ezik, hauetako % 11ak baino ez zuten aipatu eta.

Proposatu ziren gainontzeko neurriak oso urruti gelditu ziren onarpen-mailari dagokionez, hor- taz, aipamen gehien izan zituenak % 5a besterik ez zuen jo:

- Gizonezkoenak izan ohi diren lanetan emakumezkoak kontratatzen dituzten enpresak sariz- tatzea, gizonezkoen eta emakumezkoen % 5ak aipatu zuten.
- Etxeko lanetan laguntzeko kontratatutako pertsonaren alokairua zergarindu edo desgraba- tzea, gizonezkoen % 5ak eta emakumezkoen % 3ak.
- Famili erantzunkizunak dituzten emakumezkoak kontratatzen dituzten enpresak sarizatzea, emakumezkoen % 3ak eta gizonezkoen % 4ak.
- Amatasunagatiko bajak aldarteko kontratue- z betetzen dituzten enpresak sarizatzea, emaku- mezkoen % 2ak eta gizonezkoen % 3ak.
- Langile eta enpresarien sindikatu- etan emakumezkoen partehartzea bultzatzea, emakume eta gizonezkoen % 2ak.

Azkenik, neurri nagusiaz galdetu beharrian, hiru neurri garrantzizkoenak zeintzu izan litezkeen galdetuz gero, berriz agertzen dira neurri-sail biak bereizirik, baina lehenengoan aldaketa argi bat suertatzen da lehentasunari dagokionez, hots, orain gehien aipatzen dena etxeko lanen hainbanaketa bultzatzeari buruzko neurria dugu, gizonetzkoen % 55ak eta emakumezkoen % 68ak, hain zuzen; eta haurtzaindegi eta jantokien zerbitzuak hobetu beharra bigarren tokian agertzen da, emakume eta gizonetzkoen % 55ak aipatzen dutelarik.

— *Lan alorreko berdintasuna bultzatzeko neurri garrantzizkoenez galdetzean honako hauek aipatu dira gehien bat: etxeko lanaren hainbanaketa bultzatzea; haurtzaindegiak, eskola-jantokiak eta hirugarren adinekoen arretarako zerbitzuak hobetzea; eta lan alorreko malgutasuna. Jendearen eritziz, enpresentzako dirulaguntzak edo pizgarriak ez dira horren garrantzizkoak.*

2

KUALITATEZKO AZTERKETA

SARRERA

2.1

Kualitatezko fasean aztertutako informazioa banakako hamazortzi solasaldietan eta taldekako bost bileretan adierazitako eritzi eta jarreretatik atera da, eta aniztasunari leku egitekotan ahalik eta dibertsifikaziorik handienari jarraitu bazaio ere, estatistikaren aldetik, behinik behin, lagin honek ez du ordezkartasunik.

LAN EGITEKO ERAGINGARRIAK

2.2

Eragingarri edo motibazioen aldetik, desberdintasuna da nagusi elkarrizketatutakoen artean, eta horietako askok ez dutela lan egiteko eragingarri berezirik behar aitortu dute. Bizitzako une batetara heldutakoan, emakumezkoek ere, gizonezkoek bezalaxe, lan egin behar dutela uste dute. Hala ere, eritzi hau ez dela erabat orokorra esan daiteke.

Gizarte-maila beheenetan beharrian ekonomikoak, batez ere, dihardu laneratzeko eragingarri gisa. Beste zenbait mailatan, ordea, ez da beti funtsezkoena, hortaz, batzutan, etxetik kanpoko lanari lotzen zaion norbere burua garatzeko beharra azaltzen da bultzagarri edo motibazio nagusi bezala.

Erantzule batzuk adierazten dutenez, emakumezkoentzat, gizonezkoentzat ez bezala, oraindik ere, ez da horren premiazkoa lanen bat aurkitzea bizitzari aurre egiteko. Gizonezkoen kasuan, zentzugabekotzat jotzen da lan merkaturatzeko motibazioez eztabaidatzea; egoera bikaina duten gutxi batzuk has litezke gai honi buruz nora ezean mintzatzen, gainontzekoek jakin badakitelako lan egitea beste erremediorik ez dutela. Nolanahi ere, emakumezkoen kasuan beste zenbait aukera ere antzematen dira. Emakumezko nahikoek badakite etxetik kanpo lan egin gabe lasai bizi daitezkeela. Beste arazo bat da horretarako gertu dauden ala ez.

Dena den, elkarrizketatutako emakumezkoen artean, lan egiten ari direnetarik gehienek ez dute etxeko lanetan soilik ihardutera itzuli nahi, eta lan desatseginenak egiten dituztenen artean ere, garbiketa-zerbitzuetan diharduten emakumezkoak edo fabrian ari direnak, esate baterako, jarraera hori da nagusi.

Lanari ez uzteko zergatiei dagokienez, arrazoi ekonomikoa ez ezik, beste zenbait ere badira, nahiz eta hura izan funtsezkoena, hots, ongizate-maila jakin bat erdietsirik berorri eutsi nahi zaio. Hortaz, elkarrizketatu emakumezko askorentzat, etxetik kanpoko lana beharrezkoa ez baina ezinbestekoa bilakatu zaien diru-iturria da. Horrez gainera, bestalde, lan egiten duten emakumezkoek, askotan, atsegin zaien hartuemanak eta giroa aurkitu dituzte euren lantokian, eta haiek galtzeko beldur dira lan horri utzi eta, berriz ere, etxeko lanetan murgiltzen badira. Elkarrizketatu askok diote beren senar-emazte hartuemanetarako ere hobe dela kanpoan lan egitea.

- *Lan merkaturatzeko eragingarri desberdinak ageri dira. Gizarte-sektore beherengoetan beharrian ekonomikoa nabarmentzen da, ez, ordea, beste sektore batzutan. Behin lan merkaturatutakoan, gehienek lanari eutsi nahi diote. Hala ere, emakumezkoentzat ez da gizonezkoentzat bezain premiazkoa lan bat aurkitzea bizitzari aurre egiteko.*

LANBIDE-HELBURUAK

2.3

Elkarriketaturiko hainbat emakumek adierazten dutenez, behin lan bat aurkituz gero, emakumezkoen artean halako erosotasun bat antzematen da lan horretan lehiatu eta mailaz igotzerakoan. Jasotako adierazpenen arabera, argi dago, orohar, gizonezkoak emakumezkoak baino irriks edo ambizio handiagoa agertzen duela bere lanbideari dagokionez. Lana, edo zehazkiago esanda lanbide-promozioa, lehentasun-maila desberdinean azaltzen da emakumezkoen eta gizonezkoen kasuan, elkarriketatutako hainbat emakumek dioenez.

Hau esan ondoren, zera aipatu behar da, berehala nabaritzen dela emakumezkoak oztopo handi bat aurkitzen duela bere burua promozionatu edo lanerako gertu izaterakoan, hots, etxeko eta familia barruko eginbeharren ondorioz erabat mugatuta dagoela, gizonezkoek ez bezala, jakina, hauek ez dituztelako eginbeharrik edo, izanik ere, jaramonik egiten ez dietelako haiei. Dena den, arrazoi honek ez du, besterik gabe, lanbide-irriks txikiago hori zertan datzan azaltzen.

Behin lanbide-maila batetara heldutakoan, emakumezko askok diru-irabazien edo lanbide-interesaren gainera jartzen dute haiek lortzeko behar den astia, familiarekin, batez ere, egoteko nahiago bait dute denbora hori. Lanbide-mailaz igo nahi ez duen gizonezko batek nekez aipatuko luke familia arrazoi gisa. Haatik, soldata eta kategoria handiagoak izateagatik arazo berriak, erantzunkizun gehiago eta astialdi gutxiago izateak ez duela merezi adieraziko luke ziu-rrenik. Familiaren lehentasuna, eta hain zuzen ere, bere seme-alabekiko hartuemanak emakumezkoen argudioak izan ohi dira ia beti. Elkarriketatutako emakumeen eritziz, bestalde, ahalmenarekiko antsia edo interesari dagokionez ere, desberdinak dira emakume eta gizonezkoen jarrerak.

Hortaz, lanean iharduteaz gainera, beren helburu pertsonalak erdiesteko etxetik irtetearen aldeko jarrera defendatu ere egin duten emakume hauetako zenbaitengan, honez gero, halako etsipen bat antzeman daiteke, hots zalantzan jartzen da lana norberaren nahiak betetzeko tresna baliagarria ote den, eta familia barruko beste zenbait alor, seme-alaben heziera, esate baterako, jorratearen aldeko jarrerak agertzen dira bizitza-kalitate handiagoa lortzeko ere. Eritzi hau ez dago oso zabaldua oraindik, baina, argi dago lanaren alderdi batzuk emakumezkoaren garapen pertsonalerako eragozpen bilaka daitezkeela, lehenago emakumezko askok somatzen ez zituzten eragozpenak. Horrenbestez, gizarte-maila goren edo ertainetako zenbait emakumezkoentzat, dagoeneko, etxetik kanpoko lana ez da aspaldiko amets setako askatasun-tresna. Honek ez du esan nahi, inola ere, supazterrerako joera berriz nagusituz doanik, alor bakoitzaren alderdirik egokienez baliatzeko nahi berria agertuz doala baizik.

lido horretatik, baita ere, Aurrezki Kutxa nahiz Bankuetan, esate baterako, goi-mailako profesio-narien artean kezka bat agertu da, hau da, lanpostu-mailan gora jo ahala gero eta emakume gutxiago daudela aurrera jarraitzeko gertu. Eta horrela, oinarritzko mailan emakumezkoen alde-tiko laneratze handiagoa gerta badaiteke ere, oposaketa hobe egin dutelako, adibidez, pixka-naka pixkanaka gizonezkoek gero eta abantail gehiago dituzte, gero eta emakumezko gutxiago agertzen bait dira burrukarako prest eta erantzunkizun handiagoko lanpostuetara heltzeko as-moz, eta guzti hori lehenago aipatutako arrazoiak direla kausa.

Hau horrela izanik ere, promozio kontuan funtsezkoena prestakuntza edo heziketa dela ematen du. Prestakuntza hoberik gabe ez dago lanbide-aurrerapenik, eta alor honetan, behintzat, ema-kumezkoak erabat kaltetuak agertzen dira bi arrazoiengatik, batez ere:

- batetik, hezkuntzaren bidez jasotako kultur estereotipo eta rolagatik, beroriek direla medio prestakuntza eskasagoa edo lanbide-mailako balioaniztasun urriagoa izan bait dituzte. Sal-buespenak salbuespen, aurrerago ikusiko dugun bezala, gizonezkoek aukeratutako bideek etorkizuneko joerei jarraitzeko egokiagoak direla ematen dute.
- eta bestetik, famili zamen poderioz, emakume askok, gaur egun ere, prestakuntza bat jaso-tzeko ahalbide gutxiago dituztelako. Gizonezkoak, halako kezkarik ez izatea, abantail handia du. Bistakoa da ezkonduetako emakume batek eragozpen handiagoak dituela ikastaroak egi-teko, eta eragozpenok areagotu egiten dira, ikastaroa egingo bada, emakumea denboraldi baterako bere bizilekutik atera behar dela-eta famili eginbeharrei utzi behar zaienean. Gizo-nezkoarentzat askoz errazagoa gertatzen da hala egiten.
- *Emakumezkoek lanbide-irrits edo ambizio txikiagoa agertzen dute, famili zama handiagoa bereganatu behar dutelako, hein batez. Gizonezkoek eta emakumezkoek lehentasun des-berdinak bide dituzte lanari eta botereari dagokionez. Oso hedatua ez bada ere, antzema-ten da, dagoeneko, joera berri bat, hots, etxetik kanpoko lana emakumezkoentzako aska-tsun-tresna bezala desmitifikatzekoa, eta kasu askotan, famili bizitza lanbide-igoera edo promozioaren gainetik jartzeko joera ere bai. Honek, ordea, ez du lanari uztea esan nahi, alderdi desberdinak elkarri egokitzea baizik.*

LANEKO DISKRIMINAZIOA

2.4

Elkarriketatuak izan diren emakumezko gehienek ustez, emakumezkoak, gizonezkoen aldean, diskriminatuak aurkitzen dira lan ihardueretan. Hau esan ondoren, hainbat matizazio egin be-harra dago, zeren diskriminazio-maila arras desberdinak somatzen bait dira kasu bakoitzaren arabera, eta gainera, zenbait kasutan, elkarriketatutako emakumeek diotena aintzat harturik, ez dago horren argi emakumeon zailtasunak diskriminaziotzat har daitezkeenik.

Aurrena, badirudi emakumezkoen lan iharduerari dagokionez bi esparru guztiz ezberdinak dau-dela, administrazioa eta enpresa pribatua, alegia. Administrazioan sartzeko aukera bera dute emakumezkoek zein gizonezkoek. Hau, printzipioz behintzat, onartuta dago. Gai honi beste

ikuspegi batetik helduz gero, bestelako eztabaida bat sortzen da, hots, hasierako hezkuntzaren ondoriozko kultur arrazoiengatik emakume asko lanbide berberetara jo ohi dutelarik, ea emakumeok gizonezkoen maila berberetik abiatzen diren zenbait lanpostutara heltzerakoan. Esan nahi bait da, hasierako kultur rolen poderioz, administrazioan ere idazkariak emakumezkoak izan ohi direla eta mantenimendu arduradunak, aldiz, gizonezkoak. Hau funtsezko arazoa dugu, us-tezko berdintasun formala nolabait kutsatu egiten duena hainbat lanpostutara heltzerako or-duan.

Dena den, elkarrizketatuen ustez administrazioarako sarbidean berdintasuna nagusitzen bada ere, ez da gauza bera suertatzen promozioari dagokionean. Izan ere, maila jakin batzutara hel-duz gero, hasierako proportzioak hautsi eta, nahitaez, gizonezkoen aldekoak agertzen direla ikus daiteke; gizonezkoek sistematikoki betetzen dituztela goi karguak eta izeneztapen askekoak. Proportzioaren aldaketaren zergatia azaltzerakoan, adierazi behar da, sarritan, ez dagokiela gi-zonezkoei soilik zein igo eta zein ez erabakitzea, halakoetan izan ohi diren irizkeria eta kultur estereotipoen eragina eta guztiz —gaur egun ezinezkoa ematen du Polizia Zuzendari Nagusi-rako emakumezko bat izendatzeak—, baina, horrez gainera, emakume askoren moteltasuna eta irits edo ambizio txikiagoa aipatu beharra dago, aurreko puntuan ere azaldu dena. Labur esanda, administrazioan somatzen den arazo nagusia ez datza sartzean, maila batetara helduz gero, administrazio barruko promozioan baizik, eta hain zuzen ere, izeneztapen askeko karguei dagokienean.

Elkarrizketatuok adierazi dutenez, bestalde, enpresa pribatuko egoera askoz ere kaskarragoa da emakumezkoentzat, eta sarbidetik bertatik da okerragoa. Lehendabizi, alokairuzko diskriminazio argia nabari dela aitortzen da, behe-mailako kategorietan, batez ere. Eta bigarrenik, enpresarien eritziz, emakumezkoek gizonezkoek baino akats gehiago dakartzate kontratazioari dagokionean. Funtsean, eta laburbildurik, hiru arrazoi aipatzen dira:

- Balioaniztasun txikiagoa. Galdetu zaien enpresa ordezkariak adierazten dutenez, gizonezko batek, edozein unetan, egiten ari den lana utzi eta zamaketan ihardun dezake, esate bate-rako, emakumezko bat, aldiz, ezin da horrelakoetara behartu. Indarra ere aipatu da, baina baita bestelako arrazoiak ere.
- Malgutasun-eza. Eskari berezi bat edo une jakin batetan sortarazitako lan handia dela eta, enpresak eska diezaieke langilei ordu batzu gehiago emateko, txanda-aldaketa egiteko edo beste lan baldintza batzutara egokitzeko. Elkarrizketatuko zenbaiten ustetan, lan egiten duten emakumezkoentzat gizonezkoentzat baino zailagoa da bapateko aldaketa horietara egokitzen. Emakumezkoek, lantokitik ordu jakin batetan alde egin ondoren, seme edo alaben bila es-kolara edo erosketak egitera joan behar izaten dute. Gizonezkoak, aldiz, etxe-eginkizun horie-taz gutxiago arduratzen direnez gero, askeago daude. Langileen artean, bestalde, badira gi-zonezkoei bai baina beraiei halakorik ez dietela eskatzen erantzun duten emakumezkoek.
- Absentismoa. Erantzun duten patroioi-ordezkariek eta baita elkarrizketatutako sindikalista batek ere adierazi dute enpresetan gizonezkoek eta emakumezkoek galdutako lan orduak zenba-turik dituztela, emakumezkoen kasuan askoz ere gehiago omen direlarik. Araba eta Gipuz-koako zenbait azterketa ikusi ahal izan dira eta esandako hori baieztan dute.

Aipatu diren akats hauetako batzu, malgutasuna eta absentismoa, esate baterako, emakumez-koek, egitatez, bereganatzen duen famili zama handiagoari erabat lotuta daude. Beste zenbait, aldiz, gizonezkoen balioaniztasun handiagoa kasu, fabriketan indarrari gehien bat lotzen zaiona,

alegia, gaur egun zaila da gaintitzen emakume batentzat. Aipatutako eritzi hauek oso arruntak eta hedatuak dira kontratatzaileen artean.

Guzti horren baitan, hala ere, langileen artean oraindik oso zabaldua den irizkeria bat dago, hau da, familia bati soldata bat dagokiolako ustea, eta ez pertsona bati soladata bat. Hau argi eta garbi bistaratu da birmoldaketa garaian, botatako gehienak emakumezkoak izan bait dira. Enplegu berriak eskaintzerakoan gertatu den bezalaxe, aurrena gizonezkoak eta ez emakumezkoak deitu eta aukeratu bait dira. Erantzunen arabera, elkarrizketatutako emakumezko askoren artean, eurek argi esaten ez duten arren, halako giro berezi bat nabari da, hots, emakumezkoen lana bigarren mailako zerbait da, kultur arrazoiengatik, batez ere, baina arrazoi hauen sus-traian zera antzematen da, funtsezko soldata etxeraten dutenak gizonezkoak izan ohi direla.

Bestelako egoera nabari zaie Unibertsitatetik irten diren edo nolabaiteko mailako ikasketak di-tuzten emakumezkoei. Hauen artean oposaketak egiteko eta administraziorako joera argi bat ikus daiteke, bide horretan emakumezkoek oztopo gutxiago aurkitzen dutela uste dutelako, agian. Beste alde batetik, agintzeko ahalmena, taldeen zuzendaritza eta lanpostu beterazleak bezalako beharkizunak eskatzen dituzten enpresa pribatuko lanpostuetara heltzeko eragozpe-nez jabeturik daude. Gero eta gehiago dira enpresa pribatuko lanpostu gorenetan aurki daitez-keen emakumezkoak, alabaina, maila handiko enpresetako gerentzia beterazleak, oraindik ere, alor gebenduak dira emakumezkoentzat. Pertsonalaren aukeraketako aditu zenbaiten esanetan, ez dute emakumezko gerente beterazlea duen enpresarik ezagutzen Euskal Herrian, eta nola-nahi ere, lanpostu horietara emakumezko gutxi aurkezten direla diote. Egoera zaila emakumez-koentzat, zeren, lanpostu horietara, maila txikiagoko enpresetan zeregin berberetan aritu on-doren sartzea bait da ohizkoa, eta horrenbestez, emakumezkoek itxita aurkitzen dute sarbidea. Orohar, eragozpenak eta aurkako kultura bat nabari da emakumezkoak fabrikako lanpostu be-terazleetan sartzeari dagokion guztian. Proiektuetan sartzea tira, baina beterazle-esparruan ez. Horixe gertatzen zaie emakumezko aparejadorei, beren lanbide-buruan administrazioan aurki-zen direnak eta ez obrak zuzentzen.

Aspaldi honetan, aitzitik, emakumezkoentzako gizonezkoentzako baino aukera gehiago antze-maten dira merkatal alorreko eta kopuru mugatuko giza-hartuemanen alorreko lanpostuei da-gokienez. Ustez gizonezkoei datzekien agintzeko ahalmena, gaur egun muga gabarik erabiliz gero hain kaltegarria suerta daitekeena, erabilgaitza suertatzen zaielarik, emakumezkoek sarri-tan era eta modu oso desberdinez baliatu behar izan dute besterengana jo eta hartuemanak izateko. Guzti honen ondorioz, bokazio eta sentiberatasun handiagoa ez ezik, gaitasun handia-goia ere bereganatu dute giza-baliabideei eta hartueman publikoei dagokien guztian,

Alor hauetan, beraz, ahalbide berriak zabaltzen ari dira emakumezkoentzat, arestian somagai-tzak zirenak. Elkarrizketatuetako askok diotenez, emakumezkoa izateagatik zenbait erraztasun dituzte lan horiek burutzerakoan, hala nola trataera eta iharduketa mailan, gizonezkoei galera-ziko zitzaizkiokeenak. Honek zera erakusten du, gizonezkoen menpe dagoen alorretan sartzeaz gaintzi, adierazitakoaren arabera berez zaila gertatzen dena, eginkizuna beste zerbait ere ba-dela, hots, oraingoz inork jorratu ez dituen eta horrexegatik, besteak beste, emakumezkoentzat egokiagoak gerta daitezkeen lanbide-alorrak asmatu eta eratzea.

Deigarria da, azkenik, goi-mailako lanpostuetan dauden emakumezkoek behin eta berriz kriti-katzen dituztela emakumezkoen beraien zenbait jarrera, hau da, emakumeengan nabari den geldokeria eta erosokeria, eta horrela haien kritika ugarietak emakumezkoei zuzentzen zaizkie. Elkarrizketatuetako askok nekez onartzen dute diskriminazioaz hitz egiten hastea, azken finean,

ez bait dute bere burua diskriminaturik ikusi. Onartzen dute lan bikoitzaren ondoriozko lorrak badirela, baita gizonezkoen adinako gaitasuna dutela frogatzeko jasan behar izan dituzten zain-tzaren ondoriozko eragozpenak ere, baina diskriminazio hitzari gogorregia deritzote, eta emakumearen promoziorako oztopo handiagotzat jotzen dute emakume askoren nagikeria eta lanbide-ambiziorik eza, mailaz igo eta lanbidean aurreratzeko emakume izateari datxekion eragozpenak baino.

— *Diskriminazioari dagokionez, administrazioko egoera eta enpresa pribatukoa arras desberdinak dira. Administrazioan, printzipioz, sarbide bera eta alokairu bera dira denontzat, promozioa, ordea, ez. Enpresa pribatuan, aitzitik, ez sarbidea ez eta promozioa, eta zenbait kategoriatan soldata ere ez, nahiz eta, soldata kontuan, azken urteetan egoera hobetu den. Umeei hastapeneko hezkuntzatik atxekitzen zaizkien kultur rol deberdinak, askotan oztopo gaindiezinak bilakatzen dira etorkizunean. Gaur egun emakumeen aldeko abantail bakarra merkatal alorrari eta giza-hartuemanen dagozkien lanbideetan ageri da. Lanbide-maila handiko emakumezkoek, emakume izatetik eratorritako eragozpenez gaindi, emakumezkoen ambizio-eza azpimarratzen dute.*

LANEKO HARTUEMANAK

2.5

Elkarriketatuak izan diren emakume guztiek adierazi dute lanean hartueman onak dituztela gizonezkoekin, zenbait kasutan laguntza eta ulerkortasuna ere aipatu dira. Sexu-erasoen arazoak ere oso mugatua ematen du, dirudienez ez da ohizkoa ez eta normala gure enpresa eta lan-tegietan.

Lanpostuari buruzko erreibindikazioekiko ardura eta konpromisu-maila aldakorra antzematen da, hots, sarritan bakoitzaren lanaren inguruabarren edota segurtasun eta egonkortasunaren ar-bera aldatzen dena. Horrela bada, erreibindikazioei gehien eusten dietenak administrazioko emakumezkoak dira, bertako gizonezkoak baino gehiago ere bai; garbiketa alorrean, ordea, al-derantziz gertatzen da, segurtasun-eza eta prestakuntza eskasagatik agian. Guzti hau, azterlan honetarako galderei erantzun dietenen eritzien arabera, jakina.

Badira zenbait emakumek sortarazten dizkieten barne gatazken kexu agertzen diren enpresa-riak, eta hori kontratazioak egiterakoan ere nabaritzen da. Hortaz, emakumezkoak bere intere-sak defendatzen badakiela ematen du, eta ez da, sarritan entzuten den bezala, errazago kon-formatzen; haatik, lan erreibindikazio nabarmenetan ia beti agertu ohi dira gizonezkoak eta ez emakumezkoak protagonista gisa. Esan nahi bait da, egoera oso desberdinak direla, ondorioak ateratzen zaila delarik. Nolanahi ere, badirudi emakumezkoek sindikalgintzarekiko konpromisu apalagoa erakusten dutela, eta orohar, konpromisu hori unean-uneango arazo jakinei lotuagoa dela, gizonezkoen kasuan ez bezala, hauengan ideologiazko kutsu nabariagoa somatzen bait da.

Sindikatuaren artean, berriz, ez da halako lehentasun berezirik somatzen emakumezkoen pro-mozioari buruz, hala ere, gertakizun jakinetan erantzun dute eta gai honekiko sentiberatasuna

ere agerikoa da, batzutan oso argia, gainera, diskriminazio gori-goriko kasuak ere salatu dituztelarik sindikatuok Gizarte Epaitegiaren aurrean. Dena den, sindikatuen lehentasuna ez dago hor, izan ere, beste arazo batzu larriagoak eta lehenago konpondu beharrekoak bait dira euren ustez.

Hau horrela izanik, ez da ahaztu behar sindikatueta gizonetzkoak izan ohi direla nagusi, are nagusiago erantzunkizun goreneko karguetan, berauetan nekez aurki bait daiteke emakumezkoarik. Beste alde batetik, sindikatuak euren bezeroen ispilu dira eta horietako gehienak ere gizonetzkoak direnez gero, ez da harritzekoa emakumezkoen lanari buruzko irizkeriak agertzea, bigarren mailakoa lana dela..., eta lehenago azterlan honetan aztertutako bestelakoak. Beste moldez esanda, galdetu zaien enpresek ez dute espero sindikatuak kezkarik handiena eta gogorren defendatuko dutena emakumezkoen promozioa izan dadin, jakin badakitelako erreibindikazio horren aurretik sindikatuentzat premiazkoagoak eta orokorragoak diren beste gai batzu planteatuko direla.

Mugimendu feministan ari diren emakumezkoek, gizarte honetan "arrakasta" lortu duten emakumezkoak halako "gizontze" prozesu baten baitan ikusten badituzte ere, elkarrizketatu askoren ustez, lanpostuak dira hain zuzen ere zenbait ezaugarri edo balore eskatzen dituztenak, aurretiaz, irizkeria edo ohitura dela medio, gizonetzkoek lotzen zaizkionak. Maskulinizazio hori dela eta, esan behar da, halaber, progresistak omen diren sektoreetatik jaurtikitako kritika hori, kurioski, bat datorrela etxeko lanen esparru hestutik irten eta ordurarte gizonetzkoari lotzen zitzaizkion lanbideetan sartu besterik nahi ez zuten emakumezkoen aurka sektore atzerako zenbaitetik jaurtikitako "marimotrailu" delakoarekin. Bai gizonetzkoen artean eta bai emakumezkoen artean denetarik dago, izakera eta ezaugarri oso desberdinak, jakina, baina lanbidean arrakasta erdietsi duten edo hura erdietsi nahi duten emakumeetako askori nabari zaie beste eginkizun batzurenganako ardura, denari erantzun nahia, egoera horretan dauden gizonetzkoengan nekez aurki daitekeen jarrera. Gizonetzkoak, alderantziz, sarritan lanbide promozioaz eta lanaz baino ez direla arduratzen ematen du.

Elkarrizketatuen erantzunak aintzat harturik, halaber, badirudi emakumezkoak, gehienetan, gizonetzkoak baino zerbait gehiago frogatu beharra izaten dutela lanpostu bera lotzerakoan; bai gizonetzkoen eta bai emakumezkoen aldetik nabari den alde aurretiko nolabaiteko mesfidantza gainditu behar izaten dute, batzutan berehala desagertzen dena, baina beste batzutan indarrean dirauena, eta horrenbestez, emakumezkoarengan etengabe begiratuta egotearen zentzua sortarazten duena. Beste alde batetik, lanbide-tentsio handiagoa dakar, mesedegarria nahiz kaltegarria izan daitekeena. Elkarrizketatu emakumezko askok adierazi zuten eurek ez zutela kanpo-bultzagarriak behar lanbide alorrean eguneraturik izateko, emakumezkoak ziren aldetik beren egoerak horretara behartzen zituelako.

Gizonetzkoak ez du inolako arazorik lana eta familia elkarri egokitzerakoan, familiarenganako bigarren mailako ardura erakusten bait du, emakumezkoek, ordea, lantegi gogorragoa dute, eta horrela, elkarrizketatu emakume batzuk esaten dute lehendabiziko lanpostuek, batzutan, familiarteko bizitzarekiko sakrifizioa dakartela emakumezkoentzat. Erantzun duten emakumezko gehienak, ordea, lehenago ere adierazi den bezala, bata eta bestea, familia eta lana, alegia, batera eramaten saiatzen dira, askotan zaila gertatzen zaiena, zeren, batzutan, astirik ez edukitzeaz gainera, seme edo alabekiko trataera dela eta erruduntasun konplexuak ageri dira, edo beste batzutan, senarrekiko hartuemanak aldarazten dira eta egoera bortxatuak sortu, senarretarik gehienak, gehiago kobratzen dutenean, batez ere, beren lana garrantzizkoena dela uste bait

dute. Osterantzean, emakumeak gehiago kobratzen badu, alor honetan nagusi den kultur giroa medio, gizonezkoak nekez onar ditzakeen egoerak suertatzen dira, benetako gatazkak ere sortzen direlarik.

— *Gizonezkoen eta emakumezkoen artean hartueman onak daude lantokietan, sexu-erasoak kasu jakin batzutura mugatzen direlarik. Emakumezkoen eskuhartze txikiagoa nabari da sindikalgintzan, baina errebindizioak egiten dituzte. Maila jakin batetara heltzeko, emakumezkoek alde aurretiko mesfidantza zenbait gainditu behar izaten dituzte, batzutan erraz desagertzen direnak, baina beste batzutan ez. Lanaz eta familiaz arduratu beharrak, batzutan, erruduntasun konplexuak sortarazten ditu zenbait emakumeengan.*

LANA ETA NORBERE ETXEA

2.6

Jaso diren adierazpenen arabera, gai honi dagokionez halako belaunaldizko aldaketa bat eman dela dirudien arren, argi dagoena zera da, emakumezkoek, gizonezkoek baino portzentaia askoz handiagoan, oraindik ere bere gain hartzen dituztela etxetik nahiz seme-alabengandik eratorritako famili zamak.

Gizonezko baten eta emakumezko baten artean funtsezko desberdintasun bat ageri da etxeko eginkizunei dagokienez, hots, emakumezkoak, hasieratik, bere eginkizuntzat hartzen dituela eta gizonezkoak ez. Bere eginkizuntzat hartzeak, kasu honetan, etxeko arazoak orokorrean onartzea, gerta daitezkeenak aurikustea eta, jakina, lan egitea esan nahi du. Gizonezkoek, orohar, zer egin behar etxean galdetzen dute, zertan lagundu diezaioketen emakumeari. Ez dute etxean gertatzen denaren berri, eta nahitaezko erantzuna eskatzen duten arazo, gabezia nahiz inguruabar horiek aurikusi beharra da, hain zuzen ere, emakumezkoari kezkagarriena gerta dakiokeena, ardura hori itsatsirik bait darama. Gizonezkoa, aldiz, bertatik irten bezain laster ahazten da etxeaz.

Kasu asko dira, oraindik ere, heziketa eskaseko gizarte-mailetan bereziki, non gizonezkoak uko egiten dion etxeko edozein eginkizunez arduratzeari edo lanen batetan laguntzeari. Azken finean, eta batzutan halaxe adierazten du, emakumeen gauzak direla uste du. Badira emakumeak ere, oraindik, etxeko lanak beraien eginkizuna eta ez beste inorena dela uste dutenak, eta etxetik kanpo lan egiteari ekiten badiote, beraiek etxean ez egoteagatik sortarazitako arazoa euren diruaz konpontzera beharturik sentitzen dira.

Hala eta guztiz ere, egia da gizonezkoak hasiak direla etxeko lanez arduratzen, nahiz eta lankidetzara hori oso desberdina den kasu batzutatik bestetara. Harrigarria da alor honetan aurki daitekeen egoera-saldo desberdina.

Elkarrizketatuak izan diren gizonezkoetako askok kritika berbera agertu dute —emakumezkoek ere onartzen dutena, bestalde— hots, emakumezkoek ez dietela erabakiak hartzen uzten etxeko lanei dagokienean, ez dietela etxean lan egiteko benetako aukerarik ematen eta, ematekotan, ezinbestez, alde aurretik emakumeok ezarritako jokabideei jarraitu behar dietela, lanok haiek

ezarritako moduan egitera derrigorturik izaten direla. Eta hala onartu ezik, emakumezko askok ere diotenez, emakumeok eurok egitea nahiago dute. Gizonezkoek lantokiko lanak beraien ardurapean uzten dituzten neurri berberean uzten dituztela etxeko lanak gizonezkoen ardurapean erantzun dute zenbait emakumek. Guzti honen baitan zera egon daiteke, hots, ohizko kulturari emakumezkoen “agintepeko” espazio bakarra etxea izan dela.

— *Orohar, emakumezkoek bere gain hartzen dituzte oraindik famili zamak, eta etxeko lanetan laguntzeari uko egiten dioten gizonezkoak edota etxeko lanen ardura beraiei eta ez beste inori dagokiela uste duten emakumezkoak ere badiren arren, elkarrizketatutako gehienek diotenez, garrantzizko aldaketa bat nabari da azken belaunaldian.*

Dena den, egoerarik egokienetan ere, gizonezkoak “lagundu” baino ez du egiten, erantzunkizun eta ardura orokorra, ia beti, emakumezkoen gain geratzen bait da. Emakumezkoek, bestalde, gaitasun eskasa erakusten dute lan hori gizonezkoen ardurapean uzterakoan.

Emakumezkoek beren gain hartutako lan bikoitzak badu eragina absentismoari dagokionean. Emakumezkoen absentismoa ez da emakumezkoen biologia bereziari datxekion kausengatik soilik suertatzen, aitzitik, sarritan, semeak edo alabak gaixorik daudenean haiek zaindu behar izaten dituztelako gertatzen da. Egoera hau dela eta, maltzurkeriaz ere jokatu izan da zenbaitetan, eta ondorioz, emakumezkoari halako irudi jakin eta bitxia erantsi zaio lan munduan.

Emakumezkoen lan bikoitzak, absentismoan ez ezik, beste zenbait alorretan ere badu eragina, haren ondorioz emakumezkoak malgutasun edo aukera gutxiago bait du ikastaroak egin, bere burua prestatu eta, horrenbestez, lanbide-bizitzan aurrera egiteko.

— *Emakumezkoen lan bikoitzak, absentismoan duen eraginaz gainera, lan malgutasun-eza dakar.*

ETORKIZUNAREKIKO JARRERA

2.7

Etorkizunari dagokionez, nolabaiteko jarrera baikorra soma daiteke. Zentzazio hau, dena den, erabat ñabarra da.

Belaunaldien arteko konparazioan oinarritzen den baikortasuna dugu; hortaz, bai gizonezkoek eta bai emakumezkoek iragana dute gogoan, beren gurasoekiko hartuemanak, beren amaren portera eta jarrera aintzat hartzen dituzte, eta beraiekin eta beren seme-alabekiko jokaerekin konparatzen dituzte. Horrenbestez, argi dago bilakaera bat badela. Bestelako arazoa da aldaketan erritmoarena, askoren ustez, hura ez bait da horren azkarra suertatuko, iraganean bezain azkarra ere ez, agian. Lege-oztopoak desagertuz doazela uste da, berdintasun zabalagoa erdiestearen aldeko giroa ere badela, baina, funtsezko arazoak hasierako kultur rolen baitan dirauela ulertzen da, eta kultur rolok gero-gero lanbidea ia erabat mugatzen dutela. Elkarrizketatuak izan direnen arteko emakume-talde batzuk, halaber, ekonomi abagaduneari lotzen diote gero-gero bilakaera, haien ustez, emakumezkoen aurrerapena suertatuko bada, ezinbestekoa bait da lanpostu gehiago ekar ditzakeen egoera ekonomiko egokia izatea. Emakume askoren ustez,

ekonomia hobetu ezik, zaila izango da lanposturen bat eskuratzen, eta horrenbestez, lanbidean aurrera egiten.

Etorkizunarekiko jarrera desberdinak agertzen dira, halaber, emakumeen adinaren arabera; izan ere, oso desberdinak bait dira, esate baterako, dagoeneko famili zamarik ez izanik, orain hogeitau urte utzitako lan merkatura itzuli nahi duen 45 urtetako andre ezkonduaren egoera eta Unibertsitatean ari den 20 urtetako neska ezkongabearena. Kasu bi hauetan, adibidez, arras desberdinak bata zein bestearen ahalbideak edota jokamugak, eta baita etorkizunarekiko ikuspegia ere.

– *Etorkizuna baikortasunez ikusten da, nahiz eta eragozpen ugari izango diren eta aldaketen erritmoari buruzko eritzi desberdinak dauden. Ekonomi abagaduneari ez ezik, emakume bakoitzaren egoera bereziari ere lotzen zaio.*

BERDINTASUNA BULTZATZEKO JOKABIDEAK

2.8

Orohar, oneritzia da nagusi emakumezkoentzako Erakundeei dagokienez, hala ere, badira erakundeok agintea izan dezan alderdiaren jokaera politikoa zuritzeko tresna huts bilakatzearen beldur direnak, agintzen duenak, halako Erakunde bat sortuz gero, dena eginda dagoela edo uste izango duelakoan. Erakundeon aldeko pertsona gogatsuak ere badira, ordea. Eritzi kontrajarriagoak nabari dira, aitzitik, emakumezkoari zuzendutako politika berezien beharra dela eta ez dela.

Orohar, goi-mailako lanbidea lortu duten emakumezkoengan aurkako jarrera agertzen da, eta neurri orokorrak hobetsi dituzte, hau da, heziketa eta kontzientziakuntzaren bidez emakumezkoak edozein lanpostutara heltzeko gai izan daitezen lortzea, batez ere. Emakumezko hauen eritziak, hasierako rolez gainera, bada funtsezko une bat lan egiten ari den emakumearen bizitzan, hots, familia bat sortu eta seme-alabak izateari lotzen zaiona. Egoera horretan kontraseinak sortzen zaizkio emakumezkoari, gizonezkoari ez bezala, eta haien ustez, konponbidea norbere erabakian datza eta ez politika publikoaren alorrean. Emakumezko hauek, bestalde, emakumezkoentzako promozio politiken ondoriozko kanpo-bultzada errefusatu egiten dute nolabait. Beraien ustez, norbera saiatu behar da, emakume bakoitza. Beraz, jokabide nagusia hezikuntza eta kultur alorretara mugatu beharra dago.

Elkarriketatutako gehienek onartzen dute feminismoak historian zehar izan duen jokaera oparoa, eta baita hark defendatu ohi dituen hainbat balore ere. Alabaina, erakunde feministengan dik aparte izateko nolabaiteko joera ere nabari da, haien ustezko gehiegikerien aurkako jarrera, eta behin eta berriz adierazten dute erakundeok ez dutela gaur egungo emakumezkoen benetako egoera behar bezala ezagutzen, lan alorrekoa, batez ere. Elkarriketatuak izan diren emakumezko batzuk, hots, horrelako erakunde desberdinetan dauden eta burrukarako adorea nahiz edozein lanpostu lortzeko kemena erakutsi duten emakume horiek, batzutan elkarren aurka aritzen dira etika eta familia arrazoiengatik.

Komunikazio-arazo bat dago erakunde feministen eta gizartearen artean. Elkarriketatutako emakume askok irudi bitxia dute erakundeei dagokienez, sinplekeriari jarraituz, emakume-mota jakin bati lotzen zaizkio erakundeok, mugimendu feministaren irudi berezia proiektatzen duten emakume erradikal batzuri, alegia. Erakundeen artean ere ez dute bereizketa garbirik egiten, eta erakunde moderatuei zein erradikalenei kritika berberak egiten zaizkie.

Beste alde batetik, erakunde hauei ere nabari zaie egungo euskal gizarteari datzekion konpromisu eta eskuhartze-eza. Baina funtsezkoa zera da, egoera, ideologia eta arazo oso desberdinak erakusten dituzten emakume-talde, kolektibo, erakunde eta abarrak daudela. Feminismoaren mezua, haatik, mezu orokorra, bakarra, ñabardurarik gabekoa eta emakume guztientzat erabat aplikagarria bait litzan ageri da, eta ez da egia. Eta gainera ez da hori emakumezko gehienen kezka nagusia.

Horrenbestez, emakumezkoentzako promozio politikaren funtsezko alderdi bat dakusagu, hots: gizarteratu beharreko mezuek askotarikoak eta bereizituak izan behar dituzte. Mezu orokorrek sumindu egin ditzakete beraiek ez doazkien giza-taldeak. Aurrerantzean, emakumea orohar goratu edo promozionatu behar bada ere, emakume-talde desberdinak bereizi egin beharko dira inguruabar eta egoera desberdinek eskatzen duten neurrian. Hortaz, esate baterako, eta emakume-talde guztiak zerrendatu gabe, baina, esandakoa hobeto ulertarazi nahian, hurrengo talde edo kolektibok sailka genitzake emakumezkoen artean:

- Heziketa eskasa edo erdi-mailakoa duten neska gazteak. Hauek lan merkatura heltzeko duten arazo nagusia erroletan datza. Aurkitzekotan, lau lan-mota aurkituko dituzte, gaizki ordainduak eta desatseginak. Hauetako askok lehen seme-alaba izandakoan lanari uzteko asmoa dute. Normalean etxeko lan guztia euren gain hartuko dute. Lanera itzultzerakoan oztopo are handiagoak eta okerragoak aurkituko dituzte.
- Unibertsitateko neskak. Ia ezinbestez administrazioarako oposaketak egitera behartuak, edo zorionez, enpresa pribatuan staff lanean arituko direnak. Beren lanbide-nortasuna garatzeko alor berriak jorra ditzaten merezi du.
- Administrazioan, bankan nahiz aurrezki kutxetan diharduten unibertsitariak. Gaitasun handiak, baina, behin maila batetara heldutakoan, lanbide-abiada moteltzen dutenak. Hasierako abiadari eutsi beharko liokete, eta horretarako lehentasun desberdinen aurreko geldokeria gainditzeko lagundu behar zaie.
- Seme-alabak hazi dituzten etxekoandre helduak, lan berrietara egokitzeko zailtasun handiak dituztenak eta, gainera, lantegi batetan zortzi orduz lan egiteari muzin egiten diotenak.

Lau multzo azaldu diren arren, hainbeste gehiago dira, eta guztiek eskatzen dute jokabide berezia.

Elkarriketatutakoek gogor kritikatu dute emakumezkoak kontratatzeagatik enpresei dirulaguntzak ematea. Askoren ustez, horrek ez du ezertarako balio, eta azken finean, maula-iturri berriak baino ez lituzke ekarriko. Eritzi berbera dute enpresariak nahiz sindikalistek, eta profesionari askok ere bai. Garbiketa-lanetan diharduten emakumeek ere zera adierazi dute, neurri horiek dagoeneko aplikatuak izan direla eta enpresarientzako mesedegarriak izan direla, ez emakumeentzako ez eta emakume langileentzako.

Hobetsiagoak dira ihardunaldi partzialeko enpleguaren aldeko neurriak, eta elkarriketatutako askok aipatu dute neurriok European ohizkoak direla eta hemen ez, eta ez dakitela hain justu

zergatik ez diren gehiago aplikatzen Euskadin. Neurri honen funtsezko akatsa, ordea, goi-karguei dagokie, zeren, ezin bait daiteke lanbide-maila gorenetera heldu ihardunaldi partzialean arituz, eta nolana ere, ihardunaldi partzialak emakumezkoentzat nahiz gizonezkoentzat aplikagarria izan behar bait du.

Eragozpen ugari soma daitezke ihardunaldiaren malgutasunari dagokionean, eta orohar, ordutegien aldaketari dagokion guztian, esate baterako, merkatal alorrean, interes erabat kontrajarririk bait daude. Zenbait kasutan bidezkoa litzateke, baina, lantegiko ekoizpena tartean denean, orohar, ez da aplikagarria. Enpresariak ez dute bat ere gogoko neurri hau.

Aitzitik, bikoteak etxetik kanpo lan egitea ahalbidetuz, etxean lan egiten duenaren alokairuagatik zergarintzearen aldeko hainbat eta hainbat eritzi jaso dira. Erabatekoa da, halaber, haurtzaindegia eta eskola-jantokiei dagozkien zerbitzuen ezarketa eta artapenaren aldeko eritzia. Bestelako arazoa da, ordea, haurtzaindegioak umeen beharretara ala gurasoen eskakizunetara egokituak diren. Kezka eta zalantza ugari dago alor honetan, eta ideologia desberdinetako pertsonengan, gainera.

Elkarriketatutako guzti-guztiek uste dute Administrazioa, ereduak erakunde gisa, funtsezko tresna dela umeek lehen urratsak ematen dituztenetik ageri den diskriminazioaren aurkako burrukan, horretarako hezkuntza, laneratzeko sarbideak eta emakumezkoen edozein mailatako promozioa zainduduz. Hauxe izan daiteke ondorioztapen edo jokabide nagusia, zeren elkarriketatutako direnetako gehienek esanetan, arazoa funtsean kulturala da, eta hezkuntzako parametro zenbait aldatu ezik, ez dago egungo egoera behin-betiko aldatzerik.

— *Askotariko eritziak ageri dira emakumearentzako politika berezi baten beharrari buruz. Aurkako jarrerarik tinkoena goi-mailako karguak dituzten emakumezkoen artean nabari da. Komunikazio-politika zehatza behar da, emakume-taldeak, kolektiboak, elkarteak eta haien interes eta arazo desberdinak bereizi behar dituenak. Gehiengo batek kritikatzeko dituen enpresentzako dirulaguntzak, ihardunaldi partzialeko lana, ordea, gehienek onesten dute, baina goi-mailako lanpostuetara heltzeko akatsak ahaztu gabe. Ihardunaldiaren malgutasuna aplikatzeko eragozpenak. Etxean lan egiten duen pertsonarengatik zergarinketaren aldeko eritziak, hala nola, eskola-jantokiei nahiz haurtzaindegiei buruzkoak. Ideia nagusi bat, Administrazioak eredu gisa jokatu beharra daukala hasiera-hasierako hezkuntzatik. Azken finean, jakina, hezkuntza arazo bat da.*

Azkenik, behin eta berriz adierazten da, arazoa ez datzala legeetan, gai honi dagokionez eraldatuak izan bait dira, arazoa legeok egunean-egunean ez aplikatuzetik eratortzen dela.

3

**ONDORIOZTAPEN
OROKORRAK**

Emakumezkoek etxetik kanpo lan egitera bultzatzen dituen arrazoi nagusia beharrian ekonomikoan datza, dela norberarena, dela familiarena. Hau begibistakoa da gizarte-sektore behar-tsuenengan, ez ordea beste batzuren. Onartuak izan diren edo egon dauden erantzunkizunek mugatzen dituzte alor honetako jokabideak. Emakumezkoak, ordea, ez dira gizonezkoak bezain kezkatuik agertzen bizitzari aurre egiteko lan bat aurkitzearen.

Ezkondutako emakume gehienek adierazten dute beren senarrek gogoko dutela haiek etxetik kanpo lan egin dezaten. Ezkondu ondoren lanari uzteko joera oso txikia da, baina amatasunaren ondorengoa nabarmen handiagoa.

Lanbide-irrits edo ambizio apalagoa antzematen da emakumezkoen artean, leporatu zaien famili zama handiagoaren kariaz, hein batez. Emakumezkoek eta gizonezkoek lehenetsun desberdinak erakusten dituzte lana eta botereari dagokienez.

Diskriminazioari gagozkiolarik, orohar, administrazioan eta enpresa pribatuan egoera desberdinak ageri dira. Gehiago handi batek onartzen du, administrazioan laneratzeko aukera eta soldata berberak eskaintzen zaizkiela bai gizonezkoek eta bai emakumezkoek, promozioan, ordea, desberdintasunak nabari dira. Era berean, askoren ustez, enpresa pribatuan, desberdintasuna da nagusi laneratzekoan edota promozio alorrean, eta zenbait kategoriatan soldatan ere bai, nahiz eta azken urteetan egoera hau zerbait zuzendu den.

